

## San Juanen atariko, Corpusa

Fernando Diazen azkena izan da | 13



San Migel. | JOSETXO ARANTZABAL

Uribe-Etxebarria, Ait Chaou eta Amilibia nagusi Gabez Takarraran | 22



Irailerako iragarri du itzulera Gure Esku Dagok, Amaian | 6



86 taldek hartu dute parte Bergarako hiruko torneoan | 24

## Maider Arregi, ohorezko matrikula

Euskal Herriko eskolarteko bertsolari txapelketa irabazi du oñatiarrak | 29



Maidar Arregi, txapelarekin, Oñatiko Foruen plazan. | JOSETXO ARANTZABAL

## Udaletxean adostutako sistema babestu dute elgetarrek gehiengo argiz



Botoa ematen. | JON BEREZIBAR

Bost edukiontzi jarriko dituzte, eta horietako hiruk izango dute txipa, kontrolerako | 5

## la 1.400 postu mantentzeko eskaintza egin du Cata-k

Etxetresnetarako proposamena hobetu egin dute horrela | 7

## Oñatiko euskaran idazteko eskuliburua

Hiztegia eta esapideak ere jasotzen ditu | 11

## Imanol Cruz nagusi Herri Lasterketan, Antonio Casado menderatuta

Donostiarrak azken zuzenean aldatu zuen erritmoa | 26

### SINADURAK



ESTEPAN PLAZAOLA | 8



GOIATZARANA | 8



KARLOS ETXANIZ | 16



JOSU ZULOAGA | 19



IMANOL GALLEGO | 37



IXIDOR SOLUPE | 40





Kolonbiako Unipañamericana unibertsitatea kudeatzen du MEIk 2008a ezkerrean. | MEI



# Mondragonen hezkuntza eredua, munduan

- ▶ Mondragon Educacion Internacional proiektua erabat sendotua dago
- ▶ 2009an hasi zen martxan eta, gaur egun, hiru herrialdeetan dago
- ▶ Unibertsitateek enpresarekiko zuten lotura indartu egin du MEIk

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza eredua munduko gero eta leku gehiagotan dago, Mondragon Educacion Internacional (MEI) proiektuaren bitartez. Gaur egun, arduradunek proiektu sendotzat dute MEI. Bi unibertsitate eta lau lanbide heziketa zentro kudeatzen ditu, Kolonbian, Mexikon eta Saudi Arabian, eta beste herrialde batzuetara zabalteko asmoa dauka.

Mondragon Educacion Internacional 2009an sortu zuten, sozietate moduan, Mondragon Unibertsitateak eta Alecop kooperatibak, eta Mondragon Korporazioak bat egin zuen gero. Mundu osoan goi-hezkuntza erakundeak sustatzea zen helburua, eta hori, bi modutara: berriak sortuta edo zeudenetan parte hartuta.

## Unibertsitate globalak

Beste edozein unibertsitate bezala, nazioartera irteteko prozesuan dago MU. Horrek hainbat modutara aldarazi du hezkuntza, MEIko zuzendari orokor Iñaki Pagonabarragak azaltzen duenez: "Ezagutza, gaur egun, leku guztietan dago. Ezagutza hori sare baten ipintzeko gai izateak izu-

garrizko abantaila emango ligu-keela ikusi genuen". Edozein enpresari gertatzen zaion moduan, hezkuntza erakundeak ere globalizatu egin behar izan dira. Lehen ere beste unibertsitate batzuekin bazuen harremana MUK: ikasleen eta irakasleen elkartrukea, masterrak eta doktoretza programak konpartitzea... Baina horrek denak "ez zuen harreman estrukturalik sortzen" eta horixe zen MUK lortu nahi zuena.

Behar horri erantzuteko sortu zen MEI.

## Eredu erakargarria

Beste herrialde batzuetan ere interesa zegoen MUKren eredua-

rekiko, Pagonabarragak azaltzen duen moduan: "Mondragon Korporazioaren inguruan milaka bisitari izaten ziren, eta haiei beti gustatu izan zaie hemengo unibertsitate eta hezkuntza eredu, bai kalitatearengatik, bai enpresaren beharrekiko duen loturarengatik; eta kooperatiben inguruan sortzen den giza-aberastasuna ere gustatu izan zaie".

Bestalde, atzerriko erakunde horiek ere behar batzuk zituzten, Iñaki Pagonabarragaren esanetan: "Erakunde horien esperientzia, ordura arte, hauxe zen: hornitzaileekin egiten zituzten proiektuak bazebiltzala hornitzaileak han zeuden bitartean, baina gero horrek denak indarra galtzen zuela". Hausnarketatik etorri zen erantzuna: "Zergatik ez muntatu han gure eredua eta gure ikastetxeak?" 2007an eta 2008an ibili ziren aukera hori aztertzen.

## Euskaldunon balioak

Ezarri den zentroetan, Mondragon zigilua duen hezkuntza eredua zabaltzen du MEIk. Pagonabarragaren esanetan, atzerriko erakundeek gehien apreziatzen dituzten balioen artean hauek

daude: "Euskaldun guztion balio batzuk oso estimatuak dira: planifikazio-zentzua, seriotasuna, lan egiteko gaitasuna, zintzotasuna... Eta, zehazki, Mondragoni buruz, unibertsitateak enpresarekiko duen lotura estimatzen dute, unibertsitatea enpresaren beharrei begira egotea; izan ere, euren herrialdeetan, unibertsitatea eta enpresa bi mundu desberdin dira. Bestalde, hemen lana aurkitzeari ematen zaion garrantzia baloratzen dute. Hango unibertsitateek zenbat lizentziadun edo tituludun irten diren neurtzen dute; hemen garrantzitsuagoa da tituludun horietatik zenbat enplegatu diren. Eta, kalitate aldetik, erabiltzen den metodologia, kompetentzien araberrako curriculum, irakasleen rola aldatu izana... hori ere erakargarria egiten zaie".

## Kolonbia: Unipañamericana

MEIren lehenengo kolaborazioa Kolonbian izan zen. Izan ere, Alecopek 1996a ezkerrean zuten han ordezkari eta MEIrendako "oso ezaguna" zen Kolonbia. "Parean tokatu zen Kolonbiako konpentsazio-kutxa batek, Compensar izenekoak, Unipañamericana unibertsitatea bereganatu zuela. Eurek enpresei zerbitzua eman

nahi zieten, baina unibertsitate baten bidez. MU ezagutzen zuten eta MUKren eredua hara eraman nahi zuten; ez bere horretan eraman, baizik eta, oinarriak hartuta, hango eredua eraiki", gogoratzen du Iñaki Pagonabarragak. Horretarako, MUKekin kontatzea erabaki zuten, "ez bakarrik hornitzaile gisa, baita unibertsitatearen gestioan parte hartuz ere". Hala, 2008ko bukaeran hitzarmena egin zuten biek.

Gaur egun ere kudeaketa horrekin jarraitzen du MEIk. Aldaketa batzuk izan dira tartean, Iñaki Pagonabarragak azaltzen duen moduan: "Hasieran, lau urtean gure langileak izan ziren Kolonbian bizi izaten eta lanean. Gaur egun bakarra dago, izan ere, helburua ez zen gure jendea han geratzea, baizik eta hango jendea jabetzea ereduarekin". MEIren ordezkariak bi erakunde dituzten fundazioetan, unibertsitatearen helburuetan eta hausnarketa estrategikoetan hartzen du parte.

Bestalde, titulu berriak ematen hasi da -ingeniaritzan, enpresa kudeaketan eta komunikazioan-, curriculum garatu da eta hezkuntza ereduaren ezarke- ta landu dute.

Unipañamericanak 3.000 ikasle zituen; gaur egun, 8.500 ditu, eta 2019rako 12.000 izatea espero du. Gainera, bere plan estrategikoan dago ordezkariak irekitzea Kolonbiako hainbat eskualdeetan. Gaur egun, Bogotan, Calin, Villavicencion eta Cartagenan ditu unitate operatiboak.

## Mexiko:

### UCO-Mondragon

Kolonbiako esperientzia sendotu eta gero, beste herrialde batera joan nahi zuen MEIk, eta Mexiko aukeratu zuten. 2013an, Queretarako Universidad Contemporana-

DATUA

900

LANGILE

MEIren proiektuaren inguruan, askotariko lanak egiten, 900 lagun dabilta.

DATUA

300

ERAKUNDE

300 erakunde zeuden 26 ikastetxerengatik lehian; MEIk hiru lortu zituen.





Saudi Arabian lau lanbide heziketa zentro gestionatzen ditu. | MEI



Mexikoko UCO-Mondragon zentroko ikasle batzuk. | MEI

nearekin (UCO) hitzarmena egin zuten. Zentro txikia da, oso herrialde polarizatu baten: 2.173 unibertsitate pribatu ditu, eta bakarrik horietako 36k dute Bikaintasun Akademiko ziurtagiria, tartean UCOK. Hitzarmena egin zutenean, unibertsitate hori berri nahi zuten arduradunek, eskaintza akademikoa handitzeko.

Gaur egun, UCO-Mondragon deitzen da. Oraindik txikia da, 500 ikasle ditu eta bederatzigaratu ematen ditu. MEIko zuzendariak dioenez, toki arazoak ditu; Queretaro erdian dago eta campus berria egiteko plana egin zuten, hiri kanpoan, Ciudad Maderasen, zehazki; abuztuaren 10an, eskaintza ikasturte berriarekin batera inauguratu dira.

Beste era honetara ere berri-zenen joan da zentroa, Pagonabarragaren azalpenaren arabera: "Unibertsitateak enpresarekiko duen lotura handitu nahi dugu. Gaur egun, ez du iningeniaritzarik ematen, baina gure asmoa da enpresen erreferente bihurtzea, administrazioiko ikasketek gain iningeniaritzak ere eskainiaz. Datoren ikasturtean, hiru iningeniaritzak ematen hasiko gara". Zehaz-

ki, Mekanika, Elektronika eta Industria Antolakuntzako Iningeniaritzak emango dituzte; eta, hurrengo urteetan, Informatika eta Industria Diseinuko Iningeniaritzak. Gaur egun ematen dituenak alor hauetakoak dira: Diseinu Grafikoa, Gastronomia, Zuzenbidea, Psikologia eta Enpresa Administrazioa.

Berrikuntza horiek emango dioten bultzadarekin, 2019rako 4.000 ikasle inguru izango ditu UCO-Mondragonek, MEIren esanetan.

### Saudi Arabia: Lanbide Heziketa zentroak

Bere lan-eremu gisa, Latinoamerika lehenesten zuen MEIren hasierako plan estrategikoak; baina, MEI sendotzen joan den neurrian, beste aukera batzuei eutsi ahal izan die. Horren adibide da Saudi Arabiako esperientzia. Gaur egun, Lanbide Heziketa lau zentro kudeatzen ditu MEI herrialde horretan, zehazki Muhayil, Umluj eta Al Wasjh hirietan.

MEIko zuzendari orokor Iñaki Pagonabarragak honela laburtzen du proiektu hori: "Saudi Arabia ez da hezkuntza munduan oso ezaguna, baina, 2002a ezker, ikasleen profesionalizazio plan handi bat dabil aurrera eroaten. Hala, 2013 eta 2018 bitartean 100 ikastetxe eraiki nahi dituzte, eta hezkuntza profesionala indartu nahi dute. Horretarako, mundu osoko eredu onenak han ezarri nahi dituzte".

IÑAKI PAGONABARRAGA | MEI-KO ZUZENDARI OROKORRA

## "Ezagutza sarean jartzeak abantaila handia emango zigula ikusi genuen"

**Hezkuntza ere globalizatu egin da. Ze aldaketa ekarri ditu horrek?**

Beharrak aldatu egin dira. MUREn zereginetako bat enpresei irtenbideak ematea da. Enpresak, gaur egun, ez daude bakarrik Arrasaten; orain Txinan, Mexikon... ere badaude. Hortaz, enpresei erantzuna ematea ez da bakarrik hemen ematea erantzun hori, baizik eta enpresek izan duten globalizazioan ere laguntzea. Ezagutzarekin gauza bera gertatzen da: ezagutza, lehen, norberak zuen; gaur egun, alde guztietan dago. Ikusten genuen ezagutza hori sarean jartzeko gai baginen, izugarriko abantaila emango ligukeela horrek.

**Ze alde on ditu MEIko Mondragon Unibertsitatearendako?**

Sare bat osatzeko aukera: elkarlana, ikasleen eta irakasleen trukea, programak eta ikerketa-proiektuak konpartitzeko eta elkarrekin erreminta berriak sortzeko aukera, titulazio anizkoitzak eskaintzea...

**Eta MUko ikasleendako?**

Hango zein hemengo ikasleei formazio sakonagoa eman nahi die. Kolonbiarekin egon dira ikasle-el-



kartruke batzuk; hemengo ikasleek Mexikon praktikak egiteko aukera lantzen gabilta; eta Arabian ere interesa dute Arrasateko ikasleekin elkartrukeak egiteko.

**Berezitasun bat badu MEI: beste unibertsitate horien diseinu metodologikoan eta gestioan parte hartzen du. Nola?**

Master batzuk konpartitzeak edo ikasleek trukatzeko ez du harreman estrukturalik sorrarazten. Beharrezko ikusten genuen, horiek sortzeko eta gure eredu herrialde horietara eramateko, guk kudeaketan parte hartzea, unibertsitate horren zati bat gu izatea eta gu inplikatzeko haien jabe goan eta beste arlo batzuetan.

Hango agintariak jarraitzen duten eredu hau da: eraikina euren egin, baina kudeaketa lizitazioa atera. Halako lehenengo bolada 2013an izan zen: "Hamar ikastetxe atera ziren lizitazioa, eta parte hartzea erabaki genuen. Guretzako erroka ere bazen: hezkuntzako eragile guztiak horretan dabilta eta, bestetik, eskaintza ingelesez egin behar zenez, beste aurrerapauso bat zen. Azkenean, ikastetxe bat adjudikatu ziguten; lizitazioan parte hartu zutenen artean, anglofono ez ginen bakarrik izan ginen".

Lehen adjudikazio hori Muhayil hirikoak izan zen, Saudi Arabiako hego-mendebaldean.

Beste lizitazio bat aurten izan da: 26 ikastetxe lizitatu zituen gobernuak, eta 300 enpresa eta erakunde aurkeztu ziren; MEIri hiru adjudikatu zizkieten, gizonen artean, anglofono ez ginen emakumezkoendako bat.

Adjudikazio horiek orain dela gutxiak direnez, oraindik langile dezente ditu MEIko Saudi Arabian: "Batez ere zuzendaritzako postuetan eta koordinazio lanetan dago Arrasateko eta inguruko jendea, 12 bat. Denetara 90 bat langile dira. Irakasle asko amerikarrak, ingelesak, kanadarrik... dira".

Arabiako zentroetako lanak Arrasaten ere sortu du lana eta aberastasuna: "Hemen ere hainbat jende dago Saudi Arabiako eskoletarako materiala prestatzen, eta lanean dabilzan horien artean ikasle batzuk ere badaude", esaten du Iñaki Pagonabarragak.

**SEAT LEON  
ST BERRRIA**

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70





# (B)

**Diru (B)eltza,  
gizarte-zerbitzu  
(B)eltzak**

**“A” gizartea  
lortzeko**

**eskatu beti faktura**

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA  
GARDENERA**

[www.ekonomiagardena.net](http://www.ekonomiagardena.net)



 **Gipuzkoako**  
**BERRIA**



# Bost edukiontziko sistemaren alde egin dute elgetarrek loteslea den herri galdeketan

- ▶ Guztira 926 herritar zeuden deituta eta 431k babestu dute udaletxean adostutako eredia
- ▶ Alkateak, pozik, dio "erronka" orain ohiturak aldatu eta ezarritako ehunekoetara heltzea izango dela

JON BEREZIBAR | ELGETA

Galdera zehatz bati eman behar izan diote baiezkoa edo ezezkoa elgetarrek: "Udaletxean adostu den hondakinak biltzeko sistemarekin ados zaude?". Hala, botoa eman zezaketen 926 herritarretatik 497k eman dute botoa (%53,5ak) prozesu guztian. Udalbatzak proposatutako sistemaren alde 431 herritarrek egin dute eta ezezko botuak 61 izan dira, 3 zuri eta baliogabe bat. Hala, bost edukiontzi ipiniko dituzte Elgetan eta horietatik hiruk kontrolerako txipa izango dute (horiak, organikoarenak eta errefusarenak), akordioak dioenez.

## "Kontsulta modu serioan"

Emaitzak izan bezain laster Oxel Erostarbe alkatea pozik agertu zen atzo eta nabarmendu zuen "elgetarrek eskertu" egin dutela "iritzia jaso eta kontsulta modu serioan egin izana". Erostarbek azaltzen duenez "argi geratu da elgetarrek txiparen sistemaren alde egin dutela" eta, era berean, kontuan hartu dela "udalbatza-



Botua emateko gela, udaletxean, atzoko eguerdian. | J.B.

rean lortu den kotsentsu zabalak". Udalak botoa eman zezaketen herenaren parte-hartzea zeukan finkatuta aurrera egiteko baldintza bezala eta horrela, emaitzak ikusita, loteslea izango da kontsulta. Asmoa da uda ostean ezar-

tzea sistema berria eta alkateak iragarri du Mankomunitatearekin hasiko direla orain lanean.

## Ohiturak aldatzea, "erronka"

Halaber, Erostarbek argitu du atzokoa "lehen pausu bat besterik

ez" dela. Hain zuzen, "erronka", orain, "ohiturak aldatu eta pausuz pausu adostutako ehunekoetara heltzea" dela ohartarazi du. Alkateak berretsi du udaletxetik "behar diren erraztasun guztiak" emango dituztela.

OXEL EROSTARBE  
ALKATEA

## "Elgetarrek eskertu dute seriotasuna"

Galdeketak izandako erantzunarekin eta herritarrengandik jasotako in-



resioarekin pozik agertu zen eguerdirako jada Oxel Erostarbe, Boto-emate mahaian bertan egon zen alkatea **Herritarrenaldetik ze inpresio jaso duzu?**

Inpresio ona hartu dut. Gaiera guztiak komentatzen digute behintzat seiotasunarekin egin dela. Azken finean, jendea etorri da boto delegatuekin eta aukera hori ez da egin kontsulta honetan eta uste dut elgetarrek eskertu egin dutela seiotasun hori.

## Aurrez ere boto asko jaso dituzue.

Aurreko astean, etorri ezin zirenek aukera izan zuten botua emateko, posta bidezko boto-emate moduko bat izan zena eta aurreko aste guztian zehar ere egon da botoa emateko aukera eta esan beharra dago, hain zuzen, %26ak aurrez eman zuela botoa.

# Kooperatibismoaren hausnarketa eraberritua proposatu du Ignacio Ramonet adituak

- ▶ Kooperatibismoa hizpide hartuta, bigarren jardunaldiak egin zituzten Arrasaten egubakoitzean
- ▶ Mundu ikuspegitik landu zuen kooperatibismoa Ignacio Ramonet kazetari eta gizarte analistak

ANE ELORDI | ARRASATE

Kooperatibismoari buruzko bigarren jardunaldiak egin ziren egubakoitzean, Mondragon Unibertsitatearen Lanki Lankidetzaren eskutik. Kooperatibek egun bizi duten garai gorabeheratsua kontuan izanda, hitzordu garrantzitsua antolatu zuten, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean. Tartean, Ignacio Ramonet kazetari eta gizarte-analistak hitzaldia eskaini zuen: *Kooperatibismoa eta ekonomia solidarioa globalizazioaren erronken aurrean*.

Goizean, hausnarketa eta eztabaidarako beta izan zuten bertaratutakoek. Bazkalostean, diploma banaketa egin zen; *Garaipen Kooperatiboko Aditu Ikastaroa* egin duten ikasleek diplomak jaso zituzten. Ostean, Ramonetek hitzaldia eman zuen.

## Kooperatibak munduari so

Kooperatiben egungo egoera izan zuen Ramonetek hizpide. Horiek sorreratik gaur egunera arte egindako ibilbidetik abiatuta, etorkizuneko egoera



Ignacio Ramonet kooperatibismoari buruzko bigarren jardunaldietan. | ANE ELORDI

aurreikustera ausartu zen. Estatuak oinarri hartuta, Ameriketako Estatu Batuen beheranzko joera argia aipatu zuen, baita Ekialde Hurbileko egoera "zorua" ere.

Mundu ikuspegitik landu zuen gaia, eta egungo gizartea jasaten ari den aldaketa geopolitikoa izan zuen hitzaldiaren abiapuntu. Izan ere, Ramonetek ustez, eta kooperatibismoaren ikuspuntutik, XXI. mendeko gizarteak aldaketa asko jasan ditu. Ondorioz, arlo horretan eragiteko estrategiak aldatzearen alde agertu zen aditua. Bere ustetan, kooperatibismoak badauka oraindik tokia jendarrean, eta mundu mailan eraginkorra izan daiteke, baldin eta egokitzen jakiten badu.

Beharrezko ikusten du Ramonetek hausnarketa eraberritua: garaira egokitzeko moduko kooperatibismoa.

## Egun osoko jardunaldiak

Kooperatibismoaren inguruan diharduten hainbat pertsonak hartu zuten parte jardunaldietan. Goizeko saioan, tokiko gaiak landu zituzten; *Arrasateko esperientzia kooperatiboaren erronkak* ikerketatik abiatu ziren. Igor Ortega, Lanki Institutuko iker-tzailea, izan zen hizlari, eta, ondoren, talde-dinamika bitartez, eztaidarako tartea egon zen, baita ondorioak ateratzeko ere. Egitasmoa parte-hartzailea izan zen eta hausnarketara bideratua ere bai.



# Herri batzordeetan landuko du ikasturte hasiera Gure Esku Dagok

- Irailaren 13an izango da eta "indarberrituta eta indartsu" hasiko direla aurreratu dute
- Nazio mailako batzarra egin zuten zapatu goizean Arrasateko Amaia antzokian

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Euskal Herriko eskualde guztietako ordezkariak batu ziren zapatu goizean Arrasateko Amaia antzokian Gure Esku Dago ekimenak egindako nazio mailako batzarrean. Zorionak eman zizkien guztiei Zelai Nikolas bozeramaileak: "Erronka betetzeko gai izan gara".

## Elkarrekin

Nikolasek herritarrei zorionak eman zizkien pasa den ekainaren 8an izandako parte-hartzeagatik. Eta hiru arrazoi aipatu zituen: "Herri bat garela pentsatu dugu, geugan sinetsi dugu, gure esku dagoela sinetsi dugu, eta esandakoa egin dugu. Ez dugu giza katea bakarrik egin, bidea baizik. Eta bide hori elkarrekin egin dugu, konfiantzan eta pozik". Eta gaineratu zuen: "Ekainaren 8koa, baina, urte guztian egindako lanaren zati bat izan da, izebergaren punta. Horren atzean daude herriz herri sortutako ilusioa eta konfiantza, indarra eman digun lortutako aniztasuna eta helburu bera, erabakitze-ko eskubidea izatea".

Hemendik aurrera lanean jarraituko dutela ere azpimarra-



Amaia antzokiko behe aldea bete zuten batzarrean parte hartu zutenek. | IMANOL SORIANO

tu zuen: "Etorkizunerako bide hori denon artean egin nahi genuela esan genuen hasiera hasieratik. Hau ez zela abertzaleen arteko topagune bat. Printzipio demokratikoak batzen gintuela eta horren bueltan, denak batu

nahi genituela. Horregatik, aurrerantzean ere badaukagu zeregina". Eta gaineratu zuen: "Horretarako, orain arte sentitutakoa lanabes bihurtu gura dugu eta indarberrituta, indartsu, bueltatuko gara uda ostean".

## Herri batzarretan

Amaiatik, Arizmendi ikastolak antzoki ondoan duen eraikinerara joan ziren, taldeka batu eta hemendik aurrerako lana elkarrekin definitzeko. "Hemen erabakitzen dena herri batzorde-

## Europako treneko bagoia

"Europar martxan jarri den trenari beste bagoi bat gehitu" zaiola ere aipatu du Zelai Nikolasek Arrasaten. "Orain urtebete esan genuen Europar tren bat dabilela. Demokraziarena, erabakiarena. Eskozia doa bagoi batean, bigarrenean Katalunia. Hirugarren bagoi bat gehitu genion tren horri, ekainaren 8an".

"Irailaren 11n Diada eguna egingo dute Katalunian; 18an, berriz, erreferenduma Eskozian. Guk irailaren 13an abiatuko dugu ikasturte berria".

tara pasatuko da gero, eta han jarraituko dute lanean", adierazi zuen Zelai Nikolasek. Arrasateko Gure Esku Dago taldeak egin zituen koordinazio lanak kideak taldeka bildu eta gela ezberdinetan banatzeko.

## Herrien arteko elkartasuna, El Filtroko gertakariak gogoan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

"Duela hogeituz hamar urte Uruguain bizi izan genuena barruan eramango dugu beti. Sentimenduak bor-bor izan ditugu, dantzaz. Emozioa handia izan da", azaldu zuen Jesus Mari Goitia Manueltxo oñatiarrak zapatuan El Filtroko gertaerak gogora ekarri zituztenean.

Errefuxiatu eta Iheslarien Nazioarteko Eguna zela aprobetxatuta, egun osoko aldarrikapen festa egin zuten Oñatin zapatuan Askapenak eta beste zenbait eragilek antolatuta. Gonbidatuen artean, duela hogeituz hamar urte Uruguainko El Filtro ospitaleko gertaerak gertutik ezagutu zutenak zeuden.

Manueltxo oñatiarrak gain egon ziren, Uruguainko kartzelan hil zen Agustin Urrutia plaentziarraren ama, ekainaren 10ean Uruguaitik Euskal Herrira bueltatu zen Pello Gomez Txikitin, egun Hernanin bizi den Joxe Arregi, Mikel Ibañez zenaren iloba eta egun Uruguain bizi den euskal errefuxiatu baten senidea. Gertakari haietan hil ziren Roberto Facal eta Fernando Morroni ere izan zituzten gogoan. Azken horren amaren ahotsa ere entzun zen, elkartasuna adierazten. "Orduko elkartasunak bizirik dirau. Harrez gero hirutan egon naiz Uruguain, hango lagunekin. Bigarren etxea dut", aitortu zuen Manueltxok.

Internazionala eta Eusko Gudariak kantuak abesten bukatu zuten eguerdiko ekitaldi politikoa. Haren segidan elkarrekin bazkaldu zuten guztiek Antixena parkean.



Ekitaldiaren aurretik poteoan ibili ziren herriko kaleetan. | IMANOL SORIANO



El Filtroko gertaerak gogoratzen, Uruguainko bandera eskuetan dutela. | I.S.



Kontzertuak ere izan ziren Atzeko kaleko plazatxoan. | IMANOL SORIANO



# Eroskiko bazkideek galeren %30 hartu dituzte euren gain

"Onespen zabala" izan du proposamenak batzarrean, Eroskiren arabera, baina ez du zenbatekoa zehaztu

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eroskiko bazkideek euren gain hartuko dituzte taldearen galeren %30; iaz, 168,4 milioi galdu zituen Eroskik. Joan den eguaztanean, ekainak 18, batzar orokorra egin zuten Barakaldoko BECen eta "onespen zabala" izan zuen zuzendaritzaren proposamen horrek. Eroskik ez du zehaztu zenbat aldeko boto izan zituen.



## Bazkide bakoltzaren erreserba

Eroskik prentsa ohar bidez eman zuen batzarreko emaitzen berri. Esan duenez, datoren bost urteotako irabaziekin konpentsatuko dira galera horiek.

Honakoa esan du Eroskik: "Irizpide hori bat dator Eroskik irabaziak banatzeko bazkide langileenganako beti izan duen moduarekin". Gaineratu duenez, "banakako erreserba negatibo berri baten bidez" egingo da galeren banaketa. Bazkide bakoltzak halako erreserba bat dauka kooperatiban. Berau sortzeko

erabakia bazkideen %80k onartu zuten. 8.000 bazkide baino gehiago dira.

Eguaztenezko batzarrera 500 bazkide zeuden deituta, bazkide langileak eta bazkide kontsumitzaileak. Eroskiko presidentek, Agustin Markaidek, 2013-2016 Plan Estrategikoaren testuinguruan azaldu zuen Eroski nola dagoen. Hain zuzen, honakoa esan zuen: "Eraldatzearen lehenengo urtea izan da 2013a. 2014 ere oso garrantzitsua izango da Eroski berriaren aurrerapausoak

sendotzeko". Eta honakoa gogorarazi zuen: "Kontsumoa murriztu egin da eta bidea ez da erraza izango. Datorren urteotan testuinguruak hobera egiten badu, errazagoa izango da; ez bada hobetzen, zailagoa izango da".

## 292,4 milioiko interesak

Bestalde, 2003a ezkerro egiten diharduen moduan, Ekarpren Finantziario Subordinatuaren interesak banatzea erabaki zuen Eroskik batzarrean. Hain zuzen, 2015eko ekitaldiko interesak ziren horiek, eta 2016ko urtarrilean ordainduko dituela ziurtatu du.

Eroskik gogorarazi du "beti" bete dituela ekarpren horiekiko konpromisoak eta, lehenengoak emititu zirenetik, 292,4 milioiko interesak ordaindu dizkiela jabeen eta 660 milioi euro bereganatu. Hala, 2002an produktu hori erosi zuenak balio nominalaren %63 jaso du dagoeneko. Interesak berdin kobratzen dira, Eroskiren emaitzak direnak direla.



Fagor Etxetresnen lantegi bat. | IMANOL SORIANO

# Cata-k dio ia 1.400 postu mantenduko lituzkeela

L.K. | ARRASATE

Egubakoitzean egin zuten kataluniarrek Fagor Etxetresnen Garagartzako eta Eskoriatzako lantegietarako eskaintza loteslea, eta zuzeneko 500 lanposturekin batera –apirilean erakutsitako konpromisoa hori zenez– jasotzen ditu ia 900 zeharkako –azpikontratazio bidez–, 16,2 milioi euroz gain. Cevital algeriarra da interesa duen bestea; epaileak uztailearen 29a baino lehen erabaki behar du.

## Langileek akordioa onartu

Bestalde, Fagor Etxetresnetako, Edesako eta Grumaleko langi-

leek ontzat eman dute administrazio konkurtsalarekin ELA eta LAB sindikatuek egindako aurre-akordioa. Akordioak bi atal ditu: batetik, kalean geratu ziren langileendako ordain-saria finkatzen da; legeak ezartzen duen 20 eguneko ordain-sariaz gain, gehigarri bat. Bestetik, Fagor Etxetresnen jabe berriak egiten dituen kontratuen erdiak soldatapeko langile horien artean egin behar dira, eta beste erdiak, bazkideen artean. LABek balorazio ona egin du: "Uste dugu lan egin nahi duten denondako egongo dela aukera hori".



Caritas Gipuzkoako ordezkariak, prentsaurrekoan. | CARITAS

# Debagoieneko Caritasek 2.177 lagun atenditu zituen iaz

Kopuruak behera egin zuen 2009an eta 2010ean, baina asko handitu da orduz geroztik

L.K. | ARRASATE

Arrasate eta Bergarako (Debagoieneko) Caritasek 2.177 lagun atenditu zituen 2013an; 2008an, 1.654 izan ziren. Kopuruak behera egin

zuen 2009an eta 2010ean, baina 2011tik aurrera nabarmen handitu da. 2012tik 2013ra bitartean oso gutxi handitu da, hala ere. Horiek dira Caritasek 2013ko Memorian

batu dituen datuetariko batzuk. Txostena joan den eguaztanean aurkeztu zuten Caritas Gipuzkoako zuzendariak, Jose Ramón Aramendik; elizako ordezkariak, Xabier Andonegik; Caritas Gipuzkoako idazkari orokorrak, Jose Emilio Lafuentek; eta administratzaileak, Kontxi Elexpek.

Argi utzi zuten laguntza premia handiagoa igarri zutela. Hala, Gipuzkoa osoan 2,76 milioi euro eman zuten bizi irauteko eta etxebizitzarako gastuetan; azken bost urteotan %72,19 handitu da kopurua. Horrez gain, 29.306 lagun atenditu zituzten, orain bost urte baino %48,50 gehiago. Iaztik hona oso gutxi handitu da kopurua, baina, ordezkariak esan dutenez, "gastua 500.000 euro baino gehiago gehitu da" eta honela irakurtzen dute datu hori: "Familiek zailtasunak dituzte egoera honetatik irteerako, aurrezkiak agortuz doaz eta familien koltxoia ahultzen ari da".

Estalitako gastuen artean, etxebizitzako gastuak daude –elektroindarraren fakturak edo komunitateko gastuak– eta baita bestelako gastuak ere, hala nola "seme-alaben eskolako irteerak", arduradunen esanetan.

## Aterpetxeak, urte osoan

Caritasek nobedade batzuk iragarri zituen: neguko aterpetxeak urte osoan irekiko ditu, eta emakumearen duintasuna promozionatzeko inguruko proiektu berria, Miriam izenekoa.



Argindarraren instalazio batzuk, Arrasaten. | GOIENA

# Argiaren fakturan itzulketa izango dute bezero batzuek

L.K. | ARRASATE

Elektraindarreko Kontsumitzaile Txikiarendako Borondatzeko Prezioa (lehen TUR) kontratatuta daukaten kontsumitzaileei bakarrik itzuliko diete enpresek urte hasieran neurritz kanpo kobratutakoa; batez beste, 16 euro, neurritz kanpo fakturatutako kWh bakoitzeko 3,02 zentimo. Merkatu librean operatzen duten komertzializatzaile handiek in esandako tarifa daukaten bezeroak dira horiek. Oñatin, adibidez, jende gehienak ez du itzulketarik izango; izan ere, nahiz eta Oñargik esandako tarifa hori aplikatu, berak

hala erabakitzen duelako da, ez merkatu librean bezeroarekin negoziatu ondoren.

Gainerakoan, diru hori jasotzeko eskubidea dutenei hau ohartarazten die Adicae elkarteko Francisco Javier Alvaradok: "Enpresek ez dute berez dirua itzuliko, baizik eta hurrengo fakturatik edo fakturretatik deskontatuko dute". Uztailearen 1aren eta abuztuaren 31ren artean egin behar dute hori. Dagokien kontsumitzaileek deskontua egiazta dezaten, Espainiako Merkatuen Batzordeak tresna bat ipiniko du bere webgunean ([www.cnmc.es](http://www.cnmc.es)).



**Rober Gutierrez** | Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarteko zuzendaria

# "Krisian ere lan-iragarkiak euskaraz egiten direla ikusteak pozten gaitu"

- ▶ Lansarean aurkeztu du Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarteak, Enpresarean osatzeko
- ▶ Profesionalei eta enpresei kontaktuan jartzeko aukera ematen die atari berriak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkartearen zuzendaria da Rober Gutierrez (Gasteiz, 1970). Elkarte horrek Lansarean tresna aurkeztu berri du. Euskarazko lan-ataria da eta, bi astean, 300 lagunek eman dute izena.

**Zenbat erabiltzaile ditu dagoeneko Lansarean tresnak?**

Aurkeztu eta bi astera, 27 enpresa daude eta 300 hautagai. Curriculum horietako batzuk publikoak dira.

Orain ari gara Lansarean ezagutarazten eta pixkana iritsiko dira hautagaiak eta enpresak. Guk tresna bat ipini dugu. Enpresen eta hautagaien arteko harreman zuzena da bilatzen duguna, eta enpresek eurek ipintzea lan eskaintzak.

**Lana bilatzeko balio dezake, ezta?**

Bai. Lansarean lan-atari bat da, eta elkar ezagutzea erraztuko die enpresa eta profesionali. Batetik, euren lan-eskaintzen berri emateko aukera dute enpresek, eta horrekin batera, hautaketa-prozesuak Lansareanetik bertatik kudeatzeko aukera izango dute. Enpresei ibilbide hori erraztu nahi diegu eta, era berean, hautagaiak enpresek harremanetan jartzea ere errazagoa izatea.

Bestalde, atariak baldintza gisa du erabilera euskarazkoa dela. Lan-eskaintza guztiak euskaraz agertu behar dira eta, kasu batzuetan, euskara baldintza gisa hartuko da prozesu horietan. Beraz, Lansarean bezalako atari baten izena ematen baldin badute, hizkuntzaren aldagaia ere baloratu dutelako izango da.

Egun hauetan mugimendua badago eta hori guretzat oso pozgarria da: pozgarria da, batetik, ikustea lana egon, badagoela, eta bestetik, krisi garaian ere euskaraz egin daitezkeela horrelako iragarkiak.

**Ze motatako enpresak dabilta Lansarean-en alta hartzen?**

Denetarik dago. Normalean, zerbitzu-enpresak dira, eta badaude mankomunitateetako enplegu zerbitzueta eskaintzak. Enpresa industrialen bat ere badago. **Lansarean-ek Enpresarean proiektua osatzen edo indartzen du. Nola?**

Enpresarean-eko adar bat izan daiteke. Ziurtagiriaren bidez dena dago lotuta; horren bidez, harremanetan gaude Euskal Herriko



Rober Gutierrez. | ARTEMAN

enpresa, elkarte eta entitateekin eta, egunerokotasunean, pixkanaka, euskara indartzen laguntzen diegu, ahalik eta epe motzengatik enpresa horiek lana euskaraz egin dezaten. Ibilbide bat proposatzen zaie, eta laguntzea eta ebaluatzea da gure lana.

Hasieran proiektu horrekin aritu ginen lanean, baina ikusi dugu ziurtagiria zuten entitate askok beste era bateko laguntza ere behar zutela. Enpresak hizkuntzak kudeatzea eta bere egunerokotasunean euskara barneratzea erabakitzen duenean, momentu batzuetan arazoak sortzen dira, eta gabezia horri irtenbidea eman nahian sortu genuen Enpresarean proiektua. Mahai gainean jarri nahi genituen euskaraz dauden produktu eta zerbitzu horiek, eta euskaraz lan egiten duten enpresa eta profesionalak erakuslehoan ipini, enpresak euren artean harremanetan jartzeko.

**"Euskaraz lan egiten dutenak erakuslehoan ipini nahi genituen"**

**Enpresarean-en ze balorazio egiten duzu?**

2010ean hasi ginen Enpresarean-ekin urratsak egiten, eta gauza berriak probatzen ari gara. 2010ean jardunaldiak antolatu genituen eta interesa bazegoela ikusi genuen. Interes hori ikusita hasi ginen urrats sendoagoak egiten. 2011n, webgune bat sortzea erabaki genuen, enpresa eta profesional horiek euren artean harremanetan jarri ahal izateko. Badaude sare profesionalak, baina horietan euskara ia-ia ez da ikusten. Enpresarean-ekin, euskaraz lan egin nahi zutenen komunitatea sortu nahi genuen.

Badago atal bat, Komunitatea, eta horren barruan enpresa eta profesional horiek euren artean kontaktuan jartzeko aukera dute. Bateren batek zerbitzu bat behar badu, nahikoa du hor mezua jarri eta automatikoki profesional eta enpresek hori ikusiko dute, eran-

**"Ziurtagiria duten askok bestelako laguntza behar zutela ikusi genuen"**

tzun dezakete... Euren artean elkarlana sustatu nahi dugu; esperientziak, jakintza... partekatu. Momenturen baten, salmentarako gune bat ere izatea nahiko genuke, euren arteko negozio aukerak handitzeko, eta horretan ari gara.

**Komunitate izateaz gain, ekintzak ere antolatu izan ditu Enpresarean-ek: azokak, hitzordu azkarrak...**

Bai. 2011n adostu genuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzaz hitzarmena. Izan ere, 2011n, komunitate birtual hori sortu genuenean, profesional eta enpresa horiek elkar ezagutzeko ekintza fisiko bat ere antolatu nahi genuen. Azoka bat antolatzeke ideiarekin hasi ginen eta, antolatzen ari ginela, Aldundiak gure ekimenaren berri izan eta berak ere horrelako azoka bat antolatzeke asmoa zuela azaldu zigun; orduan, lankidetzaz hitzarmena egin genuen. 2012tik ari gara elkarlanean, eta 2012an

**"Debagoiengan asko inbertitzen da euskara egunero erabil dadin"**

antolatu genuen lehendabiziko azoka, Donostiako Kursoalen, nahiko arrakastatsua.

Emaizta ikusita, Foru Aldundiarekin adostu zen bi urtean behin azoka antolatzea eta, azokarik ez dagoen urteetan, bestelako ekimenak egitea. 2013a azoka urtea ez zenez, enpresen arteko topaketa antolatu zen Arrasaten, eta beste hizkuntzatan antolatzen diren hitzordu azkarren saioak euskaraz egitea izan zen helburua.

**Arrasaten egin izan dituzue ekintzetako batzuk. Sentsibilitate berezia aurkitu duzue Debagoiengan?**

Arrasaten badago Euskal Herriko beste leku batzuetan ez dagoen mugimendua, eta horrek oso eragin ona du. Egoera soziolinguistikoa eta kooperatibagintza kontuan hartuta, inbertsio handiak egiten ari dira euskara eguneroan egon ahal izateko. Horko egoera eta Gasteizena edo Arabako Errioxarena konparatuta, horko oso ona dela ondorioztatzen da. Kontzientzia maila nahiko handia dago eta hori esportatu egin beharko da Euskal Herriko beste eremu batzuetara, horrek emaitza positiboak izango dituelako, eta kooperatiben lidergo gaitasuna beste eremu batzuetara bideratu beharko genuke.



## ZABALIK



ESTEPAN PLAZAOLA  
goiena.net/komunitatea/

## Desobedientzia

Hogeita bost urte igaro dira gure inguruan ezagutu dugun desobedientzia mugimendu arrakastatsuenari ekin zitzaionetik. 1989ko otsailaren 20an Espainiako Estatuan 57 gazte aurkeztu ziren euren lurraldeko gobernu militarretan soldadutzara joateari uko egin ziotela adierazteko. Hura izan zen intsumisioari hasiera eman zion lehen ekintza kolektiboa. Mugimendu hark indar berezia hartu zuen Euskal Herrian. Estatuan 25.000 gazte deklaratu ziren intsumisio; 10.000 euskal herritarrek ziren. Milaka gazte auzipetu zituzten eta hasieran haietako askori kartzela zigorra aplikatu zitzaion. Gerora inhabilitazioa aplikatzen hasi ziren. Baina hala ere, ez zuten lortu elur pilota hura gelditzerik eta pertsonen desobedientziatik erakundeen desobedientziara pasatu zen: 1997an EHUK eta Donostiako Udalak uko egin zioten inhabilitazioak aplikatzeari...

Azkenean, 2001eko urte amaieran kendu zuten derrigorrezko soldadutza eta 2002an 4.000 intsumisori amnistia eman zieten.

Borroka baketsu, koloretsu eta irudimentsu batek ekarri zuen garaipen handia izan zen, baina, seguruena, baita sufrimendu pertsonal asko ekarri zuena ere.

Gaur egun ere desobedientzia hotsak entzuten dira gure inguruan. LOMCE aplikatzeari uko egiteko gida osatu dute Euskal Herriko hainbat hezkuntza eragilek, tartean sindikatu nagusiek. Katalunian, berriz, gurasoen elkarrean federazioak abiatu du antzeko mugimendu bat eta, beste batzuen artean, ikastetxe intsumisioen sarea osatzea proposatzen du.

Soldadutzaren aurkako mugimendua gazte gutxi batzuen ekimenez abiatu zen eta apurka-apurka gizarte eragileen atxikimendua lortzen joan zen. LOMCEren aurkako hau, lehenengo begiratu batean, askoz babes handiagoarekin abiatzen da. Lortuko du, hark bezala, Madrilek sorrarazten duen beldurra eta mehatxua gainditzea eta hura bezain arrakastatsua izatea?

## USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.com

## Ea, ba, lana topatzen duten

Lanbai azoka egin zuten egubakoitzean Arrasaten, eta maki-na bat ikasle izan zen bertan. Inguruan lan bila dabiltzanei entzunda, badakit lantegi batzuetara curriculuma iritsarazteko modu bakarra e-posta bidezkoa dela, eta beste batzuetan ezin zaitezkeela zaindaria egoten den etxetxotik harago joan. Horregatik, eskertzekoa iruditzen zait Lanbai moduko azokak antolatzea, ez delako erraza enpresetako ordezkariari curriculuma eskura eman ahal izatea, eta are gutxiago lan elkarriketa bat lortzea. Inoiz ez da jakiten, gainera: badakit kontratua azkenetan izan eta enpresa baten izenean enplegatzaile moduan joandako bati beste enpresa batean lanpostua eskaini ziotela ere. Ederra sorpresa!

## KALE INKESTA

## Lanera joateko bizikleta erabiltzearen aldekoa zara?



JOAQUIN AREVALILLO  
ARRASATE

"Bai, ondo iruditzen zait. Baina margolaria izanda, nire lanbiderako ez da praktikoa. Hala ere, guztiongatik begiratura ekimen egokia da".



IÑIGO GARITANO  
BERGARA

"Joango nintzateke bizikletan, baina lana eta bizilekua ez ditut herri berean. Onuragarria da; traba bakarra eguraldia izan daiteke".



OIHANA ALDAI  
ARRASATE

"Ondo iruditzen zait bizikletaren erabilera sustatzea, baina bitartekoak egokitu behar dira: bidegorriak eta bizikleta uzteko tokia".



EUGENIO URIBARREN  
ARRASATE

"Joango nintzateke bizikletaz lanera, baldin eta bitarteko egokiak egongo balira. Gaur egun ezinezkoa da, auto gehiegi daude".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Elefantea eta euskara

Mikel Irizar  
blogak.goiena.net/piperrautsa/

Umetan irakurri nuen ipuinak Indian omen du jatorria.

Behin batean baziren sei gizon itsu, eta eskatu zitzaion azaltzeko nolakoa zen elefantea.

Eta batek besarkatu zuen elefantearen hanka eta esan zuen: "Elefantea zutabe bat da".

Beste batek esku biak jarri zituen haren saihetsaldean eta esan zuen: "Elefantea horma bat da".

Hirugarrenak buztanari heldu zion eta ebatsi: "Elefantea suge bat da".

Aurrealdean, laugarrenak tronpari oratuta: "Elefantea adar sendo bat da".

Bere ondoan bosgarrenak hortzaren punta zorrotza ukitu zuen: "Elefantea ezpata bat da".

Eta azkenak belarria haztatuz: "Elefantea haizemaile bat da".

Eta ipuina amaitzen zen: 'Guztiekin zuten egiaren zati bat, batek ere ez egia osoa'.

Jar dezagun orain

elefantearen tokian euskararen egoeraren diagnostia.

Eta atal ezberdinetan, euskaltzaleak.

Eta batek esango du: "Euskarak sedukzioa behar du".

Eta besteak: "Legea aldatu behar da, derrigorra da giltza".

Eta honen laguna harago doa: "Hau botere kontua da, euskarak boterea behar du".

Laugarrenak: "Hiztunaren asertibitateak konponduko ditu euskararen ajeak".

Eta beste batek: "Marketina eta diskurtso egokia falta zaizkio euskarari".

Hurrengoak: "Hiztun komunitatea indartu behar da".

Eta azkenak: "Euskarak behar du amets doitua".

Zati batekin osotasuna esplikatzen nahi dutenen arteko harremana zaila da, noski.

Itsuen arteko gatazkaren gainean bertsio ezberdinak daude, baina euskaltzaleen gatazka sokatiran jokatzen da.

'Hik tira gogor hortikan eta nik tira hemendikan' eta denak ondo tematuta soka ez da mugitu ere egingo, indarrak

elkar neutralizatzen dira eta 'batura zero' emaitzarekin denek uste dute irabazten ari direla.

Eta bitartean elefantearen tamaina eta indarra ez dira ikusi ere egiten.

Eta aski dira lau topiko, esaterako, Bilboko udalean euskararen aldeko itun berri baten egitasmo ederra pikutara bidaltzeko; edo euskararik gabe bizi direnen komunitatea gero eta erosoago sentitzeko, gabezia horren ondorioz ezak zeharo lasaituta.

Gure elefantea puzzle bat da, eta osorik egoteko pieza guztiak behar ditu: sedukzioa, legea, boterea, asertibitatea, marketina, diskurtso egokia, hiztun komunitatea eta amets doitua.

Denak. Eta denak batera, lehentasunen gaineko diskizisiotan sartu gabe.

Eta euskaltzale bakoitza bere atalean arituta ere, atal guztiek osatutako ikuspegia behar dugu.

Ikuspegi saretua, eta gure arteko konfiantza, bestearen aitortza, lankidetzaren kultura...

Labur esanda, denok euskara lehenestea benetan.

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Urbane Madera

Sailatoko arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna

Julen Iriondo

Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

publi@goiena.com

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000

ISSN: 2174-369X

Tirada: 20.100 ale

Difusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala




Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



## ALDAPE

taberna

**ALDAPE Jatetxea**  
Iturriotz kalea 41 Arrasate  
Tel.: 943 79 63 69  
Astelehenetik ostiralera eguneko menuan (bazkaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).  
Astebukaerako menuan (bazkaria edo afaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).

## ALZU

**ALZU, S.L. Ehiza eta arantzazko**  
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati  
Arropetan %10eko beherapena.

## AZPEITXI

JATETXEA

**AZPEITXI Jatetxea\***  
Aranerrika kalea 13, Bergara  
Tel.: 943 76 55 00  
Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.

## Esko Sport

**ESKO SPORT Kirol denda**  
Intxaurtueta 5 | Eskoriatza  
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



**ESTACION SERVICIO ARRASATE**  
Gasolindegia  
San Andres 7 | Arrasate  
% 2ko gasolindegian erregaia erositako.  
% 2ko dendako produktuetan.



**GAES Entzumen zentroa**  
Otalora 18 | Arrasate  
Zurradero 10 | Bergara  
%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



**GAHIR Fisioterapia / Osteopatia**  
Aranburuzabala 6 behea | Eskoriatza  
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.



**GRACIAN Mertzzeria**  
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara  
25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.



**INSTITUTO OPTIKOA**  
Bidekurutzeta 10 | Bergara  
%15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan.



**IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa**  
Burdinate plaza 2 | Bergara  
Lehenengo sesioa, sesio erdi.

## itsaslur

**ITSASLUR Jatetxea**  
Zerkaosteta kalea 3 Arrasate  
Tel.: 943252632  
Txuleta zaharra: %10eko deskontua ekainean eta uztailean



**JAUJA KIROLAK**  
Irizar pasealekua 1 behea, Bergara  
Produktu guztietan %5eko deskontua.

## LONBIDE

OINETAKOAK

**LONBIDE Oinetakoak**  
Bidekurutzeta kalea 5, Bergara  
Produktu guztietan %10eko deskontua.



**MAGDALENA Gasolindegia**  
Santxolopetegi auzoa | Oñati  
% 2ko deskontua gasolindegian erregaia erositako.

## Markiegi

**MARKIEGI JANTZI DENDA**  
Olarate kalea 2 | Arrasate  
Produktu guztietan %10eko deskontua.

## MIREN GARAI

**MIREN GARAI**  
Zarugalde kalea 23, 2 ez. Arrasate  
Tel.: 943 799 690  
Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskue-tako tratamendua doan.



**ML Ile-apaindegia**  
Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea, Arrasate / Tel.: 943 797 965  
"Nanokeratin System" proteina tratamenduan %20ko deskontua.  
Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.

## MULTIÓPTICAS

lehen zerbitzu optikoetan

**MULTIÓPTICAS Optika**  
Juan Carlos Guerra, 1 behea | Arrasate  
Ibargarai, 16 | Bergara  
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan).



**NEBRASKA taberna**  
Zarugalde 35 - Arrasate  
Tel.: 943 79 09 39  
MAHOU garagardo botila, euro bat bazkideentzat  
Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxotxo doan  
Interneteko menuetan %5eko deskontua



**NINIKA Loradenda**  
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara  
%10eko deskontua artikulu guztietan.



**PORTALOI optika**  
Erdiko kalea 10, Arrasate  
%15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).



**ARRIKRUTZ Kobak**  
Araotz Auzoa | Oñati  
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).



**SARA MERENDERUEA Jatetxea**  
Meatzerrika auzoa 19,  
Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate  
Tel.: 943 77 15 86  
Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).  
Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).



**TABERNA-BERRI Jatetxea\***  
Durana kalea 26, Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 20 67  
Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero;  
Astelehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan.  
Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.



**ZABALA Jatetxea\***  
Labegarieta 14, Bergara  
Tel.: 943 76 42 57  
Zabala jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Astelehenetik larunbatera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan.

\* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

### GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

**Goiena papera:** Astelehenetan ere etxean.

**Deskontuak:** Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05  
kluba@goiena.com | goienakluba.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



# HERRIAK



Roberto Altuna, Kepa Elortza eta Koldo Zumalde osoko bilkuren aretoan, liburu bana eskuetan dutela. | KONTZEJUPETIK

## Oñatiko euskaran idazteko eskuliburua

Ostegunean aurkeztu zuten eta hiztegia, esaera zahar eta esapideak eta Oñatiko eran idazteko idaztarau edo argibideak jasotzen ditu

### OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko euskaran ondo idazteko edo berba egiten lagungarria izango den liburua egin dute Roberto Altunak, Kepa Elortzak eta Koldo Zumaldek. "Eskuliburua da, eskuartean kontsultatu eta behar denean erabiltzeko", definitu du Altunak.

Lau ataletan banatuta dago. "Sarreraz gain, baditu gramatikari eskainitako orriak, hiztegia,

esaera zahar eta esapideak eta baita Oñatiko eran idazteko idaztarau edo argibideak ere", dio Roberto Altunak.

### Ezagutu eta egin

Izan ere, Oñatiko euskara ezagutzea eta erabiltzea ditu helburu eskuliburu honek. Horregatik du izen hau: *Oñatiko euskaria. Ezagutu, azartu, egin*. Oñatiko Udalak argitaratu du eta Badihar-

duguko Juan Martin Elexpuru eta Aintzane Agirrebeñaren laguntza izan dute moldaketak egiteko. Azala, berriz, Joxan Iza artistarena da.

Etxekoei, lagunei, herritarrei entzundako makina bat esapide edo hitz solte jasota zituzten egileek euren apunteetan. "Urte askotan batutako material horri forma eman diogu orain. Esaera zahar asko, esaterako, gure aita-

jaun eta amandreei entzundakoak dira. Hala ere, jasotako batzuk baino ez ditugu sartu", argitu du udal euskaltegiko irakasleak. Eskuliburuak 3.000 sarrera ditu eta euskaraz daude denak, Oñatiko euskaran. Bai hitzak edo esaerak, eta baita euren azalpenak ere.

### Harrera ona

Joan den egunean aurkeztu zuten eskuliburua Oñatiko udaletxe osoko bilkuren aretoan eta herritar asko erakarri zituen ekitaldiak. Aretoa bete egin zen eta zutik ere jende asko egon zen.

Egileez gain, Mikel Biain alkatea eta Juan Martin Elexpuru ere izan ziren aurkezpenean. Baita Xabier Ugarte eta Joxe Mari Anduaga musikariak ere. Gitarra eskuetan zutela, kantu orriak banatu eta kantuan jarri zituzten aretoan zeuden lagun guztiak.

DVD bat ere badakar eskuliburuak. Oñatiko Ahotsak proiektuan parte hartu zutene-

### Adibideetako batzuk

**ARABAKO MUTILZAHARRA** Hego haizeari esaten xako Araotzen.

**SORORIK SORO IBILLI** Noraezean ibilli, iparra galduta ibilli.

**AZAAK JO** Ederra egin.

**LELUA(K) HALAKUA(K)** Esandakuari indarra emuteko.

**LEON KASTILLO EGIN** Txanpona gora bota eta erabagi.

**ESKOPETIA BIZKARRIAN ETA PITILIÑA IZTARRIAN** Kazatik ezer harrapo barik etorten ziranian esaten euen.

**AMENTZERAUTA EGON** Itsututa egon.

**BEGIRIK EZ BATU** Bape lorik egin ez.

**PORRU-HAZIXA EGIN** Burubidia atara.

**HAU DOK XAMAO!** Hau dok tipua!

**BARDINBERORA FAN** Uheratu, uhera fan.

tako batzuk ikusi eta entzun ahal dira bertan, Oñatik dituen 16 auzo bakoitzeko bizilagun bat, hain zuzen ere.



Aurkezpenera joandako herritarrak, kantuan. | KONTZEJUPETIK

### FITXA



ESKULIBURUA

### OÑATIKO EUSKERIA

**Generoa:** Eskuliburua.

**Egileak:** Roberto Altuna, Kepa Elortza eta Koldo Zumalde.

**Argitaletxea:** Oñatiko Udala.

**Azala:** Joxan Iza.

**Orrialdeak:** 327.

**Prezioa:** 18 euro.

**Salmenta lekuak:** Herriko liburu dendak (Altuna, Haritza, Hirukar, Ibarrodo), turismo bulegoa eta Arantzazuko denda.



# Asteburuan apur bat eta orain aste osoa aurretik

- ▶ AEDren dragoi Janean 300 lagunetik gora elkartu ziren
- ▶ Gaur eguerdian, txosnetako txupinarekin hasiko dira jaiak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

*Bai baina ez* moduko batekin *erdi-hasi* dira sanjuanak asteburuan. Egutegi ofizialetik kanpo baina egitarauan sartuta, erdian domeka zintzilik, aperitibo lana bete du jai-asteburuak. San Juan jaiak, hasi baina, gaur hasten dira, *ofizialki*, zelanbait.

Festarako grina egon, ordea, egon da eta Seber Altube plazan egindako kantu-afari girotsuan argi geratu zen hori barikuan bertan. Kantu eta bertsoek, goizean hileroko zapatuetan base-ritarren azokako produktuei egin zieten lekua eta alde zahar guztian margolariak ikusi ahal izan ziren han eta hemen pintura lehiaketarako lanean. 28 lan aurkeztu dituzte aurten eta sariduna Imanol Kerexeta azpeitiarra izan zen, nagusietan. Oso bestelako abilezien tokia Musakolako kiroldegiko skate-parkea izan zen, Patxinmatxin skate-jaietan, hain zuzen. Lehiaketa egon zen hemen ere eta saria honetan baita kanpora joan zen; Gasteizera, Ibai Hernandezentzat. Erakus-

taldi gehiago, kasu honetan Arrasate Aikido taldearena, Herriko Plazan, entrenamendu ireki berezi batekin. Bazkari eta afari banarekin konplitu zen nahitaezko oturuntzenekin zapatuan. Hala, Sankt Pauli futbol taldearen zaleen peñak bazkaria egin zuen Kondekuan. Handia, ostera, AEDk antolatutakoa izan zen: Dragoi jana. 300 bat afaltiar, ehun txuleta kilotik gora eta giro ona egon zen, eguraldiaren beldurrez, aurtien Uarkapen egin den afarian.

## Bertsoak domekan

Hasiera on hori eta gero domekakoa apalagoa izan zen. Arrasateko artisau elkarteak azoka egin zuen atzo Seber Altuben eta arratsaldean txosnetan Euskaraz Blai jolas-ekitaldia egin zuten. Iluntzean berriz bertsolariena izan zen protagonismoa AEDk antolatutako bertso jaialdian. Bertsolari gazteena izan da aurtengo jaialdia eta Miren Amuritza, Iker Zubeldia, Aitzol Barandiaran eta Jone Uriak jarri zieten bertsoa Asier Ibarbarriagaren gaiei.

## Txupina eguerdian eta guztia prest Errementari Dantzarako danborradarako

Eguerdiko txupinarekin, gaur hasiko dira jaiak dagokien protokolo guztiarekin. Herri bazkariaren eguna izango da gaur (14:30, Uarkape) eta jaietako ikurra, makala, 18:45ean altxatuko dute gazteek plazan. *Txopopoteoa* 17:30ean hasiko da Incansables txarangarekin. Ekitaldi nagusiak, beti bezala, bi eta Herriko Plazan izango dira. Errementari dantza 21:00etan eta ostean Muruko dragoiak sua iziotuko du 22:30ean. Danborrada, ostean, 23:00etan abiatuko da Nafarroa etorbideetik. Gaubela taldearen musikarekin amaituko dira gaurkoak, plazan. Gaurtik barikura bitartean izango dira San Juanak eta gaurkoak eta goiztiarrak batzen dituen entzierroa egunero egongo da, 09:00etan. Gainerakoan, nabarmenen artean Konpartsak eta Musika Bandak kalejira egingo dute eta azken horiek Monterronen urteko kontzertu handia egingo dute, 13:00etan. Eguaztenean, besteak beste, Zea Mays eta Gatibu taldeek joko dute txosnetan (22:30).

Jarraipen berezia: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Dragoi jana Uarkapen. | IMANOL SORIANO



Patxinmatxin jaiak. | I.S.



Bertso jaialdia Seber Altube plazan. | JOSETXO ARANTZABAL



Beste bat! peñakoak, txosnetan bazkaltzen. | JON BEREZIBAR



SeberAltube plazan barikuan kantu afaria egin zuten. | IMANOL SORIANO





Prozesioa, Aita Madina kalean. | JOSETXO ARANTZABAL

OÑATI

# Fernando Diazek azken aldiz jantzi ditu San Migelen jantziak

- Bi gazte hasita daude ikasten, erreleboa hartzeko
- Corpuseko prozesioak indar handia du oraindik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Corpus eguneko prozesioak herriar asko erakartzen dituela oraindik argi gelditu da aurten ere. 10:00etan hasi ziren urtean zehar herriko ermita edo auzoetan egon ohi diren santuak San Migel parrokiara ekartzen, Oñatzeko dantzariak eta herriko txistulari bandak lagunduta. Ordurako herriar asko zeuden parrokia atzean, zain. San Migel eta apostoluak jantzen, berriz, 10:45ean hasi ziren Santa Anan. Paulina

Kernstock-ek 46 urtez egin du lan hori. Domekan ere hantxe zegoen. Eta antzokiko beheko zatia bete egin zen ikuslez. Baita goiko ilara batzuk ere. Ikusleen artean, gainera, baziren Tolosako, Portugaleteko eta Katalunia-koak ere.

Haiek jantzen zituzten bitartean, meza nagusian zeuden beste lagun asko. Oñatzeko dantzariak aldare aurrean egin zuten dantza, ohiturari jarraituz. 12:00ak pasatxo hasi zen prozesioa Santa

Ana paretik, aurrean dantzariak eta San Migel eta apostoluak atzean zihozazela. Momentu horretan ere jende asko zegoen bidearen alde bietara, ibilbide guztian bezala. Tartean, Ruper Ordorika eta Toti Martinez de Lezea.

## Bi gazte

Fernando Diazek azken urtea egin du San Migel jantzita: "Bi gazte dantzari eta kirolari ari dira ikasten. Etorkizuna ziurtuta du goiainguruak".



San Migel jantzen, Santa Anan. | JA



Musika bandaren kontzertua. | JA



BERGARA

JON BEREZIBAR

## Egingo dira truke azoka gehiago

Dozena bat postu egon ziren edozer saldu edo trukatzeko domeka goizean Bergaran egin zuten azoka txikian. Herriar asko erakarri zituen eta hurrengoetan parte hartzeko interesa ere erakutsi zuten zenbaitzuk. Uda ostean, maiztasun jakin batekin bueltatuko da.



OÑATI

IMANOL SORIANO

## Elkar Hezikoak ere, oporretan

Euriak harrapatu arren, aurrera egin zuten ikasturte bukaerako festarekin Elkar Heziko ikasle, guraso eta irakasleek. Iturri gorri egon ziren horietako batzuk goizean, eta iluntzean, elkarrekin afaldu zuten Santa Marina plazan, musika lagun zutela.

### TARIFA FINKOAK INFORMATIKAN

- Word.
- Mekanografia.
- Access.
- Sistema Eragileak.
- Power point.
- Excel.
- Internet.

### IRAKASLEEN FORMAZIOA

- Irakasleen formatzailea. (Lanbide prestakuntzara edo etengabeko prestakuntzara zuzendu nahi duten profesionalentzako ikastaroa.)

### INGELESA

- Azterketetara prestatzeko ikastaro trinkoak.
  - Pet
  - First
  - Advanced
- Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten Irakasleentzako Didaktika eta Metodologia.



### ESKOLA PARTIKULARRAK

- LMH / DBH
- Batzilergoa
- Enpresa ikasketak
- Ingeniaritza

Infomazio gehiago: 943793533  
bastida@bastida.es  
www.bastida.es





## BERGARA

## Bazkaria, panel berria eta nesken harri-probak Elosuko Otaba jaietan

Oiartzun inguruko Emarri harri-proba taldeak erakustaldia egin zuen

JON BEREZIBAR | BERGARA

Otaba jaiak ospatu dituzte Elosun eta atzokoa izan zen egun handia. Ekitaldi berezien artean Nafar Erresumako gotorleku zen Iriaun gazteluaren aztarnen lekuko bezala, panel informatiboa inauguratu zuten, Elosuko plazan. Erretiratuek bazkaria egin zuten; 50etik gora lagun.

### Harri-probak

Berezietan bereziarena, ostera, Emarri harri-proba taldeak eginitako erakustaldia izan zen. Probalekuan 20 minutuan 49 plaza egitea lortu zuen taldeak.



Erretiratuak, bazkarian topa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



Emarriko probalariak, jardunean. | J.A.



Panel berria. | J.A.

## BERGARA

## Bidegorriaren beharra erakusteko ibilaldia, Uberara

J.B. | BERGARA

Oinez zein bizikletaz eta jai giroan baina aldarrikapen batekin, ibilaldia egin zuten atzo San Juango eta Uberako auzotarrek. Auzobide plataformak deituta herria eta auzo-inguru horiek lotu eta segurtasunez ibiltzeko bidegorria eskatzen diote Udalari. Uberatik Bergara doan bideak oinezkoak segurtasunez igarotzeko moduko lekurik ez du eta auzotarrek

beharra ikusten dute bai aisialdirako gune bezala eta baita auzotar zein herritarrek auzo horietan dauden lantokietara joan ahal izateko ere.

### Jai eta protesta


Jai giroko protesta izan zen eta ibilaldiak egin zituzten hala menditik nola errepidetik. Talde argazkia atera eta eguerdi partean salda eta txorizoa banatu zizkieten San Juanen.



Talde argazkia, Uberan. | J.B.

## Hagin berriztapen zehatz-zehatzak

**CEREC TEKNOLOGIA** : odontologia digitala  
Egun bakar batean, beharrezko pieza diseinatu, fabrikatu eta ipini



**Eskaneatu + Diseinatu + Fabrikatu + Ipini**

### Zeramikazko hortz-koroak Inkrustazioak Zubiak Karillak

- Molderik ez du behar.
- Behin-behineko konponketarik ez du behar.
- Denbora aurreztuko duzu.
- Behin etorri beharko duzu kontsultara.
- Egun berean hortza eskaneatu eta egun berean jartzen da.
- Iraupen luzeko enpasteak dira.

**Bisita bakarrean,  
neurri-neurrira egindako pieza  
eta estetika paregabekoa.**



HARRI ZURI

HORTZ KLINIKA

RPS: 40/14

Ibargarai 21, beheka - BERGARA  
Tel.: 943 25 34 34 - 664 47 05 72

Astelehenetik ostiralera:  
09:00 - 13:00 / 14:00 - 20:00

Zapatuetan:  
Aurrez deituta.



**Astebukaeran urgentziaren bat  
baduzu, deitu lasai mugikorrera!**

Punta-puntako teknologia erabiltzen dugu

Medizina erregeneratzailea lantzen dugu  
(PRGF plasma), zikatrizazio hobea lortzeko  
eta hobeto osatzeko

Kromoterapia eta Shiatsu erlaxatze teknikak  
erabiltzen ditugu, lasai senti zaitezten



Iker Zabalo | Makala gainera erori zitzaion arrasatearra

# "Labaindu eta bete-betean harrapatu ninduen; min handia gogoratzen dut"

1996ko jaiak eskaiolarekin igaro zituen egun Txilen bizi den Iker Zabalo: "Gora sanjuanak!", dio handik

J.B. | ARRASATE

San Juan bezpera da gaur, arrasatear gehienendako kutunena den jaietako eguna. Egitarauko ekintza klasikoek gaur egingo dira, horien artean dago makalaren igoera. Gazte kuadrillak lehen jasoaldian saiatuko dira altxatzen (18:45, Herriko Plaza). Gutxitan, baina istripuak izan dira makalaren igoeran; larriena, seguruenik, 1996koa izan zen, Iker Zabalo arrasatearrari gainera erori zitzaionekoa. Txilen bizi da egun eta herriminarekin gogoratu ditu herriko festak.



Iker Zabalo; egun Txilen bizi da. | IZ.

**Nola gogoratzen duzu une hura?** Akordatzeko naiz euria egin zuela eta lainotuta zegoela. Putzuak zeuden. Kuadrillakoak ari ziren makala igotzen eta ni ikusle moduan hurbildu nintzen, euren ondoan nengoen. Bat-batean makala beheara zetorrela entzun eta korrika egin nuen, baina putzu baten labaindu eta erori egin nintzen. Makalak bete-betean harrapatu ninduen. Berehala jende asko hurbildu zitzaidan eta gurasoak oso larrituta ikusi nituen. Min handia nuela gogoratzen dut; anbulantzia etorri eta ospitalera eramanez ninduten. Gerora kontatu zidatenez, amandrea makala gainean erori zitzaidala enteratu zenean anbulantziaren atzetik hasi zen korrika. Hori da hori sasoi amandrearena! Kar-kar.

## "Kalte-ordainekin arazoak egon ziren, hasierakoa baino gutxiago jaso nuen"

**Zer hautsi zenuen? Denbora luzea behar izan zenuen osatzeko?** Makala saihesten eta gerriaren artean erori zitzaidan; hor ubeldura handi bat izan nuen bi edo hiru hilabetez. Errebotez hankan ere kolpea eman eta peronea apurtu zidan. Eskaiolarekin hiru edo lau hilabete egon nintzen, baina eskaiola kentzerakoan, medikuak konturatu ziren ez nuela ondo

zapaltzen eta belauneko lotailuak ere ukituta nituela. Hala, Biarritzer bidali ninduten plantilla ortopedikoak egiteko. Urtebete behar izan nuen ondo ibiltzeko, plantillei eta errehabilitazioari esker. Larrialdietako medikua nahastu egin zela uste dut; hasieratik operatuta lehenago erreku-peratuko nintzen...

**Udalak nola erantzun zuen?** Zaldibarko pilotalekuan egin zen herri bazkarira gonbidatu ninduten, eta han, nire sorpresarako, orduko alkate Xabier Zubizarretak lore sorta bat oparitu zidan. Asko poztu ninduen. Hala ere, kalte-ordainekin arazoak izan ziren. Hasieran eman behar zidaten diru kopurua baino gutxiago jaso nuen; aita asko haserretu zela gogoratzen dut.

**Nolako sanjuanak izan ziren 1996koak? Gozatu zenuen jaietz?**

Ba, egia esan, ez. Ez ziren ohiko sanjuanak izan. Hanka eskaiolatu nuen arren, kalera irten nintzen, baina berehala nekatu eta goiz joaten nintzen etxera.

**Oraindik ere gertukoak gogoratzen dizute gertatutakoa?**

Kuadrillakoek eta lagunek sanjuanak eta makalaren igoeraren eguna gerturatzen zirenean brometan esaten zidaten: "Zabalo, kontuz txoporekin!", eta halakoak. Familiakoek, alderantziz, ez didate ezer esan izan. Seguruenik, egun hartan horren gaizki pasa zuten, nahiago izan dute ahaztu.

**Ezer gaineratu gura duzu?** Besarkada bat guztiei, aupa Arrasate eta gora sanjuanak!

## Segurtasunerako hesiak ari dira jartzen Bizkaia etorbidearen gaineko zubian

J.B. | ARRASATE

Udalak Tokiko Gobernu batzarraren onartu ostean, Bizkaia etorbidearen gaineko zubian segurtasun hesiak jartzeko lanak ekainaren 17an hasi ziren. Dena ondo badoa, ekainaren 29ra arte iraungo dute. Caldereria Markulete enpresa ari da lanean,

eta, bertako langile baten arabera, etzi, hilak 25, errepidea moztuko dute "segurtasunagatik". Azken egunotan segurtasun hesiak izango diren oinarriak ipintzen aritu dira, eta gero, hagaxka -barilla- sareekin betetzen dutenean, 2,25 metroko altuera izango dute.



Caldereria Markulete enpresako langile bat neurketak egiten. | JOKIN BEREZIARTUA

## Olandixoko tunela itxita egongo da gaur 08:00etatik 17:00etara, mantentze-lanak direla-eta

Gipuzkoako Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegiturak Sailak jakinarazi duenez, GI-2620 errepideko Olandixoko tunela itxita egongo da gaur, astelehena, 08:00etatik 17:00etara bitartean. Tunela ixtearen arrazoia da mantentze-lanak egin behar dituztela; tunelaren hastialak garbitu eta errepide ertzetako sastrakak kendu eta garbitu behar dituzte, besteak beste. 19,500 eta 21,415 kilometro puntuen artean egingo dira lanak, eta bitartean zirkulazioa Arrasaten barrena bideratuko da.

## NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | [blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/](http://blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/) | [twitter.com/arrasatepress](https://twitter.com/arrasatepress)



## 'Hauts gaua': 300 litro kalimotxo, 1.000 jai-zapi, 500 kilo urun

1989ko sanjuanetako programie egiteko talde eta elkarte batzuk batu ziren: Udala, SUDC, Aukea, Lore Gazteak, Gaiteroak eta Kuadrillen komisiñue. Ba, orduko jaiek prepartakoa, 28 kuadrillatara jentia batu zan: "Sei edo zazpi bilera egin ditugu. Batzuetan hirurogeiren bat lagun bildu izan gara". Ekitaldi asko egon ziren: txopuen igoerie, kuadrillen arteko ziklismo karrerie, zezen jaialdixe, *Toronto eta bere epotxak*, rock jaialdi bi, *Hauts gaua*, poteue gona eta patiñekin, herri bazkarixe...

Orduen, *Tronpalari* elefantie ibiltzen zan kalien; jaiaren sinbolue zan. *Hauts gaua*-i dagokionez, 300 litro kalimotxo, 1.000 jai-zapi eta 500 kilo urun ibiltzen zittuen: "*Hauts gaua*-ri buruz esan gura dugu ez dadila inor haserretu. Joan den urtean udaletxean bi denuntzia jaso ziren, eta argi utzi nahi dugu ez dugula egiten asmo txarrekin. Baina, badaezpada, jendea ez dadila etorri domekako erropaz jantzita".

Jaixetako pegatiñetan, barriz, dragoie agerketan zan, astue erreten. Kuadrillen komisiñuen ustez, oso pasibuek ziren herritarrak: "Ematen du jendea oso lotsatia dela. Jendearen parte-hartzea Maritxu Kajoirekin eta Aratustekin lotzen da. Jendeak beste herri batzuetara joan behar izaten du desmadratzera". Komisiñue inddertu gure euen gauza gehixeu organizetako: "Zaldibarko txapelketa berreskuratu nahi dugu, eta horretan dihardugu".

**Kaxarranka dantza... Herriko Plazan!** Epelderren argazkixen, Kaxarranka izeneko dantza egiten dabitz Herriko Plazan, sanjuanetan. Bertan agerketan dienak sasoi beteko arrantzale lekeittarrak die. Dantza hori San Pedro egunien egiten da, Lekeitixon, bestiek beste.

28. zenbakia 1989-06-23



ARRASATEKO GURE ESKU DAGO

## Beñat Barberena, saskiaren jabe

Arrasateko Gure Esku Dago taldeak zozketatutako otzararen zenbaki saritua izan da 1.410, eta zenbakiaren jabea Beñat Barberena arrasatearra izan da. Arrasateko lantaldeak ekainaren 8ko giza katea berotzeko egin diren ekintzak antolatuz atera zituen txartelak, eta herritarren lanekin osatutako bi saski jaso ditu irabazleak. Idazle eta musika taldeen liburu eta diskoei esker osatu dira bi otarreok. Zorionak!



# Jendetza batu zen eguenean LOMCEren aurkako agerraldian

- ▶ Herriko ikastetxeek modu bateratuan eman zioten ezezkoa hezkuntza lege berriari
- ▶ LOMCEren aplikazioa ekiditeko, hezkuntza eredu propioa sortu nahi dute Hezkuntza Mahaioek

MAIALEN TORRES | BERGARA

Eguenean agerraldi jendetsua izan zen Bergarako plazan. Herriko hezkuntza komunitateak indarrak batu zituen LOMCEri ezetz esateko eta hezkuntza eredu propioa sortzeko beharra azpimarratzeko. Bergarako Hezkuntza Mahaia sortu dute elkarlanerako, eta, horren bidez, legearen aplikazioa geratzeko estrategia bateratuak sortzeko asmoa dute. Izan ere, hezkuntza lege berria basatia eta onartezina dela uste dute. Argi adierazi zuten "zentralizazioa, adoktrinazioa, uniformizazioa, atzerakoa, segregazioa eta elitista" iruditzen zaiela eta ez dutela inolaz ere lege berria onartuko.

Hori dela eta, Euskal Herriko alderdi politikoei eta Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako gobernuei eskatu zieten LOMCE ez aplikatzeko. Gainera, oso argi dute eskatzen duten hezkuntza eredu berriak nolakoak izan behar duen.

Hasteko, ikasleen garapen beharrak eta eskubideak bermatzea ezinbestekotzat jotzen dute Bergarako Hezkuntza Mahaiko kideek. Gainera, hezkuntza sistemak ikasle euskaldun eleanitzak sortzea da asmoa. Heziketak "integrala, pertsonalizatua, inklusiboa, hezkidetzan



Eguenean egindako agerraldia. | MAIALEN TORRES

oinarritutakoa eta kritikoa" izan behar duela uste dute, eta, ezinbestean, hori hala izan dadin baliabideak eskaini behar ko liratekeela.

Horrez gain, ikastetxeetan parte-hartzea eta funtzionamendu demokratikoa bermatu behar ko lituzke eraikiko den hezkuntza sistema berriak. Beste ardatzetako bat eredu berriak curriculum propioa izatea da,

eta, era berean, ikastetxeei autonomia eskaintzea.

Agerraldian adierazi dutenez, ordea, proposatzen duten hezkuntza berritzailea martxan jartzeko hezkuntza komunitate osoa inplikatu behar ko da.

## Parte-hartzea

San Martin ikastetxea, Migel Altuna, Aranzadi Ikastola, Ipintza Institutua eta Helduen Esko-

laren babesarekin sortu da Bergarako Hezkuntza Mahaia. Hezkuntza komunitate osoa biltzea du helburu, eta, datorren ikasturtean ere lanean jarraitzeko asmoz, parte hartzeko deia egin zieten herritarrei.

Babes zabala jaso zuen ekimenak, hezkuntza komunitateaz gain, Udaleko, sindikatueta eta beste hainbat eragiletako kideak izan baitziren bertan.

## OHARRAK

### DEBA IBAIRA EGITEN DIREN ISURKETEI BURUZKO HITZALDIA

Ekainak 26, eguenean arratsaldeko 19:30ean Kultura etxean hitzaldia egingo dute Bertan,

Deba ibaira egiten diren isurketak eta oparitu zehaztuz bat bezalako egitasmoak azaltzeaz gain, Fiare bezalako banku etiko eta kooperatiba energetikoei buruz ere hitz egingo da.

## Eguaztenean banatuko dituzte aurtengo Pilota eskolako zozketako sariak

I.G. | BERGARA

Urtero moduan, ikasturtea amaitzean dagoen hile honetan, herriko pilota eskolak egin du bere zozketa. "Pilotariak ez dute dirurik jasotzen baina urteko kuota ordaindu beharra dute, horregatik sortu genuen zozketa hau", azaldu du Reyes Azkoitia entrenatzaileak.

Sistema honi esker, 100 txartel saltzen dituzten gaztetxoek ez dute kuota ordaindu beharrik izaten, "gazteek gustura egiten duten lan hau, eta eskolak aurrera egiteko beharrezkoa duen babes ekonomikoa lortzeko modu

ona dela uste dut", dio Azkoitiak. Dirua lortzeko aukera ez ezik, pilota eskolaren jarduna eza-gunagoa egiteko ere balio du.

### Sariak eguaztenean

19:00etan banatuko dituzte sariak. Ramon Madinabeitiak buruz buruko finalerako bi sarrera eta 500 euro jasoko ditu. Javier Zabalarri aldiz, Palacio De Guevara hotelean bi pertsonentzako egonaldia eta 250 euro egokitu zaizkio eta Amaia Gorosabelek Tartufon lau pertsonentzako afaria eta 100 euro jasoko ditu.

## Hasi dira Oxirondo azokako goiko solairuan egongo den aisialdi guneko obrak

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Oxirondo azokak bere baitan hartuko duen aisialdi gune berriaren obrak martxan daude. Hile hasieran ekin zioten azokako goiko solairuko hormak botatzeari, eta udaletik espero dute, obra zibila azarorako bukatua izatea. Lanen adjudikazioa 289.044,80 eurotan egin da.

### Bi gune ezberdin

Goiko solairuak adin tartearan arabera banatua egongo diren bi espazio izango ditu. Ezkerreko aldea haurtxoteka izango da, eta

eskumakoa aldiz ludoteka. Bi guneen artean dagoen patioaren argitasunari probetxua ateratzeko, bi guneek azokako patioa emango duten kristalezko horma bana izango dute.

Erabiltzaile eta familiakoen erosotasunerako bi guneek zoruazpiko berokuntza izango dute, eta hartxoteak umeen karroa lagatzeko gunea izango duen moduan, ludoteak sukalde bat izango du.

Azarotik aurrera gunea martxan jartzeko, altzariz jantzi behar ko dituzte gazteei zuzendutako aisialdi gune berri hau.



Hasi dira goiko solairuko paretak botatzen. | BERGARAKO UDALA

## NIRE USTEZ

KARLOS ETXANIZ



Musika, a ze gozamina!

Musika, arte guztiak bezala, produktu kulturala da. Helbururik garrantzitsuena da entzulearen plazera edo esperientzia positiboa lortzea. Antzina, musika, gehienetan, poesiarekin eta dantzarekin lotuta zihuan. Baina, pixkanaka, berezko izaera hartu du.

Musikaren definizioa honako hau da: soinuaren eta isilunaren konbinazio edo antolaketa logikaren artea. Erraza, ezta? Bada, hasi soinuak eta isiluneak konbinatzen ikusteko zer ateratzen den.

Gaur, musika hainbat helburutarako erabiltzen da, alegia, entretenitzeko, zenbait tokitako isiltasuna apurtzeko, hezkuntza berezitarako eta baita gaixotasunak sendatzeko ere. Azken erabilera horrek musikoterapia du izena, eta gero eta erabiliagoa da.

Musikaz gozatzeko modu asko dago, eta hainbat ikuspuntutatik sentitu dezakegu: musika-egile, entzule, interpretatzaile... Are gehiago, abesti bera ere bakoitzak modu diferentean sentitzen du.

Nik musika-egileek zer sentitzen duten ez dakit, entzule gisa gozamen handia da, baina, batez ere, kantari aritzen naizenean, Bergarako Orfeoian abesten dudanean, oso zaila egiten zait azaltzea zer sentitzen dudanean, zer sentitzen dudanean talde barruan, zer musikaren parte naizen... Hori bai gozamina! Azaltzen ez naiz hasiko, baina gomendatu, gomendatu egingo dizuet. Proba ezazu, ateak zabalik dituzue eta.

## "Proba ezazu Bergarako Orfeoian, ateak zabalik dituzue"

## Asteburua eta gero, gaur amaituko dira Elosuko Otaba jaiak

Eguardian auzoko hildakoen aldeko meza egongo da. 15:00etan auzotarrek bazkaria izango dute Elurmendi Elkartearen. Tripa bete eta gero, 17:30etan, gaztetxoentzat jolasak egongo dira, eta 21:00etan auzo afaria. Eguna borobiltzerko, auzotarrek erromeria izango dute Laja eta Lutxorekin.



# Gazteei zerbitzu hobeago bat emateko, eskola kirola ekimena berritu dute

Aurten lehiakortasun gabeko kirolak eta aisialdiari begira dauden ekintza eta jolasak landuko dituzte

MAIDER ARREGI | BERGARA

2014-2015 ikasturterako Bergara-ko eskola kirola programan izango diren berritasunak aurkeztu zituzten egunean Zabalotegi aretoan; besteak beste, aurrerantzean, motrizitatea eta banakako kirolak landuko dituztela azaldu zuten antolatzaileek.

Aurten egindako bileren ondorioz, bergara kirol elkarteak eta ikastetxeekin egindako elkarlanean oinarrituta berritasunak dituen programa aurkeztu zuten. Hala eskola kirolak eta kirol eskolak, biek bat egingo dute datorren ikasturtean. "helburua, bi erakundeen arteko koordina-



Herriko kirol taldeetako kideak. | MAIALEN TORRES

zio bateratua izatea da", azaldu zuen Jose Manuel Zulueta, futbol taldeko ordezkaririk.

Programa berri honetan, eskola kirolaren edukien etengabeko errebisioa egingo zaiola azaldu du Jose Manuel Zulueta koordinatzaileak. Gainera, asmoa dute, ikastetxeko zuzendaritzarekin

hiru hilean behin elkartzea etorri daitezkeen arazoei aurre egin ahal izateko. Ikasleen orientazio zerbitzu pertsonala ere eskainiko zaiela azaldu zuen Zulueta, "ikasleei jarraipen zehatza egingo diegunez, nahi duten gurasoek euren seme alaben jarraipena jakin ahalko dute".

## Gaztetxoei egokituta

Haur bakoitzaren beharrei erantzuteko motrizitatea eta banakako kirolak landuko dituztela aste barruan kontatu du Edu Orgazek proiektuaren koordinatzaile pedagogikoak. Gazteen asteburutako kirol ohiturak berreskuratzeko ahalegin berezia egin dutela azpimarratu du Orgazek. Hala, lehiakortasun gabeko kirolak eta aisialdiari begira daudenak landuko dituzte: patinajea, pilota, piraguak edota kaiak, besteak beste.

Izena emateko epea zabalik dago. Kuotek bost euroko igoera izango dute, eta diru hori begiraleen formazioari bideratuko da. Gauzak honela, bi eguneko multikiroletako urteko kuota 95 eurokoa izango da, hiru egunetako aukera nahi dutenek 170 euro ordaindu beharko dituzte. Horrela eskatzen duten gurasoek zerbitzuaren kuotak zatituta ordaintzeko aukera ere izango dute.

Miren Errasti | Gaztelekuko koordinatzaile eta hezitzailea

## "Gazteek euren izaera garatzeko toki bat da Xabalote gaztelekua"

I.G. | BERGARA

Zapatuan bete zituen Xabalote gaztelekua hiru urte, eta festa handi batekin ospatu zuten. Bertara joan ohi diren gazteekin batera gaztelekuko langileek ere ospatu zuten eguna. Gaztelekua baina festa egiteko toki bat baino, gazteak elkar ezagutzeko toki bat

dela dio bertako koordinatzaile den Miren Errastik.

**Hiru urte eta gero Xabalote gaztelekua egonkortua dagoen proiektu bat dela uste duzu?**

Ekimen ezagun bat den arren, gurera lehen aldiz gerturatzen diren 12 urtekoek zabalokundea ikastetxean egiten diegu.

**Urte tarte txikia izan arren, 12 eta 15 urte artekoen artean ezberdintasun handiak daude?**

Zeharo ezberdinak dira. 12 urteko gazteak lotsatiagoak izaten dira, baina apurka-apurka gaztelekutik proposatzen dizkiogun ekintzetan parte hartzen hasten dira. Nagusiek aldiz euren espazioa eskatzen dute.

**Nork proposatzen ditu gaztelekuko ekintzak?**

Bien artean proposatzen saiatzen gara, baina programazio kontuengatik askotan guk sortzen ditugu. Hala ere, aukera izaten

dugun guztietan, gazteekin batera egiten dugu programazioa.

**Zaila da gazteei euskarazko aisialdi bat eskaintzea?**

Ez da zaila, baina gazteek gaztelara jotzeko ohitura handia dute. Gurekin euskaraz mintzatu arren, askotan euren artean gaztelera erabiltzen dute.

**Gaztelekua ezagutzen ez duen bati nola azalduko zenioke zer den?**

Gazteei zuzendutako espazio aske bat da. Bertan, aisialdi zuzenduta dagoen arlo bat izan arren, gazteek euren izaera garatzeko toki bat aurkitzen dute.



Miren Errasti. | M.E.

## Azaro erdialderako prest Mekolalde zubiaren lotunea

I.G. | BERGARA

Urtetan gelditu egon eta gero, maiatzaren 16an ekin zioten Mekolaldeko zubia eta GI-627 errepidea lotuko dituen bidegurutzea egiteko lanei. Adjudikazioa 402.597,36 eurotan egin da, eta lanok bertako industrialguneko enpresek ordainduko dituzte.

Udaletik azaldu moduan, lanen ardura duen UTE Mekolalde enpresak 180 egun natural, sei hilabete, izango ditu bidegurutze berria bukatzeko.

**Bidegurutze ezaguna**

Zubia eta errepidea lotuko dituen bidegurutzea ezaguna izango da, GI-627 eta herriko erdigunea lotzen dituen zubiaren antzekoa izango da-eta. Baina Mekolaldekoak, ez du semafororik izango.

Toki batzuetan bidegurutzeak beharko dituen lau bideak sartzeko, zubiaren parean dagoen mendiari zati bat kendu beharko diote. Zubiaren sarrera nahiz irteera bideak aldiz, Deba ibaiaren hertz gainean egingo dira.

## Soraluzen eta herrian geratu dira sari nagusiak

I.G. | BERGARA

Bergara Hiria argazki lehiaketa egin dute, eta zuri beltz mailako lehen saria Carlos de Cos Azconak lortu du **jaiak** izeneko argazki bati esker. Koloretako argazki onena aldiz, Benito Cantero bergararraren **La Peña urtegia** izan da. Herriko saria Jorge Murgiondo eskuratu du **Labar urdinak** argazkiarengatik.

Guztira 158 argazki aurkeztu dira, 73 zuri beltzean eta 85

koloretan. Epaimahaiak lan guztiak ikusi eta gero, zortzi sariitu ditu; lau kategoria bakoitzeko. Aurkeztutako lanak Aroztegi aretoan egongo dira ikusgai ekainaren 29ra arte.

**Erakusketaren ordutegia**

Erakusketa zabalik dago astelehenerdik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeka eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00era.



Bergarako Benito Cantero argazkilaria **La Peña urtegia**. | BENITO CANTERO

## Urteko egunik motzena ospatzeko jaia

I.G. | BERGARA

Aste buruan zehar ederto pasa eta gero, San Juan auzoko baserri ezberdinetan San Juan suak piztuko dira, bertan urteko pasarte txarrak erre eta onei tokia lagatzeko.

Bihar, San Juan eguna denez, jaien azken eguna izango da. Eguerdian meza izango dute eta bertan San Joxepe elkarteak koruak abestuko du, horren ostean, herriko trikitilariak alaituta luntxa egongo da. 13:00etan III. lora sorta lehiaketaren txanda izango da.

Ordu laurden beranduago 80 urte gorakoei omenaldia egingo diote eta 14:00ean erretiratuek bazkaria izango dute Tartufo jatetxean.

**Ortu lehiaketa**

Bihar, goiz guztian zehar, egubakoitzean amaitu zen auzotarren arteko ortu lehiaketako parte hartzaileen ortuen argazki erakusketa egongo da.



Bidegurutzea egingo den tokia. | IMANOL GALLEGU





Joan den urteko San Juan sua. | TXOMIN MADINA

## Alde batera utzi gura diren trasteak sutara! San Juan sua da!

22:30ean piztuko dute, plazan, herriko ikasleen eta Oñatzeko kideen aurrean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Ekainaren 23a da gaur, San Juan bezpera, eta, aspaldiko ohiturari jarraituz, alde batera utzi gura diren traste eta gurari guztiak erreko dituzte herriko plazan. San Juan suaren edo udari ongie-

torria emateko festan, norberaren aukeran hori.

Kontuak kontu, udako solstizioaren jaia edo San Juan sua egingo da gaur gauean Oñatin ere, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala.

Aurtengo ekitaldia, baina, herriko ikastetxeek, elkarteek eta Udalak elkarlanean antolatu dute, lehenengo aldiz. "Hezkuntza Mahaia osatzen dugunon artean antolatu dugu. Hiru talde ditugu mahai honetan: gurasoen-

dako hitzaldi eta ikastaroak antolatzen dituen, Eskolabus proiektua lantzen ari dena eta euskara eta euskal kultura sustatzeko osatuta dagoena. Azken talde hori izan da, hain zuzen ere, San Juan sua antolatzeaz arduratu dena", azaldu du Hezkuntza eta Euskara teknikari Iñaki Akizuk.

### Kantuak eta dantzak

Egitarauari dagokionez, berriz, ez dago aldaketa handirik. 19:00etan txorimalo eta buruhandiak ibiliko dira herriko kaleetan barrena, Jose de Azpiazu musika eskolako trikitilariekin batera. Kalejira ere egingo dute musikari horiek.

Sua bera 22:30ean piztuko dute, Foruen plazan. "Herriarrek aukera izango dute traste zaharrak sutara botatzeko. 22:00etatik 22:30ak arte izango da hori", argitu du Akizuk. Sua piztu ondoren, kantu herrikoiak abestuko dituzte. Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailetako ikasleek emango diete hasiera, kioskora igota. Oñatz dantza taldeko kideek ere emanaldi berezia egingo dute; aurtun, gainera, aldaketak egin dituzte gaurko egunez egin izan dituzten dantzetan.

## Erretiratuen bazkarirako txartelak salgai daude

O.E. | OÑATI

Erretiratuen bazkaria egingo dute domekan Zubikoa kiroldegian. Herriko bi nagusiri, gainera, omenaldia ere egingo diete, aurreko urteetan egin ohi duten moduan. Bazkari horretara joateko, baina, txartelak erosi behar dira aurretik Pake Lekun. Aste honetan egongo dira salgai egun eta ordu hauetan: martitzena, eguaztena eta eguena, 18:30etik 20:00etara. Txartel bakoitzaren prezioa 10 euro da.

Ekitaldi horrek emango dio bukaera gaur, astelehena, hasten den Erretiratuen Asteari. Gaurtik domekara bitartean, kontzertua, parkinson gaitzari buruzko hitzaldia, San Martinera ibilaldia, bingo berezia, kantaldia, dantzaldia eta txokolate-jana antolatu dituzte, besteak beste. Herriar guztiak gonbidatu dituzte.

## Julian Sagastari buruzko liburua eta CDa aurkeztuko dute etzi

O.E. | OÑATI

Xabier Ugartek eta Jose Antonio Azpiazuk idatzi dute Julian Sagasta zenari buruzko biografia, eta horren aurkezpena egingo dute etzi, eguaztena, San Migel parrokian. "Horrekin batera CD bat ere grabatu dugu. Aitor Olea organo-jolearekin. Hura ere egongo da eta zuzenean entzuteko aukera egongo da", aurreratu du Xabier Ugartek.

Izan ere, Sagastaren omeneko organo kontzertua antolatu dute etziko eta emanaldi horretan egingo dituzte liburu eta disko aurkezpena ere. "Parrokiako koruan egingo dugu, organo-jolea, Olea, aurrean dugula", azaldu du Ugartek.

### Arrasateko oñatiarra

Julian Sagasta Galdos (Arrasate 1914-Erroma 2005) mundu mailan organista ezaguna -adituen esanetan onenetakoa- eta abadea izan zen. Arrasaten jaio bazen ere, 10 urterekin Oñatiko Agustindar Kalonjeen seminarioa joan zen abadetzarako ikasketak egitera. Burgosen izan zen gero; eta 18 urte beteta, Erromara destinatu zuten. Aurrerantzean Erroma izan zuen bizitoki. *Don Giuliano* moduan ezagutzen zuten han. Udako oporrak pasatzera, baina, askotan etorri zen Oñatira. Erromara joandako euskaldunei ostatu egokiak aurkitu eta turista gida lanak egin ohi zien.



AMAJIA TXINTXURRETA

## Jolasak Txalokaren ikasturteko azken jaietan

Txatxilipurdi elkarteak kudeatzen duen Txaloka ludotekaren eta bertakotze programaren ikasturte amaierako jaia egin zuten joan den eguaztenean Foruen plazan: aurpegiak margotu zizkieten umeei, tatuaje tailerra egin, eta baita eskulanak ere; ohe elastikoa, musika eta jolas erraldoiak ere egin ziren. Ekintzak umeen gustukoak izan ziren. Hainbatetan ilarak izan ziren, aurpegia margotzeko eta ohe elastikoan salto egiteko, adibidez, baina denek izan zuten gozatzeko aukera.



Ugarte, eguaztenean Arrasaten egin zuten aurkezpenean. | JOKIN BEREZIARTUA



O.E.

## Musika eskolaren 25. urteurreneko diskoa, kalean

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek ere bukatu dute aurtengo ikasturtea. Musika mota bakoitzeko ikasleek euren bukaera propioa eman diote kursoari, kontzertu edo kalejirak eginda. Joan den egubakoitzeko emanaldia, baina, izan zen azkena. Euriagatik, baina, ezin izan zuten prestatuko kontzertu osoa eskaini. Ikasturte amaierako kontzertua izateaz gain, 25. urteurrena ospatzeko ere izan zen. Gainera, ospakizun horretarako grabatu duten diskoa ere aurkeztu zuten.



## ARETXABALETA-ESKORIATZA



San Juan bezperan piztutako sua, Aretxabaletan. | MIRIAN ALTUBE

# San Juan suaren garrek girotuko dituzte plazak

Askotariko ekintzak egingo dituzte bi herrietako kaleetan, arratsaldetik aurrera

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Debagoieneko gainerako herrietan bezala, Eskoriatzan eta Aretxabaletan ere San Juan bezpera ospatzeko askotariko ekintzak gertatu dituzte gaurko, ekainak 23. Aretxabaletan, Leizarra musika eskolakoek *Plaza dantza* emaldia egingo dute, 18:00etan; betiko moduan, saio irekia izango da, eta, hortaz, edozeinek parte hartu ahal du horretan, hala nola musika eskolako dantzariak, gurasoak eta baitak ikusleak ere. Hori amaitzean, buruhandiak eta erraldoiak irtengo dira, herriko txistularien laguntzarekin.

Sua piztu aurretik, 21:00etan, Ingou Al Degu musika taldeak

dantzaldia egingo du; eta 22:20an, sanjuanetako kalejira hasiko da; hain zuzen ere, Mitarte kaleko 8. zenbakitik herriko plazarantz abiatuko da, eta hara helduz, Leizarra dantzariak sanjuanetako zortziko dantzatuko dute.

## Tantaia jaso

Jarraian, 22:30ean, San Juan sua piztuko dute plazan; Ingou Al Degu taldekoak arduratuko dira bitartean ingurua alaitzeaz. Bezperari amaiera emateko, urtero moduan, tantaia jasoko dute datorren urtean Santa Agedan irtengo diren neska-mutilek; herriko plazan izango da hori.

## Txorimaloaren bila

Eskoriatzan ere arratsalde partean hasiko dira San Juan bezperaren bueltan antolatutako ekintzak. 18:00etan, txorimaloen bila irtengo dira umeak; plazan egin dute hitzordua bila joateko eta, bide batez, datorren urterako lore-sendorra gertatzeko. Ordu bete geroago, buruhandiek ederto ibiliko dira etxeko txikienak.

Ilunkeran, 22:00etan, 1997an jaiotako herriko gazteek tantaia jasoko dute plazan; eta ordu erdi geroago, 22:30ean, sua piztuko dute urte bereko kintoek. Eta musikariek ez da falta izango, herriko txistulariek girotuko dute-eta plaza.

## Torrebaso parkean dute gaur batzarra bi herrietako gazteek

M.B. | ESKORIATZA

Udaero programaren bueltan, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gazteek uztailaren egingo dituzten ekintzak zehazteko batzarra egingo dute gaur, astelehena, 11:00etan, Torrebaso parkean.

Orain arte bi gaztelekuetako hezitzaileek antolatzen zituzten

ekintzak; egitaraua itxita zetorren; aurten, baina, hori aldatzea erabaki dute, eta neska-mutilek hezitzaileekin batera adostuko dituzte uztailaren 7tik 11ra bitartean, *Gazte Udalekuak* izeneko ekimenaren bueltan egingo diren ekintzak. Eta gaurko batzarrean proposamenak botatzeko aukera

izango dute. Horrez gain, *Gazte Udalekuak* atalean zein *Gazte Konkis* abentura irteeran izena eman ahal izango dute.

## Plaza mugatuak

Azken horren harira, aurten, Leixargarate aldera joango dira gazteak uztailaren 14tik 17ra. Hezitzaileek gogorarazi dute oraindik tokia badago ere irteera horretarako plazak mugatuak direla; hain justu, 40 lagunendako tokia dago.

## Itxura berria dabil hartzen erdialdea

Eskoriatzan ia dena prest dago Bolibarko bidegurutze eta Antsoategi biribilgune arteko zatia ibilgailuendako mugatzeko. Azken egunotan badabilza langileak espaloia eta errepidea bereizten dituzten oholak eta loreontziak jartzen.



MIRIAN BITERI

## Andramaixetako kartel lehiaketa deitu du Udalak

Uztailaren 5era arte aurkez daitezke lanak Arkupe kultura etxean edo udaletxean

M.B. | ARETXABALETA

Gertu du Aretxabaletako Udalak Andramaixetako jaiak iragartzeko erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa. Proposamenak uztailaren 5a baino lehen bidali behar dira Arkupe edo udaletxera; kartelarekin batera kartazal itxi bat aurkeztuko da ezizenarekin. Horren barruan honako datuak azaldu beharko dira: egilearen izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia.

Lehiaketa horretan edozeinek har dezake parte. Teknika libre da, eta honako testua izan beharko du derrigorrez: *Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a. Andramaixak 2014. Aretxabaleta*. Kartelaren neurriari dagokionez, 50x70 zentimetrokoa izan beharko du, edo formatu digitalarekin ekarri gero, DIN-A3an aurkeztu beharko dira. Epaimahaiaren erabakia uztailaren 7an jakinaraziko da; irabazleak 300 euro jasoko ditu.



MIRIAN BITERI

## Ontziak banatzen dabilza

Atez atekoa martxan jartzeko ontziak banatzen dabilza Iturrigorri pilotalekuan honako ordutegian: 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Gaur, herriko hegoaldean bizi direnek hartu behar dituzte; bihar, Txarapea ibilbidekoek; eta hilaren 25etik 27ra, aurretik hartu ezin izan dutenak pasa ahal izango dira pilotalekutik.

## NIRE USTEZ

JOSU ZALOÑA



## Gure Esku Dago

Ezaguna da herrian Loramendi Elkartek urtean egindako lana, besteak beste, euskararen erabilera bultzatzeko eta euskal hiztunen komunitatea sendotzeko.

Umeak edo gaztetxoak gine-la, lehendabizi, Beinke ezagutu genuen, txaketadun eta txima luze; 80. hamarkadaren erdialdea -edo izango zen, oker ez baldin banabil. Gerora etorri zen Loramendiren sorreraren berri emango zuen kanpaina hura, *Aretxabaletan haur bat jaiotze dago*, edo tankerako zerbait; gogoratzen al duzue? Bada, orduetik hona emankorra izan da Loramendiren jarduna, akaso, baita gora-beheratsua ere; batzuetan ondo

egingo zen, beste batzuetan ez hainbeste. Betiere, euskalgintzan aritzeko bilgune eta topagune izan da, eskertu eta zoriontzekoa, dudarik gabe.

Azken hilabeteetan, zuzendaritzako kideek hainbat bazkide eta euskaltzale gonbidatu dituzte Loramendiren jardunaz hausnartzera, egin beharrez eta lehenasunez iritziak konpartitzera. Orduetik, gogotik ezin kendu eduki ditut bi ideia.

Batetik, bertan jaso zen Ttakun Euskara Elkarteko kide baten aipamena: "Paradoxikoki, presupuestotan gora gindoazen neurrian (Ttakun), bazkideetan behera gindoazen; bazegoen, hor, disfunczio bat, zerbaitek huts egiten zuen... eta herrigintza zen hori".

Bestetik, Jon Sarasuak argitaratutako *Hiztunpolis*a liburuan irakurritakoa: "Herritarren gogoaldarteari (emozionalitatea) antzematen asmatzea, berau pizten, baretzen edo indartzen jakitea, prozesu askoren erdia da".

Baliteke, hori ere, gure esku egotea.





Elgetako neska-mutiko taldea beheko kaleko jaietan Amaia DJren saioan dantzan. | L.Z.

**ELGETA**

## Beheko kaleko auzotarren lehenengo jaiak herritar ugari erakarri zituzten

Jaien hasierako etxafuegoa bezain puntuala izan zen, barikuan, euria; ez zen, ordea, aitzakia izan herrian berriak diren jaiak giro onean egiteko

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Plaza polita dute Torrealdean jaiak egiteko eta esan beharra dago auzotarrek gogotik egin dute lan auzoko lehenengo jaiak antolatzeke. Taberna, eszenatokia, apaingarriak, egitaraua... Dena gertu zegoen, baina lehenengo etxafuegoarekin batera hasi zen euria. Plaza polita izateaz gain aterpea ere badute Torrealdean, eta eguraldiak okerrera egin behar zuela ohartuta bertara mugitu zituzten arrapaladan Amaia Txintxurretaren DJ saiorako tresna guztiak. Umotsu, baten batek aipatu zuen: "Jaiok ez dute Santu zaintzailerik eta... euria!".

Euria egin zuen, baina ekitaldiek aurrera egin zuten: buruhandiak, DJ festa, afaria, erromeria... Aurtengoa joan da. Ikusi egin behar, orain, jaiok jarraipena izango duten. Auzotarrak, atzo, gogotsu zeuden.

**San Juan bezpera, gaur**

Gaur, astelehena, San Juan bezpera da eta guraso elkarteak ogitartekoak banatuko ditu Bolatokian, 20:30ean. Ilundutakoan piztuko dute sua umeek.



Haurra beldurtuta buruhandi bat gertu duelako. | L.Z.



Auzotarrak jaietarako ipinitako tabernan lanean. | L.Z.

**ARAMAIO**

## Berdintasun Plana urte amaierarako amaituta izatea espero du Udalak

Daiteke aholkularitza enpresakoek bilera egin zuten herritarrekin, euren ekarpenak jasotzeko

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Berdintasun Plana urte amaierarako amaituta izatea espero du Udalak eta hurrengo lau urteetan egongo da indarrean. Udalak Daiteke aholkularitza enpresa kontratatu zuen plana egiteko eta iaz diagnostikoa egin ostean, joan den egunean bilera egin zuten udaletxean herriko norbanako zein eragileen ekarpenak jasotzeko. Bileraren hasieran iazko diagnostikoaren berri eman zuten eta gero Aramaion ezarri beharreko lehenetsun gainean egin zuten berba. Daiteke enpresako teknikari Jaione Fraileren arabera, eskolan haurrekin lanketa berezia egitea garrantzitsua izateaz gain, herriko elkarteetan

emakumeen presentzia areagotu beharra dago. Bestalde, zaintzaren arloan ere badago zer hobetu: "Umeen zaintzan gero eta gizonezko gehiago aritzen dira baina helduen zaintzan emakumeak ari dira bakarrik. Zaintzaileak zaintzea oso garrantzitsua da". Era berean, genero indarkeria prebenitzeko ekintza berriak egitea onartu zuten.

**Herritarrek, hainbat ekarpen**

Bilerarekin "oso pozik" daude Daiteke enpresakoak: "Jende gutxi agertu zen baina hainbat ekarpen egin zituzten. Balorazio oso positiboa egiten dugu". Herritarrekin egon ostean Udaleko teknikari eta zinegotziekin egongo dira plana onartu aurretik.



Bileran parte hartu zuten emakumeetako batzuk, udaletxean. | UDALA

**ANTZUOLA**

## Eskaintza berezia Udal Gimnasioan uztaileko

Kirol Udalekuak, patinaje ikastaroa eta 'cross training'-a izango dira, esaterako

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Udarako zerbitzu eta ekintza berriak antolatu ditu Eguzki gimnasioak. Hala, Kirol Udalekuak egunero egingo dira, ekainaren 30etik uztailearen 17ra bitartean (biak barne). 10:00etatik 12:15era izango dira eta 12 eta 16 urte arteko gaztetxoendako askotariko kirol eskaintza dela azaldu du Xabi Azkarate gimnasioko arduradunak.

Abonatuak 39 euro ordaindu beharko dute eta abonatu ez direnek, 53 euro. Gaztea abonatu izateko, gurasoak gimnasioko abonatu izan behar du edo DKT txartela izan. Informazio guztia eta izena emateko aukera [Antzuola.com](http://Antzuola.com) webgunean dago, hain justu ere.

Helduek eta haurrek patinaje ikastaroa egiteko aukera ere badute. Martitzenetan eta

eguenetan egingo da, 19:00etan txikiek eta 20:00etan helduek. Ahalik eta azkarren izena emateko gomendatu dute.

Bestalde, ikus-entzunezkoekin saioak, *cross training* eta gantzak erretzeko zirkuitua ere egingo dira uztailean.

Esan beharra dago Deba-goieneko Kirol Txartela dutenek uztailean gimnasioa doan erabili ahal izango dutela.

**Auzoko, eguaztenero**

Euskaldunen bila dabil Auzoko ekimena. Eguaztenero, 18:00etan, Oларanen batzen dira Auzoko egitasmoko parte-hartzaileak. Baina herritar euskaldunen parte hartzea ezinbestekoa da ekimenari bultzada eta laguntza emateko. Interesa duten herritar euskaldun guztiek ateari zabalik dituzte eguaztenero.

**LEINTZ GATZAGA**

## Izena laburtu diote museoari: Gatz Museoa izango da aurrerantzean

Osoko bilkuran onartu du hori udalbatzarrak, Eugenio Otsoa alkateak hala eskatuta

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Joan den eguneko osoko bilkuran, Eugenio Otsoa Gatz Museoren izenari udalerriko alkatearen izena kendu eta Gatz Museo moduan uztea erabaki du udalbatzarrak. Alkateak berak eskatuta landu zuten gaia osokoan, eta baiezkota eman jasotako proposamenari.

Puntu horrez gainera, beste bat izan zuten osokoan aztergaien artean, kredituak aldatzea. Hori ere onartu zuen udalbatzarrak.

**Diputazioaren dirulaguntzak**

Udal kontuez aparte, diputazioarekin lotutakoak ere badira, Gatzagari dagozkionak. Izan ere, erakunde horrek Gipuzkoako

5.000 biztanletik behera dituzten udalerrietan kultur jarduerak antolatzeko udal eta irabazi asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko ebazpenaren berri eman du, hain justu, ebazpena eman aurretik, interesatuei entzuteko tramitean 10 eguneko epea eskaintzeko, haiek nahi dituzten alegazioak aurkez dituzten.

Alegaziorik ezean, eta Gatzagari dagokionez, dirulaguntza horien bitartez artisauek azoka lagunduko luke Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.167 euroekin, aurtengo jardunean 700 euro emanez, eta datorren urtekoan, 467 euro emanez.



# Goiena Klubeko ekaineko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



## HP 2540 Inprimagailua

Inprima ezazu zure smartphone edo tabletetik zuzenean.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Inprimagailua

Arrasateko hipermerkatua



**ARRIKRUTZ**  
o ñ a t i k o k o b a k

### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko,  
6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Arrikutz



**Argia**

### Joko sorta

"Badakit" eta "Bazen behin bizitza"  
jokoek osatutako 2 joko sorta.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Jokoak



[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuk

### Otarra

Bidezko merkataritzako produktuez  
osaturiko otarra.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Otarra

### PARTE HARTZEKO:

**SMS:** KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

**Telefonoz:** 943 25 05 05

**E-postaz:** kluba@goiena.com

**WhatsApp:** KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



# KIROLA



Iñaki Uribe-Etxebarria eta Hassan Ait Chaouk Eskoriatzako plazako helmugara sartzen, elkar besarkatuta. | ARITZ GORDO

## GABEZ TAKARRARAN

# Besarkatuta helmugaratu, proba are bereziagoa eginez

- ▶ Gizonezkoetan txapela Uribe-Etxebarriak eta Ait Chaouk jantzi zuten
- ▶ Emakumezkoetan Nerea Amilibia jaun eta jabe, hasieratik amaierara

**JOKIN BEREZIARTUA** | ESKORIATZA  
Mendi lasterketek bizi duten loraldiaren beste adibide garbi bat izan zen zapatu gauerdian Eskoriatzan egin zen Gabez Takarraran proba. Iaz baino parte hartzaile gutxiago izan ziren, 96 korrikalari heldu ziren Eskoriatzako plazako helmugara -iaz 148 korrikalarik hartu zuten parte-. 101 korrikalarik eman zuten ize-na baina horietatik bost ez ziren

agertu. Bestalde, ez zen inor erretiratu. Parte-hartzeak behera egin izanak, baina, ez du esan nahi probaren ospeak behera egin duenik. Antolatzaileen arabera, hezetasun handiak eta ekaitz arriskuak zuzenean eragin zuen beherakada horretan. Eta ez hori bakarrik, azken asteotan egin diren beste mendiko proba batzuk ere ez zuten ohikoak diren korrikalarietako batzuk animatu.

### Lagunarteko besarkada

Bailarako korrikalariak izan ziren gehienak, baina Euskal Herri osotik etorritako atletak ere hartu zuten parte. Gabez Takarraran lasterketa berezia denik ezin ukatu. Gazez egiteak bakarrik xarma ematen dio probari. Horrez gain, laugarren edizioan une bereziak bizi izan ziren.

Momenturik hunkigarriena nagusien probaren amaieran

heldu zen: ibilbideko 23 kilometroak batera egin ostean Eskoriatzako Iñaki Uribe-Etxebarriak eta Villabonako Hassan Ait Chaouk batera helmugaratzea erabaki zuten. Villabonakoak keinu polita izan zuen eskoriatzarrarekin, lagun arteko esku-zabaltasunaren adierazle. Helmuga zeharkatu ostean elkarri emandako besarkada da, era berean, horren isla.

### Uribe-Etxebarriaren eguna

Hori bai, proba bera antolatzen lan mardula egin duen Uribe-Etxebarriari ezin zaio meriturik kendu; sekulako lasterketa egin zuen eta merezimendu osoz jantzi zuen txapela. Etxean, lagun eta herrikideen aurrean.

Ezin da gehiago eskatu; poztasun hori adierazten zuen haren aurpegiak helmugan.

### Kirol elkarteari omenaldia

Proba hasi aurretik, baina, antolatzaileek Eskoriatza Kirol Elkartearen omendu zuten. Elkartearen 50. urteurrena aprobetxatuz, presidente izandakoei aureskua dantzatu eta oroigarri bana eman zieten, herriko kirolaren alde "musu truk egindako lan handiagatik". Omenaldia amaitu eta



Korrikalari bat Aseztzorako bidean, Gabez Takarraran.



**JOSUNE BEREZIARTU**  
ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

"Lasterketa zoragarria da. Aurten behera egin du parte-hartzaile kopuruak; hezetasun handiak eta denbora gutxian hainbat proba egon izanak zerikusia izango zuen. Pozik gaude, hala ere. Espero dugu Gabez Takarraran luzerako izatea".



**IÑIGO ALTZOLA**  
PARTE-HARTZAILEA

"Gogorra izan da, oso erritmo bizia jarri dute hasieratik. Lainoa zegoen baina antolakuntzak sekulako lana egin du ibilbidea markatzen. Duela bi urte ezagutu nuen lasterketa eta posible badut datorren urtean ere hemen egongo naiz".



**AITOR AJURIA**  
MUTIL GAZTE AZKARRENA

"Hasiera oso gogorra izan da; Aseztzion gora lortu dut ihes egitea eta gero beheranzkoan distantzia mantentzea lortu dut. Polita da gazez korrika egitea baina oso gogorra da era berean; bero handia egin du, gainera".



**JONE URIARTE**  
NESKA GAZTE AZKARRENA

"Giro ederra egon da, merezi du parte-hartzeak. Iaz ere hartu nuen parte eta aurten moduan, neska bakarra izan naiz nire kategorian. Horregatik neskak animatu gura ditut parte har dezaten, lehia apur bat izateko bada ere...".



**JOSU GALVEZ**  
ESKORIATZAKO GAZTETXOA

"Gorantz oso ondo ikusi dut nire burua baina beherantz asko sufritu dut. Bero handia egin du, baina ondo. Iaz probatu nuen lehenengoz eta mendiko lasterketara engantxatu egin nintzen. Gabez Takarraran berezia da niretako".



## 26 | ATLETISMOA | Imanol Cruz nagusi Oñatiko Herri lasterketan



Lasterketaren bereizgarri den iluntasunean. | ARITZ GORDO



Nagusien irteerako une bat; Nerea Amilibia irabazlea ageri da. | IMANOL SORIANO



Irabazleen talde argazkia, sari banaketaren ostean. | ARITZ GORDO

## SAILKAPENA

## GIZONEZKOAK

1. Iñaki Uribe-Etxebarria 1:59:15
2. Hassan Ait Chaou 1:59:15
3. Joseba Molinero 2:02:10
4. Iñigo Altzola 2:04:28
5. Ioritz Conde 2:04:35
6. Txomin Bustindui 2:09:41
7. Igor Lazkano 2:10:12
8. Jabi Martinez 2:10:57
9. Aitor Urizarren 2:11:02
10. Diego Limon 2:12:17

## EMAKUMEZKOAK

1. Nerea Amilibia 2:26:03
2. Aitziber Osinalde 2:36:02
3. Maite Zabaleta 2:45:08
4. Rosa Lasagabaster 3:12:23
5. Alejandra Zarate 3:20:27

gutxira, 16 eta 18 urte artekoen lasterketa hasi zen; zortzi gazte txok hartu zuten parte –zazpi mutil eta neska bat–. Gazte txok bederatzi kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten, Asentziarako joan-etorria. Aitor Ajuria gatzagarra –egun Otxandion bizi da– izan zen nagusi, Asentziara igotzen ihes egitea lortu ostean. Gogorra egin zitzaiola aitortu zuen amaieran. Iaz ere hartu zuen parte, baina gazteegia zelako ez zuen dortsalik izan. Etor-kizunean kontuan hartzeko moduko korrikalaria izango da.

Helduen proba 23:00etan puntuan hasi zen. Hasieratik taldeburuan jarri ziren aurtengo bi irabazleak, Joseba Molinero oñatiarra eta aurtengo sorpresetako bat izan den Iñigo Altzola arrasatearra: "Sekulako erritmoa jarri dute eta amaieran asko sufritu dugu", zioen amaieran, pozik. Elgoibarko Ioritz Conde ere Alzolarengandik oso gertu egon zen uneoro; euren artean txantxetan ibili ziren oraindik arnasestuka zeudela, lehia sanoan.

## Bidea ondo markatuta

Asentzion zein Makatz-gaiean sartu zen lainoa izan zen aurtengo probako eragozpen bakarra. Hala ere, atletek adierazi zuten antolakuntzak oso ondo markatu duela bidea. Izan ere, aurtengo ez da inor galdu. Erorikoren bat edo beste egon zen, baina ezer larririk ez. Lokatza ere sendo zegoen ibilbideko zenbait tartean eta horrek denborak luzatzea eragin zion bati baino gehiagori.

## IÑAKI URIBE-ETXEBARRIA ETA HASSAN AIT CHAOU | GIZONEZKO AZKARRENAK

## "Hunkigarria eta berezia izan da biok elkarrekin helmugan sartzea"

Lasterketa osoa batera egin ostean, txapelagatik lehiatu beharrean elkarrekin helmugaratzea erabaki zuten Euskal Herria Mendi taldeko bi kideek. Hala, amaiera boro-bila eman zioten probari.

## Nola joan da lasterketa?

Iñaki Uribe-Etxebarria: Oso ondo. Hassan-ek eraman nau atzetik proba osoan. Oso detaile polita izan du, izugarri estimatzen diot. Nire herrian, Hassan-ekin batera heltzea... Hunkigarria izan da. Hassan Ait Chaou: Ederto, oso pozik nago. Lasterketa polita da, asko gozatu dut. Temperatura ere ederra. Pena bakarra izan da goialdean lainotuta zegoela eta ez zela ondo ikusten; hori bai, antolakuntzakoek ondo markatu dute bidea.

Iñaki lagun handia da eta horregatik batera heltzea erabaki dugu. Bere herrian izanda banekien berezia dela; merezi du garaipena.

## Iñaki, antolatzaile ere bazarela kontuan hartuta: ze balorazio egiten duzu aurtengo probaz?

I.U.: Balorazio pertsonala iazkoa baino hobea da. Iaz galduta ibili nintzen laino artean... Asentzioko zatian zein Makatz-gaiean sekulako lainoa zegoen eta ez zen ondo ikusten. Hori izan da eragozpen bakarra. Hala ere, aurtengo hobeto markatuta zegoela esango nuke; ni, behintzat, ez naiz galdu... (kar-kar). Ekaitz arriskua zegoen eta eutsi dio; alde horretatik ere, pozik. Ea datorren urtean ere ondo irteten den.



J.B.

## NEREA AMILIBIA | EMAKUMEZKO AZKARRENA

## "Ez nago ohituta gaez korritzera, baina oso ondo sentitu naiz, gustura"

Pagoeta Mendi Elkarteko korrikalari Nerea Amilibia aiarrak erraz irabazi zuen lasterketa. Datu bat ematearren: bigarren geratu zen Aitziber Osinalde legazpiarrari hamar minutu sartu zizkion. Gustura zegoen probaren amaieran, Gabez Takarraren proba bigarrenez irabazi ostean.

## Nola joan da lasterketa? Nola ikusi duzu zure burua?

Oso ondo sentitu naiz. Temperatura aldetik oso egokia izan da niretako, beti bero eske egoten naiz-eta. Oso gustura geratu naiz egindako probarekin.

## Zenbat aldiz hartu duzu parte Gabez Takarraren proban?

Aurtengo bigarren aldia da. Iaz ezin izan nintzen egon eta duela bi urte hartu nuen parte lehen aldiz. Lau urtetan birritan irabazteko izatea ez dago batere txarto.

## Gaez korrika egitea gustuko al duzu?

Gustatzen zait. Hori bai, oso ezberdina da, ez nagoelako ohituta. Apur bat gehiago ibiliko banintz beste era batera gozatuko nuela uste dut. Hala ere, gustura ibili naiz, ibilbide polita da. Egia esan, ez da gehiegi ikusten baina ia lasterketa osoa beste laurekin batera egin dudanez argirik ez zait falta izan. Lainoa zegoen tartean eskertu dut bereziki.



J.B.

## Proba askotan parte hartu izan-dakoa zara. Noiz arte ikusiko zaitugu lehiatzen?

Bai. Gaurkoarekin 94 txapela jantzi ditut, oker ez banabil. Nire asmoa da 100 txapeletara heltzea; ea helburu pertsonal hori betetzeko aukera dudana, ederra izango litzateke. Sasoian nagoen bitartean jarraituko dut korritzen.

## Antolakuntzari dagokionez, zer nabarmenduko zenuke?

Oso ondo egon dela uste dut, bejondeiela antolakuntzakoei. Hornidura puntuak oso ondo egon dira, neurrian.

## Datorren urtean Gabez Takarraren hirugarren aldiz irabazten saiatuko al zara?

Gorputzak uzten didan bitartean hemen egongo naiz, oso proba polita da-eta.



HIRUKO TORNEOA

# Hasi umeetatik eta ACBko jokalaririk ere bai, Bergarako festan

- ▶ GBCko Mikel Motosen taldea nagusi elite mailan
- ▶ Emakumezkoetan, berriz, Gasteiza joan zen saria
- ▶ Zapatuan Labegarietan jokatu behar izan zuten

JULEN IRIONDO | BERGARA

Saskibaloia jai handia izan dute asteburuan Bergaran, aurtun zazpigarren aldiz antolatu duten hiruko torneoarekin. Denboraldian, bakoitza bere txapelketetan eta kantxarrik kantxa ibili eta gero, neska-mutiko zein gazte, denak –baita urte osoko lehia ibili ez arren saskibaloia zaletasun dutenak ere– elkartu ditu bi egunetan Bergarako txapelketak. Eta elkartu behar zituen kalean, plazan, eta hala izan zen, domekan; zapatuko partiduak Labegarietan jokatu ziren, eguraldiagatik.

Hasi benjamin mailatik eta senior mailara arte, 86 talde –laurdena emakumezkoenak– ibili ziren nor baino nor gehiago. Zapatuan Labegarietara eraman beharrik aldendu egin zuen txapelketa, batetik, kaletik, eta, ondorioz, bere helburuetako bat lortzetik: saskibaloia giroa kalera eraman eta inguruan dabilzanen arreta piztu eta jendea saskiaren kirolera gerturatzearena. Hala ere, Bergarako saskibaloia saileko

arduradun Marian Melladoren arabera, giro polita sortu zen kiroldegian ere.

Bertan jokatu ziren, gainera, maila nagusietako norgehiagokak; eta ikuskizun polita eman zuten benetan. Bergarako txapelketa ez da herritarrentzako bakarrik izaten, eta zenbait kategoriatan Debagoieneko zein Euskal Herriko taldeek hartu ahal izaten dute parte. Honela, elite mailako seniorretan ACBko Gipuzkoa Basketeko Mikel Motosek eta bere taldeak –beheragoko ligetako beste jokalaririk on batzuekin osatuta– lortu zuen garaipena muti-

letan; lehia ibili ziren, baita ere, Debagoieneko –edo bertako taldeetako– izen ezagunak: Ander Gartzia bergararra, Beñat Barberena arrasatearra eta Asier de la Iglesia zumarragarra, esate baterako.

Nesketan, berriz, Emakumeen Ligako EHU taldeko lau jokalaririk etorri ziren Bergarara jokatzera, eta baita Emakumeen 2. Mailako Gasteizko taldekoak ere. Azkenean, gainera, sorpresa egon zen, eta arabarrak nagusitu ziren jaurtiketa libreetan, finala berdinduta bukatu eta gero.

## Domekan plazan

Domekan, bai; domekan benjaminen eta alebinen txanda izan zen –Debagoieneko jokalariei irekia–, eta plazan jokatu ahal izan ziren norgehiagoka hauek, giro ederrarekin. Hainbat partidu aldi berean, guraso zein domeka goizean kalean zebiltzanak begira eta animatzen, eta animazioa –puzgarriak ere bai Munibe plazan– eta jan-edana, ezer falta ez zedin; dena primeran.

<b>DATUA</b>
<b>86</b>
TALDE
Horiek izan ziren Bergaran lehia ibili zirenak, laurdena emakumeenak.



Neskek lehia, Labegarietan; zenbait lagun izan ziren harmailetan ere. | IMANOL SORIANO



Senior mailako gizonzkoen partiduetako bat. | I.S.



**EKAITZ IRAZOLA**  
BERGARA

"Nahikoa gaizki joan da gurea. Hiru partiduak galdu eta kanpoan geratu gara. Baina ondo pasatu dugu. Klubeko bi eta kuadrillako beste bi ibili gara. Herriko talde onak tokatu zaizkigu, eta Arrasateko batzuk ere bai".



**UNAI ARIAS**  
ARETXABALETA

"Lehenengo aldia dut Bergaran. Oraingo ondo doa: bat galdu dugu eta beste irabazi. Hiruko modalitatean espazio gutxiago dago eta pasatzeko–eta zailtasun gehiago egoten da, eta elkar gehiago animatzen dugu".



**L. ARIETALEANIZBEASKOA**  
BERGARA

"Oso ondo doa eguna. Ondo pasatzera etorri gara, eta garaikurren bat lortu badezakegu, bikain. Asko gustatzen zait hiruko torneo; urtean zehar tarteka jolasten dut, ze ez dut denborarik: musika, igeri... gauza asko ditugu".



**IRENE, NAIA, SAIOA ETA ANE**  
ARRASATE

"Gustura ari gara. Orain arte hiru jokatu eta hirurak irabazi ditugu. Hurrengo kanporaketara pasatzea lortu dugu. Aurretik jokatu gabeak ginen Bergarako txapelketan; Arrasaten ibilitakoak gara. Hiruko txapelketa hau polita da, partidu bat baino gehiago jokatzeko aukera ematen du–eta. Beti saski inguruan, jokoa desberdina da, bizia. Saiatu behintzat egingo gara irabazten. Selektzioetan jokatzeko eta probak egiten ibilitakoak ditugu taldean. Udan kanpus batera joango gara, Zarautzera".





EHUko jokalaria baloiarekin, elite mailako nesken norgehiagoketako batean. | I.S.



Bi kontrarioengandik ihes egiteko ahaleginean. | I.S.



**zenbaki** 

aholkulariak-abokatuak

**Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera**

**LAN ZERBITZUAK  
ZERBITZU FISKALAK  
KONTABILITATE ZERBITZUAK  
ABOKATUAK**

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 21 12  
[www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)



## ATLETISMOA

# Helmugako zuzenean jo eta Imanol Cruz garaile Oñatin

Buruz buruko lehia polita izan zuen azken zatian Antonio Casadorekin

JULEN IRIONDO | OÑATI

Ikuskizun polita eskaini zuten zapatu arratsaldean Oñatiko XII. Herri Lasterketan parte hartu zuten korrikalariak. Egunaren ezaugarriak ere eraginda, neurria ondo hartu beharreko lasterketa izan zen, eta horrek ekarri zuen aurrera-atzera nahikotxo ikusi izana ibilbideak zituen 10.000 metroetan.

Bizi egin zuten korrikalariak lehen zatia, eta aurreneko bi sailkatuak hasieratik aurrealdean ibili baziren ere, beste batzuek nahiago izan zuten lasaia hasi eta atzetik aurrera egin, eta izan ziren, faboritoen artean, hasieran buruan joan baina itzuliak pasa ahala atzeratzen joan zirenak.

Horietako bat izan zen iazko bigarrena, David Gartzia durangarra; bosgarren itzulira arte –zortzi ziren– onenekin, baina ezin jarraitu gero: "Kilometroak pasa ahala esfortzua igarri egiten zen, eta bero ere egiten zuen; lasterketa polita da, baina gogorra"; pozik zegoen, hala ere, egin-dako lanarekin.

## Sergio Gartzia, ikaragarri

Kontrakoa izan zen Alberto Revuelta elgoibartarrak egindako bidea. Lehen itzulietan sei lagun ere bazituen aurretik –aipatutakoak eta Oier Ariznabarreta durangarra, Kike Sebastian dulantziarra eta Unai Arroyo tolosarra–, baina poliki-poliki aurrera egin zuen, bosgarren itzulian aurrekoak harrapatzera arte. Tarte txiki bat galdu zuen, ordea, lehen biek, eta hortxe mantendu zen amaierara arte, bost segundo ingurura.



Ezkerretik eskuinera: Alberto Revuelta, Imanol Cruz eta Antonio Casado; atzean, David Gartzia. | IMANOL SORIANO



Imanol Cruz, helmugan. | I.S.

Lasterketa ikaragarria egin zuen bestea etxekoa izan zen, Sergio Gartzia; are atzeragotik joan zen postuak irabazten, zazpigarren itzulian David Gartzia bera pasatzeraino: "Iaz oso azkar

hasi nintzen, eta ordaindu egin nuen; aurten alderantziz jokatzera erabaki dut"; ez omen zuen espero, hala ere, lortutako postua. "Oso indartsu" bukatu zuen. Irabazteko lehiari, aurretik



Sergio Gartzia, ahalegin betean. | I.S.

saiatu zen Casado antsoaindarrak Cruz donostiarra uzten, amaieran hura bizkorragoa zela jakitun; ez zuen lortu ordea, eta kale Barriari behera bete egin zen espero zitekeena.

IMANOL CRUZ  
IRABAZLEA

"Ikusi dugu horrela jarraituz gero denok hilko ginela"

Donostiarra, pozik.

Zorionak.

Mila esker.

Nahikoa lasterketa gogo-

rra izan da, giroagatik. Bero

eta hezetan handiak izan ditugu. Egiten saiatu naizena izan da Antonio Casadori eustea, eta azken zuzenean pasa ahal izan dut.

**Bizkor joan zarete.**

Indartsu hasi gara, baina lasterketa erdian ikusi dugu horrela jarraituz gero denok hilko ginela. Laugarren kilometrotik zortzigarrenean nahikotxo zaindu dugu elkar, eta handik helmugara beriz, ere borroka.

**Eta azkenean, nagusi.**

400 metro falta zirenera arte itxaron dut, ze teoriar bera baino bizkorragoa naiz, pistan ibiltzen naizelako.



## SAILKAPENA

1. Imanol Cruz	31:54
2. Antonio Casado	32:02
3. Alberto Revuelta	32:07
4. Sergio Gartzia	32:43
5. David Gartzia	33:00
6. Kike Sebastian	33:13
7. Ander Agirre	33:21
8. O. Ariznabarreta	33:21
9. Unai Arroyo	33:27
10. Ruben Lanz	33:36



GIMNASIA ERRITMIKOA

## Ikasturtea agurtzeko festa ederra

Bergarako Ariznoa klubeko 100 gimnastak –herrikoak eta Antzuolakoak– batu ziren egubakoitz arratsaldean Labegarietan. Kiroldegia bete zuten ikusleen aurrean, hainbat ariketa, dantza eta koreografia egin zituzten, bakarka zein taldeka. Ikasturtean zehar txapelketetarako eta erakustaldietarako prestatutakoak berriro ere erakusteko eguna izan zen, 5 eta 19 urte arteko gimnastentzat. Azken saioa denek batera egin zuten.



PILOTA

## Giro polita Arrasateko finaletan

San Juan txapelketan, hauek izan ziren irabazleak, prebenjamin, benjamin (2), alebin (2) eta infantil mailetan: Barbero-Garitaonandia (Eraña-Belar bikotearen kontra); Eraña-Casado (Abasolo-Bergaretxe); Azkoaga-Zubia (Ozaeta-Sarabia); Irsuegi-Otxandiano (Eraña-Elortza); Garitano-Elkorobarrutia (Errasti-Zubizarreta); eta Iturriotz-Gonzalez (Etxezarreta-Beitia).

## FUTBOLA

### Andoni Azkargorta Eibarren ikuskatzaile izango da, 1. Mailan

Armagine kontrario izango dituzten taldeak aztertzea izango da antzuolarraren egitekoa. Azken urteetan Aloña Mendi entrenatzen ibili eta gero –aurrez bailarako talde askotan aritua–, hurrengo denboraldian atsedean hartzeko asmoa zuen 36 urteko teknikariak. Ezin izan dio, ordea, halako eskaintza interesgarriari uko egin. Andoni Azkargortak maila nazionalako entrenatzaile titulua du, eta ezagutzen du Eibarko kluba. Jubenil mailako bigarren taldearen entrenatzailea izan zen eta Gaizka Garitanori laguntzen ere ibili zen Eibarren bigarren taldean.



Jokin Garai | Mendi-korrikalaria

# "Erritmo baxua eskatzen duten lasterketa luzeei gustua hartu diet"

- ▶ Hiru Handiak proba gogorrean hirugarren postua eskuratu zuen ekainaren 14an
- ▶ Ibilbide motzeko lasterketak baztertu gabe, luzeagokoetan lehiatzen ari da azkenaldian

JULEN APERRIBAI | OÑATI

Kirolarekin eta, batez ere, mendiarekin lotura estua izan du beti Jokin Garaik (Oñati, 1983). Hainbat urteren ondoren futbola uztea erabaki zuenean, beste kirol mota bat probatzeko gosea sartu zitzaion. Horrek bultzatuta, Aloñako Igoeran hartu zuen parte. Ordutik hona, mendi lasterketetan gelditu barik dabil oñatiarra.

**Emaitza bikaina lortu zenuen Hiru Handiak proban. Esperotakoa izan zen?**

Niretzat sorpresa izan zen. Hiru bat aste lehenago Zegama-Aizkorri proba egin nuen, eta, orduan, ez zen nire egunik onena izan. Banekien fisikoki ondo nengoela, baina ez horrelako emaitza bat lortzeko bezainbeste. Egun ederra izan zen, eta ustekabekoa ere halakoxea.

**Ospatu zenuen?**

Ez nuen ospakizun berezirik egin. Familiakoekin eta ingurukoekin bazkaldu nuen, eta sari banaketa bukatuta etxera joan nintzen.

**Proba egin aurretik zein zen zure helburua?**

Helburua hamahiru ordu inguruan ibiltzea zen, baina gozatu egin nahi nuen, gehienbat. Inoiz egin gabeko proba bat zen eta hain proba luzeetan parte hartzen iaz hasi nintzen. Hori guztia kontuan hartuta, ez nekien nire gorputzak nola erantzun zuten hainbeste kilometrotan. Azkenean, oso ondo atera zitzaidan lasterketa eta denbora ederra egin nuen.

**Lasterketako zein zati egin zitzazu gogorrena?**

Oso atzetik hasi nintzen eta atzetik aurrerako lasterketa egin nuen. Egia esan, askorik ez nuen sufritu. Landa inguruan triapak nahiko nahastuta izan nituen, baina zerbait jan eta edan ondoren, hobeto sentitzen hasi nintzen. Azken kilometroak luze samarrak egin zitzaizkidan, beroak ere eraginda. Hala ere, lasterketan ez zen egon bereziki gaizki pasa nuen zatirik.

**Beroa aipatu duzu. Horrelako probetan eguraldiak eragin handia izango du, ezta?**

Dударik gabe. Horrelako probetan askotan ez du irabazten edo postu on bat egiten azkarrenak. Psikologikoki ondo egon beharra dago, adibidez, edota bidea egoera onean egotea garrantzitsua da. Faktore askok eragiten dute, eta, tartean, baita eguraldiak ere. Horrek guztiorrek emaitza baldintza dezake.



Jokin Garai, Hiru Handiak proban. | JOSU GARAI

**Kirol honetan zer da zuretzat garrantzitsuen emaitzak lortzeko?**

Garrantzitsuen lana da, entrenamendua. Ez dut uste entrenatu gabe aurrean ibiltzen den inordagoenik. Ordu asko sartu behar dira aurrean ibiltzeko eta mendian gustura korrika egiteko, inongo zalantzarik gabe.

**Eta zu nola entrenatzen zara lasterketarako?**

Gabonen ondoren, urtarril aldera, hasten naiz korrika. Mendi-eskian eta bizikletan ere ibiltzen naiz. Entrenamenduak oso monotonoak izan ez daitezten kirol desberdinak tartekatzen ditut. Mendian ere entrenatzen naiz. Askok gozatzen dut eta asfalto gainean baino ordu gehiago sartzten ditut mendian.

**Zein eratako lasterketetan sentitzen zara erosoena?**

**"Banekien ondo nengoela, baina ez hain emaitza ona lortzeko moduan"**

**"Horrelako probetan faktore askok baldintzatzen dute amaierako emaitza"**

Orain arte, ibilbide motzekoetan gehiago aritu naiz, baina joan den urtean *ultra* izenez ezagutzen diren kilometro askoko probaren bat egiteko gogo sartu zitzaidan. Iaz pare bat egin nituen eta nahiko ondo atera zitzaizkidan, eta aurten ere berdina egitea erabaki nuen, inolako presiorik gabe. Konturatu naiz ibilbide luzeoketan geroz eta gusturago nabilela, baina ez dakit ziur esaten zein lasterketa mota dudana nahiago. Erritmo baxua eskatzen duten lasterketa luzeei gustua hartu diet azkenaldian.

**Zuretzat desafio moduko bat izan da, beraz?**

Bai, zerbait berria izan da. Orain arte ibilbide motzekoetan jardundut eta joan den urtera arte egindako ibilbide luzeena Zegamako 42 kilometroak izan ziren. Luze txoagoekin probatu nuen eta erritmo baxuagoekin agian gehiago disfrutatzen dudala konturatu nintzen.

**Kirol hau asko hazi da Euskal Herrian azken urteotan. Zein da horren arrazoia?**

Kirola egitea, orokorrean, modan dagoela esango nuke eta kirola egiteari berari naturan egitea gehitzen bazaio, are erakargarriago bihurtzen da. Hori egiten duen kirola da mendi lasterketa eta badu zentzia orain hain zabalduta egotea. Euskaldunoi beti gustatu izan zaigu mendira joatea eta korrika bertan egitea

erakargarria egiten zaigu askori. Oso kirol polita da, eta giro ederra sortzen duena. Gainera, kirol sinplea da. Nahikoa da zapatila pare bat hartu eta mendira korrika egitera joatea.

**Lesioak ere presente daude mendi lasterketetan. Zu errespetatu zaituzte?**

25 urtera arte futboleko ibili nintzen eta esan dezaket futboleko askoz ere lesio gehiago izan ditudala mendi lasterketetan baino. Oraingoan, oso lesio txikiak izan ditut. Erorketaren batek eragindako lesioren bat izan dut, baina, bestela, giharretako lesioak eta antzerakoak oso gutxi izan ditut. Niretzat, adibidez, gogorrakoa da asfaltoan korrika egitea mendian baino. Ez dakit zorua gogorrakoa eta inpaktua ere halakoa delako izango den, baina nik, behintzat,

**"Ez dut uste entrenatu gabe aurrean ibiltzen den inor dagoenik"**

**"Ez dut askorik fidatu nahi, ibilbide luzeok lasterketetan berria naiz oraindik"**

mendian gutxiago sufritzen dut, normalean.

**Denbaldia amaitutzat eman duzu Hiru Handien ondoren?**

Ez, badituzte bi lasterketetan lehiatzeko asmoa. Asteburu honetan Pirinioetara joango naiz nire taldeko beste hainbat lagunekin. Ainsan (Huesca) 66 kilometroko lasterketa bat egingo dugu. Uztailko bigarren asteburuan, berriz, Goierriko Bi Handiak proba egingo dut. Proba horren barnean bi lasterketa egoten dira eta txikiena egingo dut nik, 88 kilometroko ibilbidea duena. Horrekin amaitutzat emango dut denbaldia. Irailera arte, behintzat, deskantsua hartuko dut eta gero-  
ra ikusiko dut zertan naizen.

**Eta bi proba horiei begira helbururik zehaztu duzu?**

Lehen esan dizudan moduan, berria naiz *ultra* lasterketen munduan. Badakit fisikoki egoera onean nagoela eta aurrealdean egoteko aukera badudala. Hala ere, lasai-lasai irtengo naiz eta ikusiko dut zer moduz noan lasterketan zehar. Esperientzia gutxi dut eta ez dut nahi nire buruarekin askorik fidatu. Azkenengoan oso egun ona izan nuen, baina auskalo hurrengoetan zer gertatzen den. Lasai irteten eta disfrutatzen badut, gustura egongo naiz; eta emaitza ona bada, are gehiago. Lasterketan disfrutatzen bada, emaitza ere ona izaten da; kasu gehienetan, behintzat.





Koldo Tellitu, Lurdes Imaz eta Juankar Olaeta, Goiena telebistako platoan. | L.Z.

## LOMCE legeak eragin txikia izango du ikasturte berrian

Erabakiak hartzeko ikasturtea izan da, ordea, eta mugimendu handikoa

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARRASATE  
Amaitu da 2013-2014 ikasturtea eta ikastetxe gehienetan hasi dira hurrengo prestakuntza. Azkenaldian hainbeste zeresan eman duen LOMCE legearen eragina zein izango den jakiteko hiru hezkuntza eragile elkartu ditugu Goiena telebistako Tertulia saioan: Ikastolen elkartearen presidentea Koldo Tellitu, EHIGeko koordinatzailea Lurdes Imaz eta Gipuzkoako Kristau Eskoletako presidentea Juankar Olaeta.

### Lasaitasun mezua

Tellituk, Imazek eta Olaetak bat egin dute: lasaitasun mezua da gurasoei bidali behar zaiena. "Argi daukagu LOMCE legearen aplikazioaren aurka gaudela, eta adostasun zabala dago horretan", esan du Koldo Tellitu. "Baina ez gara inozoak eta jakin badakigu LOMCE legea lege organikoa dela. Herri bezala eta hezkuntza eragile guztien artean adostu behar dugu egoera honi nola

aurre egin. Eta instituzioen babesarekin". Ekimen bateratuak bultzatu behar direla dio Imazek: "LOMCEren kontrako adostasun zabala dagoela uste dugu. Ekimen bateratuak martxan jartzeko ahallegina egin beharko genuke". Juankar Olaetak ere elkarlanean sinesten du: "LOMCE legea estrategia errektiboa da. Elkarlanean egindako proiektuetan sinesten dugu, eta horregatik gaude Heziberri 2020 proiektuan".

### Jaurlaritzaren jarrera

Hiru ordezkariak gustura azaldu dira Jaurlaritza bultzatzen ari den Heziberri 2020 proiektuaren orain arteko ibilbidearekin. Hezkuntza eredu propio baten alde egiten dute hiru eragileek, eta hezkuntza lege propio baten beharra aldarrikatzen dute, batez ere sare kontzertatuko bi kideek. "Heziberrirekin markatuta dagoen ibilbidea egokia dela pentsatzen dugu. Marko pedagogikoa onartuta dago eta orain dekretu kurri-

kularrak onartu behar dira", azaldu du Tellitu. "Orduan —urria-azaroa— ikusiko dugu benetan Jaurlaritzaren jarrera zein den. Marko pedagogikoaren logikari jarraituz egingo diren dekretu kurrikularrek talka egingo dute Estatutik datozenekin. Talka hori gertatzen denean ikusiko dugu Eusko Jaurlaritzaren apustua benetan zein den".

Tellituk, Imaz eta Olaeta ez daturatzen desobedientziarako dei egiten dutenekin. "Samur esaten da, baina ikasleak babestu egin behar ditugu", esan du Imazek. "Gauza batzuk egiteko adostasunak landu behar dira". Gehiago esan zuen Olaetak: "Gure bidea egin behar dugu, ez hainbeste LOMCEren kontra. Jaurlaritzak lan, indar eta gogo gehiago ipiniko du norabide jakin baten ikusten badu hezkuntza eragileen babes osoa duela, eta alderantziz".

Hurrengo ikasturtea, beraz, garrantzitsua izango da.

#### KOLDO TELLITU IKASTOLEN ELKARTEA

"Printzipioz datorren ikasturtean ez da LOMCE legearen eraginik sumatuko. Gaiaren inguruan, hori bai, berri eta mugimendu asko aurreikusten ditugu, baina ikastetxeetan berdin jarraituko dugu".

#### LURDES IMAZ EHIGE-KO KOORDINATZAILEA

"Garrantzitsua da ikastetxe bakoitzean hezkuntza komunitateko kide ezberdinen arteko elkarlana daukaguna babesteko eta ahal den neurrian legeari zirikituak topatzeko, beti ere ikasleak babestuz".

#### JUANKAR OLAETA KRISTAU ESKOLAK

"Klaustroak eta ikastetxeak bor-bor dira: proiektuz beteta, prestakuntza jasotzen, berrikuntzak lantzen... gure lana hori da, eta horretan ari gara. Kezka hor egonik ere lanean ari gara, eta horrela jarraituko dugu".

## Hezkidetzaren eta literatura, kontuan hartu beharreko gaia

L.Z. | ARRASATE

Ipuin kontalaria da Mireia Delgado eta literatura eta hezkidetzari buruzko gogoeta egin du *Guraso.com* atarian. Argi uzten du: "Hezkidetzaren aldeko formula ez da inondik inora ipuin klasikoak kanpora, garai-kideak barrura". Ondo erabaki beharrekoa, Delgadoen ustez, azentua non jarri da. "Ipuinak hautatzerakoan, detaileetan erreparatu beharko genuke". Eta adibideak ematen ditu: Nolakoak dira pertsonaiak? Zeren arabera banatzen da protagonismoa? Nola maitatzen dute neskek eta mutilek? Zer egiten dute istorioan neskek eta mutilek? Nolako garapena dute pertsonaiak? Amaieran, ze jokabide saritzen da eta zein zigortu?. Delgado argi dauka, ipuinek indarra behar dutela.

Zer dute ipuin klasikoek belau-naldiz belaualdi zentzua izaten jarraitzeko? Badira oso ipuin egokiak baina indarririk ez dutenak. "Pentsatu beharko genuke kontatzeko moduak ere asko egiten duela", dio ipuin kontalaria. Hala, zer kontatu baino, nola kontatu pentsatu beharko genukeela dio Delgado eta Adela Turinen *Los cuentos siguen contando* liburua gomendatzen du.

### Ipuinak bertsionatu

Ipuinak bertsionatzeko gomendatzen du Delgado eta zenbait irizpide ematen ditu bere artikuluan. "Gonbidatzen zaituztet ipuinak kontatzen, hautatzen, irakurtzen edo bertsionatzen ditugunean detaileak txekeatzera eta azentua non jarri mimos pentsatzea".



Neska bat eta mutiko bat ipuina lantzen. | IGARTUBEITTI BASERRI MUSEOA

### ETXEKO ORTUA

#### Azenarioa ia urte osoan erein daiteke; ilbeheran egitea komeni da

Baratze batek aukera ugari eskaintzen dizkigu haurrekin gozatzeko; izan ere, tresna bikaina baita ingurumenaren kulturaren murgiltzeko. Landare baten bizitza-ziklo osoa ikusteko gune aproposa da; ereiten denetik fruitua ematen duen arte.

Gaurkoan azenarioa ereiteko proposamena luzatzen dizuegu. Azenarioa ia urte osoan zehar erein daiteke, eta maiatza eta ekaina sasoi egokia dira, ilbeherarekin. Landaretxoak 15-20 cm-ko tartean landatu behar dira. Ondo hazteko tenperaturak 16-18°C ingurukoa behar du. Izotzaldiak jasan ditzake, baina arinak. Uzta, sustraia guztiz osatuta egon aurretik batzen da, erein eta hilabete batzuetara.

### ARGITALPEN BERRIA

#### 'Bai ausarta dela Igelak' ipuina kaleratu du Tarttalok

Mende laurdena bete du Igelak, Max Velthuis ilustratzaileak eta idazleak asmatuak pertsonaiak. 50 hizkuntzatara itzuli da kalitate artistikoa eta bizitzako oinarriko gaiak uztartzen dituen bilduma. Maitasuna, adiskidetasuna, beldurra, heriotza, autoestimua, integrazioa... lantzen ditu. Argitalpen berrian —6-8 urteko umeendako— euria hasi du, goian-behean. Ibaiek gainezka egin du eta uholdearen erdian bakar-bakarrak gelditu dira Igelak, Ahatea, Txerria eta Erbia. Norbaiten laguntza behar eta Igelak bere ausardia erakutsiko du, bere bizia arriskatuz adiskideak salbatzearren.



# KULTURA

## Euskal Herriko eskolarteko txapela ere, Maider Arregi oñatiarrarendako

- ▶ Beste hamar lagunekin lehiatu zen zapatuan Orion jokatu zen bertsoetako finalean
- ▶ Oñatiko bertso eskolako lagunak, kuadrillakoak eta etxeakoak joan ziren animatzera

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Euskal Herriko eskolarteko bertso txapelketa Orion jokatu zuten hamaika gaztetxok zapatu goizean. Tartean ziren Maider Arregi oñatiarra eta Peru Abarrategi aramaiarra. Beñat Gaztelumendi aritu zen aurkezle lanetan. Azkenean, oñatiarrak jantzi zuen txapela. Maialen Lujanbiok jarri zion. Azkaineko Aitor Servier izan da azpitzapelduna: "Saioa maila onekoa izan zen baina aurrera zihoan neurrian, txapela Aitorren eta nire artean egon zitekeela pentsatu nuen. Hala ere, zalantzak hortxe iraun zuen, izena entzun arte", aitortu du irabazleak.

### Denak jakinean

Goizeko saioaren ostean jaiak jarraitu egin zuen Orion. Han ziren Oñatiko bertso eskolako lagunak ere. Iluntzean bueltatu ziren herrira, eta ordurako denek zekiten txapela Maiderrek irabazi zuela. "Jende askok zoriondu ninduen. Corpus bezpera izanda parranda eguna ere bazen zapatua, eta, egia esan, kosta egin zitzaidan lagunentzako martxa jarraitzea, askorekin gelditu nintzen eta berriketan. Azkenean, gainera, ez nuen parranda handirik egin, nekaturta nengoen-eta", dio.

Orioko saioan parte hartu zuten gainerako lehiakide gehienak ezagutzen zituen oñatiarrak. "Udan bertso udalekuetan egon ginen asko, elkarrekin, Baigorri. Oholtza gainean nire ondoan nituen hirurak ere han ezagutu nituen, eta berriketan pasa genuen ia saio osoa", adierazi du. Hala ere, besteek egindako lanari ere egin zien kasu oñatiarrak: "Gaiak orokorrean egokiak izan zirela uste dut. Ariketa guztietan egon zen bertso onen bat. Gainera, ideia politikak ere entzun ziren". Gai-jartzaile taldean Gipuzkoako bertso-eskoletako gazteek hartu zuten parte, Iñaxio Usarralde eta Egoitz Aizpuru gidari zitzuztela. Epaile taldea, ostera, herrialde bakoitzeko epaile banak osatu zuten.

Atzo, Gabirian elkartu ziren finalista gehienak, Baigorriko udalekuetan egon zirenek bazkaria zuten-eta bertan. Baina abenduan bai, orduan hamaika



Maidar Arregi, txapela buruan, agurra kantatzen. | BERTSOZALE ELKARTEA



Orioko saioan parte hartu zuten bertsolariak eta antolakuntzako kideak. | BERTSOZALE ELKARTEA

finalistak elkartuko dira berriro. Izan ere, sari nagusia, aurren Gabonetako oportetaren lehenengo aldiz egingo den Bertso Negulekuetako egonaldia izan da. Lehiakide guztiendako saria izan da hori. Euskal Herri mailako negulekuak izango dira, 15-18 urteko gazteei zuzenduta. Bertan parte hartzeko aukera bertso

-eskoletako gazte guztiek edukiko dute.

### Autobusa Oñatitik

Zapatuko saioan jarraitzaile asko izan zituen oñatiarrak. "Egia esan miopia dut eta oholtza gainetik ez nuen ondo ikusten, baina lokalizatuta nituen guztiak. Alde batean kuadrillakoak, eta beste

izkina batean etxeakoak. Oñatiko bertso eskolakoak ere han ziren, autobusean joanda. Pankarta ere eraman zuten eta asko animatu ninduten", dio Arregik.

Berak bezain pozik entzun zuten irabazlearen izena etxeoketako ere: "Aitajaunak txapela eskatu zidan, berak ere janzteko. Emozionatuta zegoen".



JOSETXO ARANTZABAL

**MAIDER ARREGI**  
BERTSOLARIA

**"Uste dut txapel honek bidea markatuko didala"**

Txapela irabazi eta biharamundean erantzun dituz galderak, Oñatiko plazan.

### Zorionak.

Eskerrik asko.

### Pentsatu zenuen zurea izan zitekeela?

Saio ona egitera joan nintzen, besterik gabe. Tokatu zitzaizkidan gaiak, baina, gustukoak izan ziren, eroso abestu nuen. Saioa aurrera zihoala txapela Aitor Servier eta nire artean egon zitekeela pentsatu nuen, baina izena entzun arte...

### Oñatikoa lehenengo, Gipuzkoako eskolartekoa gero eta Euskal Herriko eskolartekoa orain. Fuerte zabilta.

Gustura nabil. Hirurek dute euren garrantzia, eta pozik nago. Azken honek nire izena zabalduko duela eta bidea markatuko didala uste dut.

### Ondoan jarriko dituzu hiru txapelak?

Ez dut toki asko, egia esan, baina amak esan dit erosiko duela kako bat hori ere paretan zintzilikatzeko, bai.

### Olatz Zabarleri eskaini gura izan diozu txapel hau.

Bai. Kuadrillakoa nuen. Duela lau urte hil zen, minbiziak jota. Beti izan dut buruan zerbait egin behar nuela, eta momentu aproposa irudi zait hau.



# Lagunartea taldeak Aramaio dantzan jarri zuen, dirua lortzeko ekitaldian

Pintxo eta tragoekin 260 euro lortu zituzten; giro ederra izan zen plazan

**JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO**  
Aramaioko Lagunartea dantza taldeak ekitaldi berezia eskaini zuen egubakoitz iluntzean. Berezia, taldearendako dirua lortzea zelako helburu nagusia eta, era berean, herritarrek izan zutelako protagonismoa. Goiko tabernetan hasi zituzten dantzak eta gero Bizente Goikoetxea plazan egin zuten erakustaldia, taldeka. Gazteenetik hasita helduenera arte, *San Petit*, *Sarian Zunzun*, *Banako* eta *Circle Cien* dantzak egin zituzten, besteak beste.

Amaileran gura zuten herritarrek dantzan egiteko aukera izan zuten: "Jendeak parte hartu zuen, pozik gaude erantzunarekin. Herria dantzan jarri dugu", adierazi du hainbat urtez taldearendako boluntario lanean aritu den Ainara Inuntziagak. Dirua lortzeko tortilla eta txistorra pintxoak

eta edatekoa jarri zuten salgai udaletxeko arkupeetan; 260 euro lortu ziren: "Bagenekien ez ginea aberats egingo, pozik gaude lortutako diru kopuruarekin". Arazo ekonomikoak honela azaldu ditu Inuntziagak: "Gurasoei kobratzen zaien kuotarekin eta

Udalaren diru-laguntzarekin ez da nahikoa gastu berriei aurre egiteko eta horregatik antolatu dugu ekitaldia". Gastuen artean dago Aitor Villarreal irakaslearen soldata. Bestalde, gazta etxera eraman zuena Unai Gartzia izan zen, pasatu barik gaztaren pisu-

ra gehien hurbildu zelako; 1.179 gramo pisatzen zuen gaztak eta Gartzia 1.175 gramo pisatzen zuela proposatu zuen.

## Dantzari aldetik, osasuntsu

Ekonomikoki ez dira garai onenak, baina partaidetza aldetik Lagunartea osasuntsu dago: "70 dantzari gora gaude eta datorren ikasturtera begira galdetzen ibili gara eta kopurua mantendu edo igotzeko aurreikuspena dugu; horrela jarrai dezala", espero du Inuntziagak.

Hurrengo dantza erakustaldia bihar, hilak 24, izango dute. Azkoaga auzoan San Juan jaiak ospatu dituzte eta mezaren ostean hasiko da ekitaldia, 12:30ean. Hurrengo dantzaldia San Martin jaietan eskainiko dute eta horrekin amaitutzat emango dute aurtenko ikasturtea.



Hainbat pintxo eta trago saldu zituzten udaletxeko arkupeetan. | J.B.



Lagunartea dantza taldeko txikiak izan ziren lehenak Bizente Goikoetxea plaza hartzen. | JOKIN BEREZIARTUA



Txistulariek jarritako erritmora aritu ziren dantzariak. | JOKIN BEREZIARTUA

**AITOR VILLARREAL**  
IRAKASLEA

"Oso gustura nabil; talde barruan dugun harremana oso sanoa da"

Ikasleen lanari adi-adi egon zen Aitor Villarreal. Adibidez, Beasaingo



*Sarian Zunzun* dantza lehenengoz egin zuten 8 eta 9 urtekoek.

**Talde bakoitzak dantza bat egin du. Zertarako?**

Egiten duguna herriari erakustez gain, herritarrek dantzatzera animatzeko egin dugu, giroa sortzeko.

**Nola doa lehen ikasturtea?**

Oso ondo. Esan duzun moduan lehen urtea da honakoa eta normalean zailagoa izaten da egokitzeak. Baina oso gustura nabil, umeekin zein gurasoekin. Esperientzia polita da, talde barruan dugun harremana sanoa da benetan.

## Olatz musika akademiak amaiera borobila ikasturteari

Olatz Urkia irakaslearekin batera, ikasleek hainbat emanaldi eskaini zituzten; Kulturaleko lepo bete zen

**J.B. | ARRASATE**

Olatz musika akademiak modu ezin hobean amaitu du 2013-2014 ikasturtea. Lehen aldiz kurto bukaerako kontzertua modu irekian eskaini zuten, goraino bete zen Kulturaleko areto nagusian. 35 ikasle ditu akademiak eta 23 emanaldi labur eskaini zituzten,



Olatz Urkia eta haren bi ikasle Kulturaleko emanaldietako baten. | IMANOL SORIANO

askotariko instrumentuekin: gitarra elektriko zein klasikoak, baxua, pianoa, zeharkako flauta... Bi ordu inguruko emanaldia izan zen, 18:00ak pasata hasi eta 20:00ak arte luzatu zen-eta.

## Ikasleendako "motibagarria"

Ikasturtean zehar ikasitakoa jendaurrean erakutsi ahal izan zuten ikasleek eta hori, Olatz Urkia irakaslearen arabera, "polita eta motibagarria" da euren dantza.

Era berean, festarekin "oso pozik" amaitu zuen Urkia: "Oso ekitaldi polita izan zen, denok oso gustura geratu ginen. Ikasleek izan zuten pazientzia txalotzekoa da. Izan ere, ez zen ohiko kontzertu bat izan, emanaldi batetik bestera hainbat aldaketa egin behar izan genituen eta jendeak oso ondo erantzun zuen. Eskertzekoa da". Ekitaldiak espero

baino jende gehiago erakarri zuten: "Oso harrera ona izan zuen ekitaldiak, aretoa goraino bete zen. Ez genuen horrenbeste jende espero", adierazi du Urkia. Arrakasta ikusita, errepikatzeko modukoa izango da, beti ere ikasleek hala gura badute.

Errepertorioari dagokionez, askotariko kantuak interpretatu zituzten ikasleek. Batetik, euskal kanta ezagunak: *Euskal Herrian Euskaraz*, *FurraFurra*, *Bagare* eta *Lau Teilatu*, besteak beste. Eta, bestetik, ingelesezko beste abesti ezagun batzuk ere bai; horien artean, *Say something*, *Imagine* eta *Hotel California*.

Aurtengoa bigarren ikasturtea izan da akademiarendako eta haur, gazte zein helduendako lekua dago. Esaterako, 88 urteko ikasle bat du Urkia: "Hori, baina, kasu berezi bat da".





Demode laukotea, Santa Ana antzokian, barikuan. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

## Lau ahots, hamaika estilo

JON BEREZIBAR | OÑATI

Euskal kantutegiko ale aski ezagunen moldaketa ezin bereziagoekin, *a capella* nahiz instrumentuekin, umorezko ikuskizun musikatua egin zuen Demode ahots-kuartetoak bariku gauean Santa Anan: *Epa!*.

Bi zatitan bana liteke ikuskizuna, kuartetoak abesti tradizionalak hartu eta askotariko estiloetara birmoldatzen dituen bata eta, bigarrena, abestiak estilo berrietara erabat birmoldatu eta euskal musikan ia landu ere egin ez diren generoetara eramaten dituen. Bigarren zati horretan asmatzen dute, hain zuzen, Demo-

dekoek, hasierako planteamendu bokaletatik urrundu eta instrumentu eta aurregrabatuz baliatu arren.

### Betikoa, ukitu berriz

Txukun abestuta ere, *Epa!*-ren lehen zatiak ezustekotik gutxi izan zuen eta esperogarrien artean koka daitezke *Bagare*-ren samba ukitua, swing goxoko *Bizkaia maite*-a ala reggae trazako *Lau teilatu*; aurretik ere Nahi ta nahiezek hamaika bider birmoldatutako eran, hain zuzen. Ezin falta, noski, *Xalbadorren heriotzean*, abeslariak erakustaldirako ondo baino hobeto baliatu zutena.

Mandatu ia, Benitoren batekin derrigor konplitu beharrean; *Baldorbarekin* beste itxura bat hartu zuen ikuskizunak, ordea.

### FITXA

KANTUA

**DEMODE AHOTS KUARTETOAREN 'EPA!' IKUSKIZUNA**

**Estiloa:** Umorezko musikala.

**Non:** Santa Ana antzokia.

**Eguna:** Barikua, ekainak, 20.

**Iraupena:** Ordu eta 20 minutu.

Ezkilen faltan trip-hop oin aurregrabatuei heldu zieten eta bardoaren zurruntasuna hautsi zuten modu bertsuan Martikorenari *Maitia galdegin zautan* afrikar polifoniadunarekin kendu zioten hautsa. Gora egin zuen hortik aurrera ikuskizunak irudimenari aske joaten utzita. Hala, proposatutako bidaian euskal musikan ausardia gutxi egon den generoetara jo zuten eta eskaini zuten dance ukituko *Behin batian Loiolan* erabat berrasmatua, adibidez. Instrumentuez gain, *beatboxing* eta ahots perkusio erakustaldiarekin eman zieten taxu erritmikoa abestiei. *Demodé* izenez soilik direla erakutsiz, egungo pop izarren moldetara ere gerturatu ziren Jack Johnsonena ematen zuen *Zea Maysen Negua joan da-eta surfero*arekin ala Rihannaren pop dantzagarriaren eran pailazo talde famatuaren

*Maite zaitut* dantzalekura eramanda. Bihurrikeria, umore ukitu eta ezusteko txiki horietan asmatzen du ikuskizunak eta burutazio guztietatik harrigarriena *Loa-loa* sehaska kantaren transformazio *bollywoodtarra* izan zen, Ken Zazpiren *Ilargia* Iggy Popen *The Passenger*-ekin nahasteko ausardiarekin batera. Amaierako pasarte animatuago hauetan agerian laga zuten zangoak ez dauzkatela ahots-kordak bezain malgu baina beharrik ere ez. Amaiera ere festa giro horrekin egin gura izan zuten baina txalo beroak eman arren, hotz erantzun zuten oñatiarrek barikuan. Hala ere, azken opari moduan sanfermin jai-tematikako popurri bat eta txapel bana eskuetan eta abanikoak bailiran Locomia estilon haizatuz, *Haika mutil*-en bertsio ero batekin bukatu zuten ikuskizuna.

## Kantu tailer berezia egin zuten musika eskolakoek eta orfeoikoek

J.B. | BERGARA

Belaunaldien arteko topaketa berezia egin zuten zapatuan Bergarako orfeoietako eta Musika Eskolako kideek. Goizean Santa Marina parrokian batu eta Orfeoi Gaztekoek eta musika eskolako kantuko ikasleek tailerra egin zuten, hiru ordukoa. 18 bat gaztetxo elkartu eta musika eskolaren umeen abesbatzaren eta Orfeoi Gazte taldearen arteko zubi lana egitea izan zen zapatuko saioko helburua. Hala, gaztetxoak Orfeoi gaztean parte hartzera animatu eta, aldi berean, Orfeoirako harrobi lanak egiten dituen taldea elikatzen joatea bilatzen da musika eskolaren eta Orfeoiaren arteko kolaborazio honekin, eten baten ostean azken bi urteotan egin izan den bezala.

Saio bereziak hiru zati izan zituen. Lehenik Orfeoi gazteak saioa egin zuen, ostean musika eskolakoak batu zitzaizkien eta

azkenik Orfeoiko nagusiek ere hartu zuten parte. Bukatzeko, kontzertua egin zuten Santa Marina parrokian.

### Orkestra, egubakoitzean

Bergarako beste parrokian, San Pedron, goi-mailako musikarekin

hitzordua egubakoitzean izan zen Bergarako Orkestra Sinfonikoak emanaldia egin baitzuen elizan bertan, joandakoen gozamenarako. Ohi bezala, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren gidaritzapean egin zuten kontzertua. Bete egin zen eliza egubakoitzekoan.



Bergarako Orkestra Sinfonikoa, San Pedron. | IMANOL SORIANO



Tailerra, Bergarako Pertxa elkartearen. | IMANOL SORIANO



Tailerreko beste une bat. | IMANOL SORIANO



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

### ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

### GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



JINKO  
VILOVA

GURE MUSIKA TALDEAK



Jinko Vilova hirukotearen promozio argazkia. | JINKO VILOVA

# "Mugimendu txiki bat sortzen ari da psikodeliaren bueltan azkenaldian"

- ▶ Zuzenekoetan ikuslea beste mundu batera eramatea lortzen dute
- ▶ 'Cru!' diskoa Interneten doan deskargatzeko jarri du hirukoteak

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Jinko Vilova hirukoteak Bartzelonan dauka egoitza; hala ere, euren artean eskoriatzar bat dago, Lander Besa baxu-jotzailea. Ez da Besak izan duen lehenengo taldea. Jinko Vilovarekin, baina, psikodeliak beste estilo batzuei ematen die eskua, eta diskoan zein zuzenean, batez ere zuzenean, bukle konstantean harrapatzen dute entzulea eta burmuineko leku ilunetara eramaten dute; bidaia bertan hasten da.

## Noiz sortu zen Jinko Vilova?

Duela lau bat urte sortu genuen taldea Carles bateria-jotzaileak, Ander gitarristak eta hirurok. Beste talde batzuetan jotzen genuen, baina talde *normalen* egitura aspertuta geunden. Kantuak sortzeko orduan ez dute zertan egitura edo patroji jakin bat jarraitu; horretatik alde egiteko sortu genuen Jinko Vilova. Nolabait, barrenak husteko bide

bezala hasi ginen hirurok jotzen; inolako aurreikuspen barik kantua sortzeko, nolabait inprobisazioan oinarrituta. Hasieratik askatasun osoz jotzea erabaki genuen, ideiak sortu eta horien gainean lan eginez egin ditugu abestiak.

## Psikodelia, kraut, progresiboa... zer egiten du Jinko Vilovak?

Horren guztiorren eta beste batzuen nahasketa bat. Hasieratik, Carles eta biok elkartu ginean, proiektuak psikodelia karga garrantzitsu bat izango zuela nahiko argi genuen. Konposatze-

ko orduan, lan egiteko erak abestian zerikusituzena duela uste dugu. Konpositoreak kantua etxean egiten badu eta gero lokalean aurkezten badu, abestiak seguruenik egitura jakin bat izango du, egitura arrazionalagoa. Gure kasuan, ordea, kantuek beste bide bat egiten dute. Jotzen dugun guztia grabatzen dugu eta ostean grabazio horiek entzuten ditugu kantua sortzeko.

## Orduan, dena grabatzen duzue?

Bai, dena grabatzerakoan, hasierako ideiak eboluzio handia izan ohi du. Entsegu guztiak grabatzen ditugu; zirriborrotik gauzak argitzen saiatzen gara, gitarraren melodiak, baxuaren linea...

## Nolakoa da orduan Jinko Vilovaren entsegu bat?

Hainbat entsegu mota daude, ez da berdina kontzertu baterako zerrenda entseutzea edo kantua egiteko prozesua. Kontzertu bate-

"Jotzen dugun dena grabatzen dugu, horrekin lan egiteko"

## ZERTZELADA



CRU!

Estiloa: Rock Psikodelikoa.

Egilea: Jinko Vilova (Bartzelona, 2012).

Argitaletxea: Tomasito Records.

Iraupena: 34:06 minutu.

Irudimena eta askatasuna ardatz

Lander Besa eskoriatzarra Bartzelonako Jinko Vilova hirukote irudimentsuko kidea eta Debagoienean (Eskoriatzako Aste Zapatistan) kontzertua egin eta gero izan dut beraien berri. Psikodelia eta postpunka lantzen dutela diote, eta egia da baina gauza gehiago daude. Lan hau osatzen duten bost kantuetan argi gelditzen da kantua eskatu ahala aritzen direla eta askatasun osoz garatzen dituzte. Erritmo sarkorak, tribalak, sorginduak, tarteka ia espiralak direnak, gitarra distorsionatuak eta tarteka jazza ere. Beste askoren artean, New Order, Sonic Youth, Flying Nun diskoetxe taldeak, Mike Watt... gogoratu dizkirate. Proposamen aske eta oso interesgarria.

IKER BARANDIARAN

rako kantua jotzen ditugu; hala ere, aurretik hogeit bat minutu erabiltzen ditugu berotzeko. Hau da, inprobisatzeko. Ostean, beste ordu erdi bat ematen dugu aurretik sortutako ideia bat lantzeko edo berria den zerbait sortzen saiatzeko. Konposatzeko entseguak badira, jo ostean asko hitz egiten

dugu. Adibidez, hamabost minutuz kantua jotzen egon ostean, hamar minutu ematen ditugu hitz egiten. Kontua da guztion sententzioak kontuan hartzea, kantua zer esaten digun aztertzea. Oso garrantzitsua da beto-eskubidea ere; hiru taldekideok kantuetan sinistu behar dugu, eroso sentitu behar dugu gure abestiak interpretatzean. Beraz, gutako edonori erritmo bat ez baldin bazaio gustatzen, beto-eskubidea dauka. Ez da demokrazia bat, bi pertsonak ezin dute bakarraren iritzia baliogabetu.

## Cru! diskoa da zuen lehenengoa.

Bai; duela bi urte grabatu genuen Wheel Sound Studioan. Tomasito Records zigilua sortu genuen diskoa kaleratzeko, eta, egia esan, harrera nahiko ona izan du. Azkenaldian psikodeliaren inguruan eszena edo mugimendu txiki bat sortu da. Besteak beste, Barcelona Psychedelic Underground kolektiboa sortu genuen, gure artean ezagutu eta gauzak errazago antolatzeko.

## Psikodelia bai, baina hippyak ez.

Esan bezala, psikodelia ardatz dugun arren, ez da ohiko psikodelia. Askotan, *psikodelia* hitza erabiltzerakoan jendeari *maitasuna, bakea* eta ideia horiek etortzen zaizkio burura. Gure musikak ez du zerikusirik horrekin, agresi-boagoa eta bortitzagoa da; kraut-rock, rock progresiboa edo punka ere bertatik dago; nire kasuan esaterako, Eskorbuto beti izango dut iparrean. Erreferente bezala, Can, Neu, Television edo James Brown ditugula esan genezake, hura da buklearen erregea!

## Zuek ere bidean zoazte.

Orain disko berria osatuko duten kantuetan lanean gabiltza, eta egia esan lan handia dugu aurretik. Material asko daukagu grabatuta eta guzti horren garbiketa egiteko prozesuan sartzeko prest gaude. Jinko Vilovaren hurrengo pausoa izango da.



**1. ETXEBIZITZAK**

**101. SALDU**

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bergaran, Askaruntzen. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komunera. Hirugarren solairua. Leihogu guztiak kanpora ematen dute. Etxea ikusteko edo prezioari buruz hitz egiteko deitu telefono zenbaki honetara: 665 70 11 95

**Bergara.** Etxebizitza salgai Ibargarai 15ean. Bi logela, egongela, sukaldia, komuna eta garaje itxia prezioaren barne. Eguzkitsua. Aukera bikaina. 215.000 euro. Interesatuok deitu telefono hauetara: 626 81 71 28 edo 678 86 50 41

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Erdigunetik gertu, bi logelako etxebizitza eguzkitsua ematen da errentan. Bikote batendako aproposa. Hilean 500 euro. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 650 40 19 95

**Zarautz.** Uda garairako, ekaina, uztaila, abuztua eta iraila, etxebizitza errentan ematen da. Hiru logela, terraza eta bi komun ditu, bat gurpildun auklan daudenentzat egokitu. Hondartzatik 10 minutura. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 649 50 64 49

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate edo Bergara.** Etxea edo estudioa hartuko nuke errentan Arrasate edo Bergaran. Hilean 300 euro ordaintzeko prest. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Bergara.** Etxebizitza txikia edo estudioa hartuko nuke errentan. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 616 39 49 91

**105. ETXEA OSATU**

**Arrasate.** Neska batendako logela bat behar dut, etxebizitza konpartituan, merke. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 666 20 06 03

**Arrasate.** Udalpe kalean logela ematen da errentan. Erretzailea ez bada, hobe. Deitu telefono zenbaki honetara: 664 13 67 44

**Bergara.** Logela ematen da errentan, sukaldia eta komunera erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaia da. Kontratu egiteko aukerarekin. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Logela Arrasaten.** Logela bat daukagu errentan emateko Uribe auzoko duplex batean. Hilean 200 euro, gastu guztiak barne: garbiketa, telefona, internet, berokuntza eta abar. 679 84 49 20 edo 677 44 82 85

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugun bilangile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

**2. GARAJEAK**

**204. ERRENTAN HARTU**

**Bergara.** Garaje bikoitza errentan hartuko nuke, ahal izanez gero, Bergarako erdigunean. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 638 73 57 37

**4. LANA**

**401. ESKAINTZAK**

**Pertsona euskalduna umeak zaintzeko.** Pertsona euskalduna behar dugularrantsalde ordu batez 7 eta 5 urteko bi ume zaintzeko. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 652 74 57 42

**BERGARA**

Sukalde laguntzailea behar da.  
Tel.: 629 26 88 51

**ZERBITZARIA**

Astebukaeratan tabernan lan egiteko pertsona euskaldun eta esperientziaduna behar da.  
Tel.: 636 25 47 27

**402. ESKAERA**

**Arrasate edo Bergara.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusi eta umeak zaindu, bulego, atari zein elkarreko garbitu edo dendarari. 943 08 14 33

**Arrasate edo inguruak.** Ekainean eta uztailan zehar umeak zaindu edo ikasketekin laguntzeko neska euskalduna gertu. 616 32 73 08

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeak garbitu edo zaintza lanetan jarduteko. Gloria. : 658 72 15 83

**Arrasate.** Emakume euskalduna plantxa eta etxeo lanak egiteko gertu. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**  
**943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak**

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.  
 Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.  
 GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO**

- **Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldututa. Denetarik/Saldututa.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).  
 Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- **Profesionalen moduluak.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).  
 Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

<p><b>1. ETXEBIZITZAK</b></p> <p>101. Saldu 102. Erosi 103. Errentan eman 104. Errentan hartu 105. Etxeak osatu 106. Bestelakoak</p> <p><b>2. GARAJEAK</b></p> <p>201. Saldu 202. Erosi 203. Errentan eman 204. Errentan hartu 205. Bestelakoak</p>	<p><b>3. LOKALAK</b></p> <p>301. Saldu 302. Erosi 303. Errentan eman 304. Errentan hartu 305. Bestelakoak</p> <p><b>4. LANA</b></p> <p>401. Eskaintzak 402. Eskaerak 403. Bestelakoak</p>	<p><b>5. IRAKASKUNTZA</b></p> <p>501. Jaso 502. Eman 503. Bestelakoak</p> <p><b>6. MOTORRA</b></p> <p>601. Saldu 602. Erosi 603. Alokatu 604. Bestelakoak</p>	<p><b>7. ANIMALIAK</b></p> <p>701. Saldu 702. Erosi 703. Eman 704. Bestelakoak</p> <p><b>8. DENETARIK</b></p> <p>801. Saldu 802. Erosi 803. Eman 804. Hartu 805. Trukatu 806. Galdu 807. Aurkitu 808. Bestelakoak</p>	<p><b>9. HARREMANAK</b></p> <p>901. Agurrak 902. Harremanak 903. Deiak 904. Bestelakoak</p> <p><b>10. RELAX</b></p>
---	---	---	---	---

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmoko.rositi.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**

- San Lorenzo 65 m<sup>2</sup>, 2 logela. Garaiea eta trasteleku aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiaurre 70 m<sup>2</sup>, 2 logela. Erabat berritua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m<sup>2</sup>, 2 logela, oso ondo. Garaiearekin. 215.000 €.
- Zabaltegi 80 m<sup>2</sup>, 3 logela, erabat berritua. Igogailua eta balkoiarekin.
- Bidekuruzeta 71 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berritua. Igogailua eta terraza handiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Madura 57 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berritua. 149.000 €.
- Zabaltegi 54 m<sup>2</sup>, 2 logela. 78.280 €. PREZIO JAITSIERA.
- Matxiategi 88 m<sup>2</sup>, 4 logela. Igogailua. Ganbara.
- Zubiaurre 104 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berria. Igogailua. Trasteleku, Terrazarekin.
- Martoko 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreta 79 m<sup>2</sup>, 3 logela, berogailua, trasteleku. Garaiea aukeran. 164.850 €.
- Iraburu 82 m<sup>2</sup>, 3 logela, berogailua. 120.000 €.
- Bidekuruzeta 58 m<sup>2</sup>, 2 logela. 35.000 €.
- San Pedro 70 m<sup>2</sup>, 4 logela. Erabat berritua. Garaiea aukeran. 138.000 €.

**AUKERA:**

- Bolu 66 m<sup>2</sup>, 2 logela. Trasteleku. Garaiea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekuruzeta 65 m<sup>2</sup>, 2 logela. Trasteleku. 100.000 € PREZIO JAITSIERAREKIN.
- Ibargarai 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua 235.000 €.
- Masterreka 73 m<sup>2</sup>, 2 logela, berogailua, igogailua. Oso ondo. 195.000 €.
- Ibarra 129 m<sup>2</sup>, 4 logela, berogailua. 150.000 €.
- Azkaruntz 75 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubiate 60 m<sup>2</sup>, 3 logela. 126.213 €. Berritua.
- Fraizkozuri 78 m<sup>2</sup>, 3 logela. Balkoia, trasteleku eta garaiearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m<sup>2</sup>, 4 logela. Berria. Oso ondo. 225.000 €.
- Ibargarai, 60 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m<sup>2</sup>, 3 logela, trasteleku eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**

- Sagasti 140 m<sup>2</sup>, duplexa. 250.000 €.
- Sagasti 86 m<sup>2</sup>, 3 logela. 163 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Behoko Auzoa 60 m<sup>2</sup>, 2 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Errekalde 94 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurritegi 83 m<sup>2</sup>. Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

**SORALUZE:**

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**

- Torrealdea 77 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Ilurbe, adosatua 150 m<sup>2</sup> + 45 m<sup>2</sup> garajea + 90 m<sup>2</sup> lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

**OSINTXU:**

- Osintxu 85 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua. Berritua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

izatzen, egun osoz edo orduka. Sonia Gomez. 632 84 02 30

**Arrasate.** Emakumea, geriatrria laguntzaile titulua duena, gertu nagusiak zaindu edo ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, inforreak dituena, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeo lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 649 37 71 26

**Debagoiena, haurrak.** Magisteritzako ikasle euskalduna eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Disponibilitate handiarekin eta autoarekin. 696 30 04 28

**Debagoiena.** Emakumea lanerako prest. Pertsona helduak zaindu, etxeo lanak egiteko eta abar. 658 31 06 20

**Debagoiena.** 22 urteko neska euskaldun eta arduratsua haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Tel.: 677 54 43 10

**Debagoiena.** Bertako neska nagusiak zaintzeko gertu. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu helduena eta umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. M. Carmen. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 617 10 33 51

**Debagoiena.** Emakumea gertu lanerako. Eskarmentua dut umeak zaintzen, garbiketara edota tailerrean. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Esperientzia handiko sukaldaria lanerako gertu: karta, menuak, pintxo eta ogitar-tekoak egiten aritutakoa. 666 83 21 95

**Debagoiena.** Neska nagusiak zaindu edota garbitasunean jarduteko gertu. Etxean bertan bizi izanda, egunez zein orduka. 610 99 70 46

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiteko eta abarretan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izanda, edo bestela. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 637 33 14 67

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten, nagusi edo umeak zaintzen, garbiketara eta abarretan lan egingo nuke. Baita asteberuetan ere. Etxean bertan bizi izanda, edo bestela. 632 54 45 25

**Debagoiena.** Garbiketarako egiten edo biltegian lan egingo nuke. Gasteizen ere lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 633 52 95 02 edo 696 38 10 07

**Debagoiena.** Mutil langile eta arduratsua lanerako gertu. Eskarmentua dut garbitasunean eta nagusiak zaintzen. Sukalde laguntzaile eta garbiketara ere jardun naiteke. Lege paperak eguneratuta dauzkat. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 632 26 01 84 edo 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizizaten. Atari eta abarren garbiketarako, eraikuntza peoi eta abarretan ere aritu naiteke. 602 07 12 06

**Debagoiena.** Mutila lan bila Debagoienean. Deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbitasunean, eta sukaldean laguntzen zein harrikoa egiten lan egingo nuke. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 634 99 05 00

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketarako egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoan ateratzeko gertu. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: umeak eta nagusiak zaintzen, taberna eta sukalde laguntzaile, zerbitzari eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 638 25 73 91 edo 943 79 80 05

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaindu edota garbiketarako egiteko gertu. Orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: denetarik garbiketarako, ume eta nagusiak zaindu etxean, ospitalean edota egoiztan, gidari, banatzaile eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696 32 13 69

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: ume edo nagusiak zaintzen eta taberna zainatarien garbitasunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 28 22 03

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: zerbizari, sukalde laguntzaile, nagusiak garbitzen edo garbiketarako orduka egiten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 17 83 21

**Emakume euskalduna edozein lanerako gertu.** Elgetan bizi den emakume euskalduna edozein lanerako gertu. Debagoienean edo inguruko eskualdeetan. Deitu 606 50 25 67 zenbakira.

**Sukaldaria.** Sukaldaria lan egingo nuke. Orduka, lanaldi osoz edota erdiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 602 46 11 63

**Txukundu eta konpundu.** Bertako mutil langile, arduratsua eta esperientziaduna prest etxeo lanak eta garbiketarako orduka egiteko. 606 74 42 37

**5. IRAKASKUNTZA**

**501. JASO**

**Trikitia.** Uztailean, Bergaran, trikitia jotzen erakutsiko didan nor bait beharko nuke. 690 77 66 03

**502. EMAN**

**Bergara.** Ingeles eskolak ematen ditu. Maila guzti-tan. HEO eta Cambridge-eko azterketak gertatzeko ere bai. Talde txikiak. Goizetan, eguerdian edo arratsaldean. 618 91 32 89

**6. MOTORRA**

**601. SALDU**

**BMW 528i salgai.** Aire girotua, kanbio automatikoak eta CD irakurgailuarekin. 610 46 99 12

**7. ANIMALIAK**

**703. EMAN**

**Txakurkume polita.** Txakurkume emea, txuribeltza, txikia, bi hilabete-koa, alai, familia bila dabil. Umeentzako oso aproposa. 661 45 02 96

**8. DENETARIK**

**802. EROSI**

**Lijagailua eta martinetia.** Bigarren eskuko zintzako lijagailua eta martinetia (mailu pilaio) erostea interesatzen zait. 635 00 69 26

**Ordenagailua.** Mahaigaineko ordenagailua erosiko nuke. 656 75 76 98

**Ortua.** Ortu txiki bat egiteko terrenoa erosiko nuke. Aretxabaletan. 606 56 97 49

**806. GALDU**

**Patinetea galdu.** Oxelo etxeo Freestyle patinete morea galdu genuen duela hilabete edo gehiago. Mutiko batena denez, asko eskertuko genuke aurkitu duenak bueltatu-ko balu. Eskerrik asko. 667 53 40 07



## ETXKO SUKALDERAINO

## Manex Agirre | Bertsolaria

- ▶ Arabako bertsolari eta bertsozaleek osatzen duten komunitateko kide da
- ▶ Kostatu arren, ezetz esaten ikasi du eta eszedentzia hartu du 2014an

## "Bertsolaritza bizimoduaren ispilu da eta gu mahai inguruan elkartzen gara"

MIRARI ALTUBE | ARAMAIO

Debagoieneko bertsolari ezaguna da Manex Agirre (Aramaio, 1982), nahiz eta aurten gutxiago ikusiko dugun bertsoan, eszedentzia hartu duelako. Euskara teknikaria da, eta Gasteizen bizi ostean Aramaion da bueltan.

### Zelakoa da Manex Agirre?

Hori galdera korapilatsua. Gertuko, esango nuke; eta pazientzia handikoa ere bai, baina galdutakoan nahiko jasanezina.

### Ze harreman duzu sukaldearekin?

Etxean neuk dut sukaldeko ardurara, baina filigrana handirik egiteko astirik ez. Hala eta guztiz, gustuko ditut sukalde kontuak.

### Zure espezialitatea sukaldean?

Patata-tortilla.

### Zertara gonbidatuko zenuke lagun-nik onena?

Gonbidapenik onenak mahai baten bueltan esertzeko izaten dira; lehenengo afari on batera eta gero kontzertu batera.

### Eta etsairik handiena zertara?

Mahai baten bueltan esertzera hura ere; seguru asko, ostiaka bukatuko genuke, baina, behintzat, argi utzi kontuak.

### Zeinek gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan eseri?

Konfiantza ematen duen baten batekin. Hortaz, aspaldi ikusi

bako lagun zaharren batekin elkartuko nintzateke gustura.

### Bertsolariak eta bazkari-afariak, bikote banaezina?

Gure bizimoduaren ispilu da bertsolaritza eta guk zorte hori dugu, mahaiaren bueltan elkartzen gara. Dena den, bertsolaritzak aurpegi asko ditu eta bat da hori.

### Zergatik bertsolaria?

Orain dela hamar urte beste zerbait esango nuen, baina orain komunitate oso aktibo baten par-

te sentitzen naizelako, Arabako bertsolariak eta bertsozaleak. Eta jendearekin komunikazio zuzena lortzea oso gustuko dudalako.

### Bertsolari izena noiz da karga?

Hiruzpalau saio ez doazenean ondo, publikoarekin ez denean harreman sana lortzen: inertziak jokatzen duenean norberak; inertziak publikoak... Eta jendeak 24 orduko bertsolari moduan ikusten zaituenean ere bai.

### Bertsolariak badaki ezetz esaten?

Askok kostatu zait hori ikastea, baina bai. Urteak aurrera, argi-ago ikusten dira kontuak.

### Semeak ez du bertsoen gaineko ezer jakin gura...

Ezer jakin gura ez badu, kezka puntua sortuko zait, bertsolaritza estimatzen erakutsi ez diodalako. Baina interes falta badu, ez nau batere kezkatuko. Gainera, hain urrun ikusten dut hori...

### Gustuko ez duzunik bertsolaritzan?

Inertzia, bai bertsolarien, bai bertsozaleen aldetik; erru konpartitua dago. Askotan, kosta egiten zaigu bertsoan txarto egin eta hori onartzea, eta, era berean, beste bati esatea: "Ez zaude punturik onenean". Berrikuntza gehiago, gauzak aldatzeko proposamen gehiago egon beharko liriteke.

### Gasteiz ala Aramaio?



**Lehen platera:** Txirlak marinela-erara.

**Bigarrena:** Lupia laban.

**Postrea:** Txokolatzeko tarta.

**Edatekoa:** Errioxako ardo zuria.



Manex Agirre bertsoan. | GOIENA

## "Jendeak 24 orduko bertsolari moduan ikusten zaituenean karga bihurtzen da"

Biak.

### Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute.

Gura dudana egiteko denbora eta askatasuna; eta luze eta ondo bizi izatea. Bi horiekin konforme.

### Zure bizitzako anekdota bat.

Gasteizen bertso eskolan hasi ginean, bertsozale sutsuak ginenean, tabernetan elkartu eta bertsoan egiten genuelako izan ginen eza-gunak. Musika topera egon arren, bospasei elkartu, burua jaitsi eta bertsoan hasten ginen. "Ze zoro

kuadrilla dira hauek", zioten... **Bertsolaritzan jarraitzeko zer da ezinbestekoa?**

Gogoia eta dedikazioa. Eta asmatzen ez duzunean sinistea hurrengoan buelta emango diozula.

### Damu zara...

Bertso saio batzuei baietz esan izanaz, hasieratik ikusita ez zirela ondo aterako.

### Zer errepikatuko zenuke?

Orain, momentuan, saio on bat. **Zerk beldurtzen zaitu?**

Aparteko ezerk.

### Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...

Ez dut denborarik sofarako. Bazkaldu eta umearekin martxa.

### Nora ospa egingo zenuke gustura?

Berlinerak.

### Ze aholku konpartituko zenuke?

Ezer ez dela derrigorrezkoa, eta denbora aprobetxatzeko.

## PATRIZIAREN GUTZIA



Patrizia Vitelli

## ENTSALADA FRESKOAK

Zapatuan, 12:51n, udan sartu gara, eta aurrerantzean sarriago tokatuko zaigu egunotan izan ditugun moduko berotasunak pairatzea. Halako kasuetan, zenbait detaile zainduz gero, berotasun hori nahiko eramangarriago egitea posible da. Eta detaile horietako bat, garrantzitsua, gainera, zer jaten dugun da. Zenbat eta arinago jan, eta elikagaiak ur gehiago izan, orduan eta freskoago eta gorputzarendako hobeto.

### Lan gutxi

Bada, hortik abiatuta natorkizue gaurkoan entsaladen aldeko *propaganda* egitera. Bi proposatuko dizkizuet, zein baino zein egiteko errazagoak. Ze hori ere kontuan hartu behar da-eta berotasun handiarekin: lanerako gogo gutxi izaten dela.



Bakailao ketu entsaladak kolore ugari hartzen ditu. | THE COOK ROCKER



Patata eta izokin entsalada, freskoa bezain osasuntsua. | THE COOK ROCKER

## Fitxa

- ▶ Denbora: 20 minutu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★

### BAKAILAO KETU ENTSALADA

- ▶ Rukula, eskukada bat.

- ▶ Piper gorria.

- ▶ Ahuntz-gazta.

- ▶ Bakailao ketua.

- ▶ Oliba-olioa.

- ▶ Ardo-ozpina.

- ▶ Tomatetxoak edo tipulinak ere erabili ahal dira.

### PATATA ETA IZOKIN ENTSALADA

- ▶ Patata txikiak, egosteko.

- ▶ Izokin ketua.

- ▶ Creme fraiche, bi koilarakada.

- ▶ Tipulatxoak.

## Prestaketa

### BAKAILAO KETU ENTSALADA

**1.** Eskukada bat rukula edo berde kolorekoren bat (letxuga, espinakak...) plateraren erdian jarri.

**2.** Ahuntz-gazta birrindua bota bertara.

**3.** Egositako piper gorria tiratan jarri. Eta gehitu bakailao solomo bat, zatituta.

### PATATA ETA IZOKIN ENTSALADA

**1.** Patata txikiak egosi. Pertsona kopuruaren arabera beste. (Lanerako gogo gutxi izanez gero, egositako eta zuritutako patata-poltsa eros daiteke)

**2.** Izokin ketua tiratan zatitu.

**3.** Izokina pataten gainean jarri.

**4.** Creme fraiche eta tipulina gehitu. Eta kito!



Ekain Martinez Lizarduikoa | 'Karena.net' plataformaren sortzaileetako bat

## "Euskal Herrian beti egon da elkarlanean lan egiteko ohitura"

- ▶ Euskal Herrian sortutako lehenengo 'crowdfunding' sarea da 'karena.net'
- ▶ Proiektu bat martxan jarri nahi duenak dirua bildu ahal izango du bertan

JULEN APERRIBAI | ARRASATE

Martxan jarri den Interneteko sare berri bat da *Karena.eu*. Plataforma euskaldun horrek *crowdfunding* bidez proiekturen bat aurrera eramateko finantzazioa lortzea ahalbidetuko du. Ekimen horretan parte hartu du Aretxabaletan bizi den Ekain Martinez Lizarduikoa donostiarrak.

**Zertan datza *Karena.eu*?**

Beste edozein *crowdfunding* plataformak egiten duen moduan, gureak ere harremanetan jartzen ditu proiektu bat aurrera eraman nahi duen edonor eta proiektua aurrera irten dadin interesa duen jendea. Proiektuak Internetera igotzen dira eta guk erakusleho funtzioa egiten dugu. Sareaz lagundurik, jendeak interesekoak dituen proiektuak diruz lagundu ditzake.

**Geroz eta proiektu gehiago finantzatzaren dira modu honetan. Horrek eragina izan du ekimen hau aurrera eramateko erabakian?**

Argi dugu Euskal Herrian beti egon dela elkarlanerako ohitura. Hemen aspalditik dagoen lan egiteko modu bat da *crowdfunding*-a. Teknologia berriek jende askorengana iristeko aukera ematen dute, eta horrelako zerbaitegitea bideragarria dela pentsatu genuen.

**Esan daiteke, beraz, aitzindariak zaretela?**

Euskal Herri mailan hala esango



Ekain Martinez Lizarduikoa, Goiena Telebistako platoon. | GOIENA

**"Internetera igotako proiektuen erakusleho lana egiten dugu guk"**

nuke, tresna hau euskara hutsean eta Euskal Herriko ikuspegi batekin sortu baitugu.

***Karena.eu*-ren atzean dagoen taldea nortzuk osatzen duzue?**

Hiru kide sortu dugu plataforma.

**"Proiektua aurkezten dutenei gomendioak ematen ahalegintzen gara"**

Gure artean oso desberdinak gara eta gutako bakoitzak bere lanbidea du. Elkartzea erabaki genuen, eta hau da emaitza.

**Zein eratako proiektuek dute lekua zuten sarean?**

Hizkuntza bezala euskara darabilten eta, modu batean, ondare sozial bat izango duten proiektuak lehenetsiko ditugu. Horrek ez du esan nahi momenturen batean bestelako proiektuek lekurik izango ez dutenik. Orain arte aurkeztu diren proiektuen artean, beste batzuen artean, musika talde batek kaleratu nahi duen lehenengo diskoa edota dokumental bat ekoiztea ditugu.

**Norbaitek bere proiektua aurkeztu nahi badu, zer egin behar du?**

Plataformaren web orrian erregistratu behar da eta bertan formulario bat dago erantzun beharreko zenbait galderarekin. Aurkeztu nahi den proiektuaren nondik norakoak azaldu behar dira. Behin hori eginda, gu saiatzen gara aholkulari lana egiten eta zein bide hartu gomendatzen. Proiektua azkenean sareratzen bada, kideek 40 eguneko epea izango dute aurreikusitako aurrekontua biltzeko. Nahiko diru eskuratu ezean, ezingo dute jasotakoaren jabe egin.

***Karena.eu*-k badu beste atal bat ere, Oilategia izenekoa. Zer da?**

Plataforma sortu arteko prozesua oso parte-hartzailea izan da, eta jendearen ekarpenak jaso ditugu martxan jarri aurretik ere. Ekarpent horien artean proposamen bat iritsi zitzaigun, Euskal Herriko auzolan proiektuen mapa bat sortzearena. Oilategiarekin lortu nahi duguna iniziatiba horien guztien bozgorailu izatea da, eta baita iniziatiba horien artean zubiak eraikitzea ere.

**Erabiltzaileen batek hor ikusitako proiekturen bat laguntzeko aukera izango du, beraz?**

Hori egin ahal izango du, bai. Gainera, foroaren bidez erabiltzaileak bere kezka azal ditzake eta mezularitza zerbitzuaren bidez zuzenean harremanetan jarri.



Appleren erlojuaren diseinu batzuk. | FLICKR

## Apple-en erloju adimenduna urrian jarriko dute salgai

Enpresa estatubatuarrak bere proiektu arrakastatsuenetako bat izatea espero du

J.A. | ARRASATE

Apple enpresa ezaguna azken prestaketak egiten ari da datorren urrian bere lehenengo erloju adimenduna prest izateko. Hala eman du aditzera *Nikkei Asian Review* egunkari asiarrak.

**Hainbat berrikuntza**

Izango dituen ezaugarri teknikoak oraindik zehazteko badaude ere, aparailuak pantaila kurbatua izango duela jakina da. Besteak beste, erabiltzailearen osasunari buruzko datuak jaki-

teko ematen duen aukera dago: odoleko glukosa kopurua, lo egindako orduak edota kontsumitutako kaloria kopurua zenbaterako den jakitea ahalbidetuko du.

Inbertitzaileen presioak eraginda, Apple-ko kontseilari delegatu Tim Cook-ek aurtengo urterako "produktuen kategoria berriak" iragarri zituen. Izan ere, konpainiaren diru-iturriak oso onak izan arren, produktu izar baten beharra zegoela uste zuten inbertitzaileek.

**Apple ez da aitzindaria**

Badirudi Apple-en produktu izarretako bat izan den iPod desagertze bidean dagoela eta gailu horretarako erabilitako teknologia adimendun erloju horretarako erabiliko dela.

Produktu horren salmenta beste konpainia batzuk euren erlojuak aurkeztu ondoren hasiko da, eta kompetentzia izaten ahaleginduko da. Sonyk eta Pebblek, esaterako, orain dela urte batzuk aurkeztu zituzten euren erlojuak. Samsung, LG eta Qualcomm-en diseinuak, berriz, beranduxeagoak dira.

## Facebookekin zein iragarki ikusi nahi diren aukeratu ahal izango da

Erabiltzaileak sare sozialean zer publizitate mota jaso nahi duen aukeratu ahal izango du hemendik aurrera, *Ad preferences* aukeraren bidez. Bertara joateko, Facebookeko edozein iragarkitan klik egin eta erabiltzailearen intereseko gaiak zein diren zehaztu behar da. Hala azaldu du sare sozial arrakastatsuek komunikatu baten bidez.

## Googlek 'Project Loon' erabilgarri nahi du 2015erako

Internetarako sarbidea globo aerostatikoaren bidez eskaintzeko Googleren *Project Loon* izeneko proiektuak datorren urtean argia ikusiko duela espero du enpresa estatubatuarrak. *Wired* aldizkarian kaleratutako informazioaren arabera, "herrialde batean edo hainbatetan" erabili ahal izango da.

## Telefono lineak 'zalatuta', Vodafonek onartu duenez

J.A. | ARRASATE

Konpainia erraldoiak berriki aditzera eman duenez, lan egiten duen 29 herrialdeetako elkarrizketak grabatu egiten dira, agentzia sekretuek entzun ditzaten.

*The Guardian* egunkari britainiar ezagunak kaleratu zuen Vodafonek gai horren harira ateratako txostena. Gobernuak erabiltzaileen telefono-elkarrizketak eta haien datuak nola manipulatu eta biltzen dituen azaltzen da bertan.

Vodafonetik esan dutenez, operadoreen sareetara konektatutako kable batzuen bidez egiten da elkarrizketen grabazioa, eta, zenbait kasutan, baita hitz egiten ari diren horien lokalizazioa ere. Ezkutuko mekanismo horiek 29 herrialdeetan daudela jakinarazi dute. Herrialde horietan guztietan ditu sareak Vodafonek, eta, horietako bakoitza zein diren zehaztu ez duen arren, jakina da Espainian eta Frantzia konpainiak zerbitzuak eskaintzen dituela. Dena den, emandako informazioan esaten denez, zerbitzuak eskaintzen dituen herrialde gehienetan gobernuak legalki jakinarazi behar dute bezeroen informazioa iristeko. Horretaz gain, gobernuak dei egin die "informazioarako sarbidea arrazoi legalengatik soilik" eman dadin.

**Espioitza, egoitzetatik**

Vodafonek kaleratutako txostenak dioenez, herritarren jarduerak egunero ikuskatzen dira eta inteligentzia-agentziek aukera dute operadoreak ohar-tu gabe hainbat informazio lortzeko.

Hala ere, zabalduetako informazioak zalantza jartzen du bertsio hori. Espioitza operadoreen egoitzetatik egiten dela kaleratu dute hainbat hedabidek. Kasu horretan, operadoreetako langileek erantzukizun handia izango lukete, informazio mota hori zabaldu edo argitara emateak zigor penalak ekar baititzaizke.



Vodafone-ren logoa. | FLICKR



TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



13.000 arrazo

**Z**ein erraza den zurea ez den dirua xahutzea! Erakunde publikoak horretan adituak dira, eta, noski, beste enpresa publiko askok moduan, TVEk ere horretan ibilbide luzea dauka, bai horixe!

Arimaren transmutazioa eta tankera horretako hamai-ka hanka-sartze egin eta gero, badirudi Marilo Monterok, behera egin baino gehiago, gora egin duela, eta *prime time* preziatuan saio berri bat eman diote. Askok ez duzue *El pueblo mas divertido* eza-gutuko; izan ere, bere estreinaldian %8ko *share* negargarri batekin konformatu behar izan zuen.

Itxuraz, Marilok ez baldin badu hanka sartzen, ez du gehiegirik saltzen. Kontrara, baina, erosteko orduan negozi- zianta galanta da. Lizarrakoak ongi baino hobeto negoziatu du bere katxea eta programa bakoitzeko 13.000 euro jasoko ditu. Ez dakit zein izango den herririk dibertigarriena, bai- na argi dago aurkezle argiena Montero andereñoa dela.

Bien bitartean, RTVEren zuloa handitzen doa. Zoritxarrez, baina, *mastodonte* publiko-ko aurkezle eta izarrak irentsi aurretik, zuloak zergen bidez gure poltsikoko dirua jango du.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 23



'Harmailatik'

Atleta on ugari lehiatu ziren Oñatiko XII. Herri Lasterketak emandakoa, besteak beste, kirol saioan. | 19:30

- 12:00 Ikusi irratia
- 12:45 Tripa-zorri
- 13:30 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Araba Euskaraz
- 15:35 Ikusmira
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Kantari
- 17:30 Atik Zra
- 18:20 Ikusmira
- 18:25 Zorion Agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Amaia DJ
- 19:30 Harmailatik
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Harmailatik
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Gurean gaur
- 23:50 Debagoiena zuzenean
- 00:20 Harmailatik

MARTITZENA, 24



'Berriak'

Egunean zehar gertatutako albiste garrantzitsuenak batuko dira Monika Belastegiren albistegian. | 14:30

- 12:00 Harmailatik
- 12:30 Tripa-zorri
- 13:10 7 akorde
- 13:35 Amaia DJ
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Harmailatik
- 15:30 Onein
- 15:55 Zorion Agurrak
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Kantari
- 17:00 Ikusmira
- 17:10 Araba Euskaraz
- 17:50 Ikusmira
- 18:25 Zorion Agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Kantari
- 19:30 7 akorde
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 7 akorde
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Gurean gaur
- 23:50 Debagoiena zuzenean
- 00:20 7 akorde

EGUAZTENA, 5



'Harira'

Euskadiko Orkestrako zuzendari nagusi ohi Iñigo Alberdi elkarrizketatuko du Eneko Azkaratek. | 19:30

- 12:00 Atik Zra
- 12:50 Onein
- 13:25 Harmailatik
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Tertulia
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Kantari
- 17:30 Tripa-zorri
- 18:10 Aniztasunean bizi
- 18:30 Berriak
- 19:00 Harmailatik
- 19:30 Harira
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Harira
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Gurean gaur
- 23:50 Debagoiena zuzenean
- 00:20 Harira

EGUENA, 26



'Amaia DJ'

Gaztetoek Whatsapp edo sare sozialen bitartez eskatutako kantuen bideoklipak eskainiko dira. | 19:30

- 12:00 Harira
- 12:30 Araba Euskaraz
- 13:10 Ikusi irratia
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 7 akorde
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:30 Harira
- 18:00 Ikusmira
- 18:30 Berriak
- 19:00 7 akorde
- 19:30 Amaia DJ
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Amaia DJ
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Gurean gaur
- 23:50 Debagoiena zuzenean
- 00:20 Amaia DJ

EGUBAKOITZA, 27



'Sukaldaritza'

Sukaldaritza kontuak ekarriko ditu, beste behin, Julen Iriondo kazetariak *Debagoiena zuzenean*-era. | 20:00

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Ikusmira
- 12:50 Atik Zra
- 13:35 Zorion Agurrak
- 13:35 Kantari
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Onein
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 16:30 Berriak
- 17:50 Araba Euskaraz
- 18:30 Berriak
- 19:10 Jaiak: Arrasateko jaiak
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Jaiak: Arrasateko jaiak
- 22:45 Debagoiena zuzenean
- 23:15 Berriak
- 23:45 Gurean gaur
- 00:05 Debagoiena zuzenean
- 00:35 Jaiak: Arrasateko jaiak

ARRASATE IRRATIA

'Igo autobusera!' saioak egubakoitzean esango du agur

Ikasturteko azken ibilbideak egingo ditu asteon *Igo autobusera!* irratsaioak. Astelehene- tik egubakoitzera bitartean 10:00etan eskaintzen da saioa eta ikasturte honetako azken saioa izango da egubakoitzeko-koa. Hilaren 30etik aurrera, *Uda giroan* irratsaioak hartuko dio lekukoa.

Sanjuanetako protagonistak Arrasate Irratian

Txosna batzordeko Ane Zua- zubarrek kontatuko du gaur, astelehena, *Igo autobu- sera!* irratsaioan asteburuko ekitaldiak nola joan diren. Astean beste protagonista batzuk ere izango dira irrastian, eta egubakoitzean, Kultura zinegotzi Kepa Urteagak jaien balorazioa egingo du.

Txapelpunk taldearen disko bat zozketatuko dute egubakoitzean

*Los mejores de los peores* ize- neko Txapelpunk taldearen diskoa zozketatuko dute Arrasate Irratian egubakoitz honetan. Hamalau kantu ditu diskoak eta entzuleen artean zozketatuko da. Parte hartze- ko, deitu 943 25 05 05 telefo- nora edo idatzi *irratia@goie- na.com* helbidera. Animatu eta zorte on, entzule!

TELE-ALBISTEAK

Arrasateko San Juan jaietako festa giroa Goiena telebistan

Eguneko ekintzak 'Debagoiena zuzenean' saioan emango dituzte; egubakoitzean, berriz, saio berezia

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE  
Aste honetan Arrasateko San Juan jaiak ematen dutena jasoko da Goiena telebistan. Imanol Gallego eta bere alkandora hasi dira kalean gora eta behera festa giroa jasotzeko. Hain zuzen, asteleheneko, martitzeneko eta eguazteneko *Debagoiena zuzenean* saioan (20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean) ikusi ahal izango dira jaietako egunek ematen dituzten momenturik dibertigarrienak. Gaur, astelehena, adibidez, zapatuan egin zen dragoi janean zegoen giroa jasoko da eta gaur

Uarkapen egingo den herri baz- karian eta makala jasotzeko uean ere izango da Gallego mikrofo- noarekin. Martitzeneko saioan, berriz, gaur egingo den errementari- dantza, Herriko Plazako San Juan sua eta nagusien danborrada ikusi ahal izango dira. Baita mar- tizeneko entzierroa eta Arrasa- teko kaleetan zehar Erraldoi eta Kilikien Konpartsak egingo duen kalejira ere. Eguaztena, oster, haur eta gaztetoen festa eguna denez, ueek izango dute protagonismoa



Zapatuan egin zen dragoi janeko argazki bat. | GOIENA

Egubakoitzean jaien saio berezia ikusgai 19:15ean eta 22:00etan

*Debagoiena zuzenean* saioan. Horrenbeste denbora itxaroten egon ostean, txikitxoek Eguz- kilarurekin egoteko aukera izan- go dute eta Goiena ere bertan izango da. Biterin eta Zaldibarren egongo diren jolasguneetan ger-

tatutakoak ere jasoko dira tele- bistarako. **Saio berezia, egubakoitzean** Hori guztia eta gehiago jasoko dituen jaien saio berezia, berriz, egubakoitzean eskainiko dute.



## ZORION AGURRAK



**ARRASATE**  
**Ainara Manjon Vicente**  
Ekainaren 29an, 8 urte.  
Zorionak aitaren, amaren eta Paularen partetik!



**BERGARA**  
**Sara Balentziaga Galfarsoro**  
Ekainaren 28an, 12 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo pasatu zure egunean eta muxu bero bat zure familia guztiaren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Nora Cantera Herrasti**  
Ekainaren 27an, 6 urte.  
Zorionak, potxoli eta patxo handi bat familiako guztien partetik.



**ARETXABALETA**  
**Markel Barandiaran Otxoa**  
Ekainaren 26an, 2 urte.  
Zorionak! Bi kandelaxori putz egiteko momentue ailegatu da! Zenbat trastada eta zenbat poztasun... Ondo-ondo pasatu! Familixakuek.



**ARRASATE**  
**Julene eta Irati Unamuno Garzia**  
Ekainaren 26an, 8 urte.  
Ondo pasatu Parisen zuen zortzigarren urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko guztien partetik.



**OÑATI**  
**Aratz Idigoras Lopez**  
Ekainaren 25ean, 3 urte.  
Zorionak, politxo!  
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian eta besarkada potolo bat etxeko danen partetik, batez ere Oier eta Maren.



**OÑATI**  
**Paul Montero**  
Ekainaren 24an, 6 urte.  
Zorionak, maittia!  
Dagoeneko sei urte!  
Munduko laztanik beruena zuretzat! Asko maitte zaitugu!  
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian!



**ARRASATE**  
**Magali Manzano Fernández**  
Ekainaren 23an, 10 urte.  
Zorionak eta patxo handi bat gurasoen eta familiaren partetik.



**ESKORIATZA**  
**Aimar Azkarate Ruiz**  
Ekainaren 23an, 7 urte.  
Oso ondo pasatu eta opari asko jaso. Muxu handi bat aitaxoren, amatxoren eta Eleneren partetik.



**BERGARA**  
**Xabier Igartzia Amasorrain**  
Ekainaren 22an, 10 urte.  
Zorionak, artista! Patxo handi bat etxeko guztien partetik eta ondo-ondo pasatu oporretan!



**ARETXABALETA**  
**Haizea Zabala Cabero**  
Ekainaren 22an, 6 urte.  
Zorionak, guapisimo! Ze handi ein zaren! Oso ondo pasatu zure egunian eta muxu asko aitaren, amaren, Egoitzen eta Izadiren partetik!



**OSINTXU**  
**Unai San Vicente Aizpuri**  
Ekainaren 22an, urtebete. Zorionak eta patxo handi bat familia guztiaren eta, bereziki, Nahiaren, Anderren eta Xareren partetik.



**ARRASATE**  
**Izadi Ramos Zumalde**  
Ekainaren 21ean, 7 urte.  
Zorionak, Izadi!  
Laguntzoz inguratuta ospa dezazula. Patxo handi-handi bat etxekuen partetik, eta handixenak Igartzen eta Iraiaren eskutik!



**ARRASATE**  
**Ane Urrutia Arizmendi**  
Ekainaren 21ean, 4 urte.  
Zorionak, maitxia! Oso ondo pasatu zure egunian! Muxu handi bat etxekuen partetik!



**BERGARA**  
**Yasmina Moreno Escobar**  
Ekainaren 21ean, 24 urte. Zorionak, tia Yasmi! Eskerrik asko gurekin hain ondo portatziagatik. Ondo pasatu zure eguna. Muxu asko.



**ESKORIATZA**  
**Unax Aramendi Altuna**  
Ekainaren 21ean, 3 urte.  
Zorionak, pipiolino!  
Patxo pila bat jaso etxeko guztien eta, batez ere, asko-asko gura zaituen Iradiren partetik. Mua! Maite zaitxugu!



**ARETXABALETA**  
**Julen eta Markel Larrinaga Sierra**  
Ekainaren 20an, 5 urte. Zorionak etxeko guztien partetik eta patxo handi bana. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunean.



**BERGARA**  
**Maddi Elkorobarrutia Berezibar**  
Ekainaren 20an, urtebete. Zorionak, Maddi! Ondo pasatu zure urtebetetzean eta muxu handi bat familia guztiaren eta, bereziki, Hodeiren partetik.



**ESKORIATZA**  
**Leixuri Herruzo**  
Ekainaren 20an, 18 urte. Zorionak eta urte askotarako kuadrilako danon partetik, Leixar! Oso ondo pasatu zure egunien eta topera disfrutatu eguraldixa be lagun daukozu-eta! Ospakizunak Sanpedrotarako itxiko ditxugu... kar kar! Patxo potolo-potolo bat eta 18 belarri tirakada fuerte kuadrilako bakoitzaren partetik.



**OÑATI**  
**Iñaki Alonso Agirre**  
Ekainaren 18an, 12 urte. Zorionak, artista! Ondo pasatu zure eguna eta muxu asko etxeko danen partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Sar zaitetz [Goiena.net](http://Goiena.net) atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko  
11:00ak arte  
jasotako zorion agurrak  
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak  
hurrengo astean  
argitaratuko ditugu.



**JAIOTAKOAK**



**Unai Zangitu Garmendia**

Bergara 3,480 Kilo. Ekainaren 18a. Gurasoak: Oihana eta Ion. Argazkian, Unai txikia lasai-lasai.



**Garazi Blazquez Sasieta**

Bergara 2,500 Kilo. Ekainaren 20a. Gurasoak: Irati eta Iñigo. Argazkian, Garazi jaioberria.



**Ainhoa Herran Linazisoro**

Bergara 3,290 Kilo. Ekainaren 16a. Gurasoak: Aintzane eta Rafa. Argazkian, Ainhoa sehaskan lo.

Guraso berriei **EROSKI** hipermerkatuaren partetik, **zorionak!**  
 Eroskik zuen lehen beharretarako, **OPARIA\***  
 egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Arrasateko hipermerkatua  
**EROSKI**  
 zurekin  
 Musakola 11 ARRASATE  
 Tel.: 943 71 10 30  
 \* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat



**Naia Barriocanal Fernandez**

Arrasate 3,400 Kilo. Ekainaren 16a. Gurasoak: Jone eta Edu. Argazkian, Aitor eta Naiara osaba-izebekin.



**Lara Jarilla Fernandez**

Arrasate 3,300 Kilo. Ekainaren 14a. Gurasoak: Soledad eta Sergio. Argazkian, lara jaioberria.



**Pello Alzola Loiti**

Arrasate 4,090 Kilo. Ekainaren 16a. Gurasoak: Nerea eta Haitz. Argazkian, Pello sehaskan lo.

**Jaio da!**

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENaren ordezkarietza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



**Nayla Maria Custodio Callejar**

Arrasate 3,800 Kilo. Ekainaren 13a. Gurasoak: Geraldynne Alexandra eta Gabrie. Argazkian, nebarekin eta amarekin.



**Luken Horrillo Tierno**

Arrasate 3,370 Kilo. Ekainaren 15a. Gurasoak: Marisa eta Agustin. Argazkian, Luken txikia adi-adi.



**Nahia Lamadrid Ramos**

Arrasate 3,060 Kilo. Ekainaren 14a. Gurasoak: Tatiana eta Oscar. Argazkian, Nahia jaioberria amarekin.

**DENBORA-PASA**

**HITZ GEZIDUNAK**

	Otsaila	Landare mota	Danimarkako
* Arrasateko elizatea		Eraikin mota	Nirñir eginez
Arnas hartze hertsatu			
Asiako estatua			
Adaxkak	Hori bera		
Herri baxenabartarra	Gozoki handia		
Zuberoako hiria		Iridioa	
Mongolen etxebizitza		Saindu	
Ate, hitz elkarteetan		Estrontzioa	... egin, goitik ari
Izandunak		Errep., txori mota	
		Krako	
		500	

**BILA-BILA 7**

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



**SOLUZIOAK**

**HITZ GEZIDUNAK**

Π	K	V	И	D	Π	И	V	K
■	V	I	V	■	K	V	K	O
Λ	Π	B	I	V	■	Σ	B	■
■	W	V	Π	Г	E	■	I	B
B	I	I	H	I	B	I	И	V
■	K	■	B	E	B	O	B	I
	■	■	Σ	O	I	И		
			B	E	D	O	И	V
			■	Σ	■	K	■	D

**BILA-BILA 7**





AI, ENE!

## Espainia monarkia ez, errepublika balitz...

Gaurkotasuneko bi kontuk bat egiten dute kamiseta horretan: errepublikaren eta monarkiaren arteko eztabaidak eta futbolak. [www.unonueveocho.es](http://www.unonueveocho.es)



ASTEKO DATUA

# 11.000

BIDEOJOKO

553.985 euroren truke saldu du Michael Thommasonek Guinness liburuaren arabera munduko bideoeko bilduma handiena dena.

Bat bera ere ez ei dago errepikatura, eta 11.000 aleetatik 2.000 ez ditu inoiz ere ireki. [www.abc.es](http://www.abc.es)

EGURALDIA



Max. 26°

Min. 15°

Zaparrada trumoitsuak botako ditu goizaldean eta egunaren bigarren partean. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2014-06-23

HAMARREKOA

**Roberto Moso** 70eko hamarkada amaieran Santurtzin sortu zen Zarama taldeko abeslaria Radio Euskadin dabil 'Leit Motiv' eta 'Aquí Macondo' aurkezten eta hainbat saiotan kolaboratzen | TXOMIN MADINA

## "Zarama ez da musika talde bat soilik, lagun talde bat baizik"

**1. Abeslaria, irrati esataria... Zenbat denbora eman duzu gehienez mikrofono aurrean jarri barik?**  
Oporretan nagoenean egoten naiz hilabete mikrofonoa ukitu gabe, eta ez beti! Mikrofonoarekin ezkondu nago, bai.

**2. Leit Motiv saioa aurkezteko diozue musika ona entzuteko motibo zehatzik ez dela behar. Zer da zuretzat musika ona?**

Hori galdera! Esango nuke dela bakoitzak kalitatezko musikatzat duena, eta hori errespetatu behar da; norberaren baitan dago. Gustuak ere aldatzen dira, gainera.

**3. Zerk piztu zuen Zarama sortzeko sua?**

Rock-and-rolla entzuten genuen, baina kantaldiak ere bai: asteburu baten Benito Lertxundi eta hurrengoan Leño. Biak batu eta euskaraz abestea erabaki genuen, jorrazteko bidea zegoela ikusi genuen-eta.

**4. Talde batek bere buruari Zarama izena jartzeak ere badu berea...**

Nire alabak gauza bera esaten dit... Punk garaia zen, zerbait gordina eta zuzena jarri behar genuen, eta, hiztegi batean ikusita, aproposa iruditu zitzaigun. AEBetan ere bada Garbage izeneko taldea.

**5. Iñaki-rekin, immigrazioaz hitz egiten aitzindariak izan zineten.**

Garai berean, Jotakiek *Joxemai beltza* ere egin zuen. Ez genuen espero egun ere Iñaki-ek hor jarraitzea: produktuak aldatu dituzte, baina ez euren egoera.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Inbidia pikutara botako nuke; eta Miss Unibertsok esango lukeen moduan, munduan bakea zabalduko nuke"

AGM

**6. Talde mitiko bat itzultzean muturra okertzen dute hainbatek. Ulertzen dut, nik ere horrelako iruzkinak egin ditudalako. Oso ondo pasatu dugu, esperientzia polita izan da, eta, zerbait polita irteten bada, egingo dugu berriz ere. Guretzat ez da musika talde bat soilik, lagun talde bat baizik; esan dezatela gura dutena.**

**7. Eta zeuri, zein talde itzultzeak egingo lizuke ilusioa?**

Itoiz. Duela hiruzpalau urte ikusi nituen Juan Karlos eta Foisis jaunak Bilboko Orkestra Sinfonikoaz kantu bat jotzen, eta gosez geratu nintzen. Baina ezinezkoa dirudi.

**8. Gaurko zein euskal talde oroituko dugu 20-30 urte barru?**

Berri Txarrak, Esne Beltza, Beta-garri... Jarraikotasuna duen talderik dagoen? Denetarik dago... Kontua da industriak behera egin duela, eta talde asko dagoela, lehia handiagoa. Baina baliabideak ere eskuragarriago daude.

**9. Idazle moduan, mikroipuinak eta ipuin motzak landu dituzu, batez ere. Nobela bat idazteko nagiegia?**

Falta zaidana denbora da. Datorren urterako gauzak hobeto antolatu eta eleberririk bat hastea, behintzat, gustatuko litzaidake.

**10. Blogari moduan ere nahiko aktiboa zaitugu. Zer ematen dizu?**

Plazer handia da: lehen bi fantzine egin nituen, eta lan itzela zen. Egund, dena zure etxean egin dezakezu, eta mundu osoan zabaldu.

BIHARAMUNA



IXIDOR SOLUPE

Kexatiak!!

Udan sartuak gara, oporrak bertan edo jada kanpoan, San Juan astean arrasatearrontzako gerta ohi den moduan. Jaiak edo oporrak izan, beti gaude eguraldiak zer eskainiko digun zain, berau lagun ez dugunean jai edo oporrek asebeteko ez bagintuzte bezala. Bero denean, gehiegizkoa delako. Hotz denean, ezin dugulako behar bezala gozatu. Euria denean... zer esanik ez. Klimatologikoki pribilegiatuak gara, ohar-tzen ez garan arren. Gure lurra emankorra eta aberatsa baldin bada, klima paregabea daukagulako da.

Munduan barrera, lehorturiko lurretan gosez eta gaixotasuneko jota hiltzen dira egunero makina bat gizaki, bereziki haurrak. Euri eta elurrik gabe, ez dago uririk; uririk gabe, lurrak fruiturik ez, eta gosea da gizadian zabaltzen dena. Baina, uririk ezean, garbitasun ezak ere kolera, malaria edota sendabiderik ez daukan ebola bezalako gaixotasunak dakartza.

Bitartean, gu kexu gara eguraldiak oporraldiko egun gutxi batzuk, ustez, zapuztu dizkigulakoan. Eguraldia ez da horren erantzule; gu geu gara, beraz, argi edo ilun, lehor edo busti, eguraldia beti gure lagun. Arrasatearrok, ondo pasa sanjuanak!

Arrasateko hipermerkatua

**EROSKI**  
zurekin



Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30

# BIZI EZAZU UDA

**EROSKI**

**Etzaulkia**

- Altzairua eta textiline
- Grisa edo artile-kolorekoa
- 170 x 55 x 69 cm
- Tolesgarria

# 42€



Eskaintza baliagarria: 2014ko uztailaren 23ra arte